



KANTXETAKO LANA EGINDA, BULEGOETAKOA ORAIN

Ointxe! saskibaloia klubeko MU taldeak mailaz igotzea lortu zuen joan den asteburuan; orain, ordea, 130.000 euro behar dituzte Espainiako hirugarren mailan lehiatzeko. Hainbat erakunderen atek joko dituzte

Ointxe! klubeko jokalariek, entrenatzailea eta presidentea, asteon, elkartean egoitza, Arrasaten. XABIER URTZELAI



Oñatiko txondorra egiten aritu den herritar talde bat, txondorraren ondoan. O. ELORZA

Auzolanean egindako txondorra piztuko dute Oñatin zapatuan

36 tona pago egur erabili dituzte txondorra eta etxola egiteko; ekimenak antolatu dituzte, eta bihar hasiko dira / 26

Latinoamerikako espresio kulturalak, gastronomikoak eta artistikoak ospatuko ditu Amerikak bihar / 10

Udaltzainei suzko armak ematearen aurkako mozioa onartu du Bergarako udalbatzak / 18

'Algaraka' bakarriketa lehiaketako finala gaur, Seminarixoan; lau lehiakide, sari nagusiaren bila / 34

SINADURAK	
	OIER ZUMARRAGA ARANBURU / 14
	UNAI ETXENAGUSIA / 6
	MAMADOU SARR / 19
	JOHANNA SANCHEZ / 9
	ASIER UGARTE IMAZ / 27



CORPUSAK 2024 OÑATIN / 28



BULEGOAK ALOKAGAI

GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak

60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46





Basalگو auzo inguruetan sei aerosorgailu jartzeko asmoa dute. GOIENA

Bi parke eoliko gehiago eraiki nahi dituzte

Bergarako Basalگو auzo inguruan sei aerosorgailu jarri nahi ditu Arena Power Solar enpresak; Green Capital Power enpresak, berriz, Aramaio, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Legutio artean lau aerosorgailu jartzeko asmoa du

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Dagoeneko ezagunak ziren Debagoiengan egin nahi dituzten Itsaraz eta Trekutz parke eoliko proiektuak. Hala, orain beste bi parke eoliko gehiago egiteko asmoa azaldu dute beste bi enpresak: bata, Bergarako Basalگو auzo inguruan; eta bestea, berriz, Aramaio, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Legutio artean dagoen Jarindo mendiararen inguruan.

Egubakoitzean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak iragarri zuten, Ekonomiaren Garapen, Jasangarrtasun eta Ingurumen Sailak Basalgoko parke eolikorako aurkeztutako alde aurreko administrazio-baimenaren eskaera jaso zuten. Eskaera horretan, Bergara, Elgeta eta Eibar artean 39,6 megawatteko potentziadun sei aerosorgailu instalatzeko asmoa jakinarazi zuten Espainiako Arena Power Solar enpresak. Proiektua gauzatu gero, Gipuzkoako parke eoliko handiena izango litzateke. Orain,

interesa duten enpresek hogeigun dituzte lehiaketan parte hartu nahi duten esateko.

Jarindon parke eolikia

Hiru egun geroago iritsi zen Jarindo mendiararen ondoan gauzatu nahi duten proiektuaren albistea. Green Capital Power enpresak lau haize-errotako parke eoliko bat eraikitze asmoa du –Capital Energy multinazionalaren parte da eta Trekutz parke eolikoaren (Antzuola) proiektua ere badu esku artean– Aramaio, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Legutio artean dagoen Jarindo mendiararen inguruan. Astelehenean egin zuten publiko EAEko Aldizkari Ofizialean aurretiazko baimen

**AZKEN BI ASMOAK
GEHITUTA, LAU PARKE
EOLIKO JARRIKO
LITUZKETE
DEBAGOIENEAN**

administratiboaren eskaera. Lau haize-errotak horiek hogeigun megawatteko potentzia izango lukete, guztira.

Guztira, lau parke

Azken bi horiez gain, aurretik, Debagoiengan beste bi parke eoliko egiteko asmoa ere erakutsi zuten. Aurkeztu zen lehengo Norvegiako Starkraft enpresarena izan zen. *Itsaraz parke eolikia* izenez aurkeztu zuten, eta asmoa da 42 milioi euroko aurrekontuarekin zortzi aerosorgailu jartzea. Aditza eman zen bigarrena Trekutz parke eolikoarena izan zen. Kasu horretan, Capital Energy enpresak, 10,3 milioi euroko aurrekontuarekin, bost megawatteko potentzia izango luketen bi aerosorgailu jartzeko asmoa jakinarazi zuten: bata, Antzuolako lurretan, Meaka gainean; bestea, Urretxuko lurretan, Irimon. Bi proiektuak alegazioak aztertze epean daude gaur egun.



Asteburuan Arrasateko Eroskin egin zuten bilketaren irudi bat. IMANOL SORIANO

Iazko kanpainan adina elikagai bildu dutela uste dute

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak antolatuta, udaberriko elikagai bilketa egin dute bailarako zenbait herritan

I.B.K. DEBAGOIENA

Urtero legez, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak antolatuta, udaberriko elikagai bilketa egin zuten joan den asteburuan, eta bailarako hainbat herritan ere boluntario ugari ibili dira lan horretan. Arrasaten, Eroskin eta BMn; Bergaran, Eroskin eta Super Amaran; Oñatin, Eroskin, BMn eta San Migel kooperatiban; eta Aretxabaletan eta Eskoriatzan Eroskin ibili dira herritarrek egin dituzten ekarpenak jasotzen.

Oraingoz, ez dago bilketaren datu zehatzik, baina iazko datuak errepikatuko dituztela aurrekusi du Jose Mari Beitiak, Bergarako Elikagaien Bankuko arduradunak: "Orain arte dugun esperientziarekin, iazko datuak errepikatuko direla aurreikusten dugu, ez da gehiago ezta gutxiago egongo". Dena dela, asteburuko bi eguez gainera, aste osoan jendeak aukera izan du Eroskin dohaintzak egiteko; kasu horretan, produktu fisikoak baino gehiago, ekarpen ekonomikoak izan dira.

Kanpainekin ez da nahikoa

Urtean bi kanpaina egiten ditu Gipuzkoako Elikagaien Bankuak: bat neguan eta bestea udaberrian. Dena dela, jendeak ekarpenak egiten dituen arren, ez dute nahikoa izaten eskakizunak betetzeko. "Enpresei eta pertsona partikularrei bidaltzen dizkiegu eskabideak. Eskerrak horri. Erosketa batzuk egiten ditugu kanpainen osatzeko eta jendea-

ri emateko", dio Beitiak. Esaterako, iazko kanpainak osatuta, 476 tona falta zitzaizkiela adierazi du Bergarako Elikagaien Bankuko arduradunak, eta, hain zuzen, enpresek eta partikularrek egindako ekarpenekin erosi ahal izan zuten kantitate hori.

Hala eta guztiz ere, gaur egun elikagaiek dituzten prezioen igoerekin geroz eta diru "gehiago" behar izaten dutela dio Jose Mari Beitiak: "Kontuan izan prezioan bariazioak daudela. Iaz 400 tonatik gora izan ziren, baina aurten auskalo zenbat izango diren. Esaterako, olioak izan duen prezio igoerarekin, diru gehiago behar dugu gauza berdinak emateko".

Boluntario falta

Gure bailaran jasotako guztia kudeatzeko 52 boluntario dabil-tza Bergaran lanean, bost talde-tan banatuta. Beitiak argi du boluntario falta dagoela: "Geroz eta zailagoa izaten da boluntarioak aurkitzea, eta, gainera, urteetan lanean daramagunoi erreleboa emango digutenak ere behar ditugu". Hala ere, "esker-rak" eman nahi izan dizkie asteburuan egin den udaberriko bilketan laguntzen aritu diren boluntario guztiei.

**ENPRESEI ETA
PARTIKULARREI
ESKAERAK EGITEN
DIZKIETE KANPAINAK
OSATZEKO**

Ultraeskuinaren aurkako "harresia" izango da

Ekainaren 9ko Europako Parlamenturako Hauteskundeetako kanpaina ekitaldia martitzenean egin zuen EH Bilduk Bergarako Munibe plazan, alderdikideekin batera

Imanol Beloki Unamuno BERGARA
EH Bilduren ekitaldian Pernando Barrena Europako Parlamenturako hautagaia eta Maddalen Iriarte Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramailea izan ziren gonbidatu nagusi moduan, Gorka Artola Bergarako alkaterekin eta alderdikideekin batera egindako saioan.



Pernando Barrena, Maddalen Iriarte eta Gorka Artola, Bergaran. IDOIA ARANBARRI

Ultraeskuinari aurka

Iriartek azpimarratu zuen EH Bildu dela Bergarako eta Gipuzkoako lehen indarra eta ezker abertzaleak ekarri duela aldaketa bat Euskal Herriko politikara. "Horregatik da garrantzitsua hilaren 9an berriro gure indarra erakustea". Iriartek gaineratu zuen ultraeskuinaren aurrean

EH Bildu herritarrekin batera "harresia" izango dela. Pernando Barrenak ere ildo beretik jarraitu zuen; esan zuen EH Bildu antifaxismoan lerrotzekin dela: "Jarraitzen dugu pentsatzen demokratik izateko, lehenik eta

behin, antifaxistak izan behar dugula". Ukrainako eta Palestinako gerrei erreferentzia eginez, gatazka politikoak konpontzeko "elkarrizketa eta nazioarteko elkarten diplomazia" lehenetsi behar direla ere adierazi zuen.



Asteon, EAJko ordezkaria, Bergarako Irala kalean egindako ekitaldian. IÑIGO BARRENA

Faxismoari proposamenen bitartez aurre egiteko hautua

Etorkizunean "Euskadi libre bat Europa libre batean" egoteko nahia duela esan du alderdi jeltzaleak

I.B. BERGARA

EAJk eguaztenean egin zuen kanpaina ekitaldia, Bergaran, Irala kalean. Europako Parlamenturako gazteen hautagai Aitana Agirrek, Mikel Lete Bergarako EAJren udal bozeramaileak eta Elena Lete eta Aitor Urrutia EAJko legebiltzarkideek hartu zuten parte, eta adierazi zuten EAJk faxismoari eta ul-

traeskuinari proposamenekin egin nahi diela aurre Europan.

Demokrazia arriskuan

Aitana Agirrek adierazi zuen EAJ alderdi europazalea izan dela betidanik, eta beti borrokatu dela demokraziaren alde, Europa justu eta sozialaren alde; orain, ordea, hori arriskuan da goela diote jeltzaleak.

Euskal kulturaren sustapena eta Palestinaren aitortza berbagai

Andeka Larrea Sumarreko EAEko bozeramailea izan da alderdikideekin Arrasaten, Sumarren ekitaldian

I.B. ARRASATE

Martitzenean egin zuen Biterin ekitaldia Sumarrek, eta programako bi gai azpimarratu zituen. "Euskal kultura, euskara eta euskal nortasuna garrantzitsuak dira eta lekua behar dute Europan.

Palestina aitortzea ere lortu dugu, baina ez da nahikoa. Beste neurri batzuk eskatuko ditugu; besteak beste, Israelekin harreman diplomatikoak bukatzea", adierazi zuen Andeka Larreak, Sumarreko EAEko bozeramaileak.



Sumarreko ordezkaria, asteon, Arrasaten, Biteri plazako ekitaldian. IMANOL BELOKI

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aukien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

arizmendi ikastola

Gurekin lan egin nahi duzu?

Bigarren Hezkuntzan arlo hauek irakasteko pertsonak behar ditugu:
FILOSOFIA, EUSKARA, GAZTELANIA, INGELESA, HISTORIA, MATEMATIKA eta FISIKA.
*BH masterra eta C1 euskararen ezinbestekoak

www.arizmendi.eus/harremanetarako

Bidali zure kurrikuluma



Jon Etxeberria, Kristina Elkoro eta Txuss Alonso, eguaztenean, Garaian, AEDk antolatutako mahai-inguruan. TXOMIN MADINA

Enpresetan euskara integratzeko gakoak

Emankorra izan da lan-munduaren euskalduntzeari buruz eguaztenean Arrasateko Garaian egindako mahai-ingurua. AEDk gonbidatuta, egindako bidearen giltzarri nagusien berri eman zuten Elay, Ikerlan eta ABB-Niessen enpresetako ordezkariak

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE "Benetako salto kualitatibo bat eman behar bada, eta jakinda pertsona gehienok lanean ematen dugula bizitzaren ia herena, heren hori ez bada euskaraz bizitzeko abagune bihurtzen, galera edo oztopo handi bat dugu", azaldu du mahai-inguruan, AEDko lehendakari Eñaut Muxikak.

Ibilbide bat egindako hiru enpresetako ordezkariak elkartu zituzten, bizi duten errealitatea hobeto ezagutzeko eta ikuspuntu diferentek trukatzeko. "Azaldu dituzten ideiak, erronkak eta ikuspuntuak oso aberasgarriak izan dira. Betikoa ezagutzen dugunez, ez dugu pentsatzen egiteko beste modu batzuk dau-

denik. Alde horretatik, saio benetan emankorra izan da", esan du Muxikak.

Elay, Ikerlan eta ABB-Niessen enpresetako ordezkariak ere balorazio positiboa egin dute. "Gure arteko esperientziak partekatzea beti da interesgarria; beti ikasten da", esan du Elay enpresako Kristina Elkoro.

Elay aitzindaria bailaran

Antzuolako Elay enpresa aitzindaria izan da euskararen normalizaziorako plan integral bat martxan jartzen. 90eko hamarkada hasieran langileen %35 ez zen euskal hiztuna. Gaur egun, langile ia guztiek dakite euskaraz Antzuolako plantan. "Bide luzea izan da, eta uste dut azpimarratzekoak diren zenbait gako egon direla", esan du kontseilari delegatu Kristina Elkoro. "Gutxieneko adostasun bat egon zen jabegoaren eta arlo sozialaren artean. Euskaraz lan egiteko erabakia ere hartu egin behar da; izan ere, errotuta ditugun ohiturak aldatu egin behar dira. Azkenik, uztartu egin behar dira ezagutza eta erabilera. Hortik abiatuta, pausoak ematen joan behar da plangintza eta metodologia batekin, euskara enpresaren sisteman integratzeko".

Ikerlanek 30 urteko ibilbidea

Ikerlan kooperatiban 30 urte daramate erakunde euskara normalizatzeko urratsak egiten. "Esango nuke euskarak Ikerlanen izan duen bilakaera gizartean izan duenaren oso antzerakoa dela. Hasieran, alfabetatze eta ikasketa prozesuetan jarri genuen arreta, eta azken urteetan gehiago ari gara erabilera. Hor dugu benetako erronka", azaldu du Ikerlaneko zuzendari nagusi Jon Etxeberriak. Euskarak duen balio sentimentala eta kultura azpimarratzeaz gain, eragiten

duen partaidetza eta kohesio sentimentua nabarmendu ditu: "Ikerlanen bada kolektibo bat euskaraz eta erakunde euskaldun batean lan egin nahi duena. Pertsona horiendako euskarak balio erantsi bat du". Bi erronka nagusi azpimarratu ditu Etxeberriak: erronka demografikoaren eraginez hizkuntzaren kudeaketa konplexuagoa dela eta gai sozialen arteko konpetentzia. "Ikerlanen Emunekin egiten dugu lan, eta, beste gai askotan moduan, profesionalen laguntza oso garrantzitsua da".

ABB-Niessen, ardura handitzen

Oiartzungo ABB-Niessen enpresan 25 urte daramate euskararen normalizazioan. "Pandemia aurretik, aldaketak behar zirela sumatzen hasi ginen. Euskara batzordean jendea nekata zegoen, eta heldu genion *etengabeko hobekuntza* kontzeptuari. Hala, hizkuntza zehar-kako elementu gisa jorratzen hasi ginen enpresan", azaldu du Txuss Alonso ordezkariak. "Sinistuta gaude jende kritiko eta arduratsua sortzen dugunean hizkuntzarekiko ardura ere handitzen doala".

"BIZITZAREN HERENA LANEAN EMATEN DUGU; HIZKUNTZA ABAGUNE BIHURTU BEHAR DUGU"

Ekilur belar-denda saritu du Gipuzkoako Bazkondeak

Arrasateko Bea lentzeria dendak ere saria jaso du; kasu honetan, herritarrek boto bidez emandakoa

L.Z.L. ARRASATE

Gipuzkoako Bazkondeak berriki egin du Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Sarien 2024ko ekitaldia. Hiru sari nagusi eman ditu; horien artean da Ekilur belar-dendari emandako Retailero Euskal Eskola Saria.

Lau pertsonako lantaldea eta Bergarako eta Antzuolako salmenta puntuak ditu Ekilurrek. Bezeroen ongizatera bideratutako proposamena hobetzeko egindako ahalegina nabarmendu dute sariketari. "Retailero Euskal Eskolan parte hartzeko



Ekilurreko Marian Ortiz sariarekin. G.B.

erreferentziazko saltokietako bat izateaz gain, programan bertan edukiak hobetzen eta jarduera berriak garatzen lagundu du. Ikasle izatetik maisu izatera igarotzearen eredu ikusgarria da", azaldu dute.

Oso eskertuta daude Ekilurren, eta bezeroak dituzte gogoan. "Haiek dira gu handi egiten gaituztenak. Zerbitzu eman nahi horrek bultzatzen gaitu hobeak izatera, hobeto formatzera eta berrikuntza ekartzera".

Bea Lentzeriak ere saria

Sariketan lurraldeko hamar negozio aukeratu dituzte herritarrek boto bidez. Horien artean da Arrasateko Bea Lentzeria. "Oso pozik gaude. Sari honek indarra ematen du orain arte moduan onena eskaintzen jarraitzeko", esan dute.

Gero eta parte hartze handiagoa dute Goienagusiren ekintzek

Geopolitikarekin eta osasunarekin lotutako hitzaldiek izandako harrera nabarmendu du zuzendaritzak

L.Z.L. ARRASATE

Amaitzear da 2023-2024ko ikasturtea eta Goienagusiko ordezkariak agerraldia egin dute, balorazioa egiteko. Balantzea positiboa da; izan ere, Arrasaten, Bergaran zein Oñatin izan ohi diren hitzaldietako parte-hartze handia nabarmendu du Jesus Mari Ugarte lehendakariak: "Hitzaldiak dira jende gehien erakartzen duten ekintzak; batez beste. 90 lagun elkartzen dira". Ugarte gaineratu du antolatzen dituzten bestelako ikastaroetan, ikuskizunetan, askotariko irtee-

retan zein mendi-ibilaldietan ere gero eta jende gehiagok hartzen duela parte.

Bazkide kopuruak gora

Bazkide kopurua ere handitzen doala esan du Ugarte; ikasturte honetan 230etik 250era igo da. Horrekin batera, ekimena aurrera eramateko dituzten zortzi lantaldeetan eta zuzendaritzan jende berria behar dutela jakinarazi du. Era berean, jendea animatu du Goienagusira gerturatzen: "Denbora pasatzeko eta ikasteko aukera ona da".

Salmenten irabazia %5,1 handitu du Mondragonek

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA 11.056 milioi euroko salmentak izan zituen iaz Mondragon Korporazioak; duela bi urteko salmentekin alderatuta, %5,1eko igoera izan du. Datuak ikusita, joan den urtearen balorazio positiboa egin du Iñigo Ucinék, Mondragon Korporazioari lehendakariak.

70.500 pertsonako lantaldea du Mondragonek, eta, inbertsioei erreparatu gero, 369 milioi eurokoa izan da, 2022koa baino %6,4 handiagoa. "Zenbaki horiek berresten dute kooperatiba guz-

tiak gai izan direla ekitaldi korapilatsu bat aise gaintzeko, non geopolitikak ekonomiaren eta merkatuen bilakaera baldintzatu duen", adierazi du Ucinék.

2024ko bilakaera

Ucinék azaldu duenez, 2024ari begira jarriz gero, lehen lauhilekoan negozio guztien bilakaerak "azken urteetako ildotik jarraitu" du. "Nahiz eta mundu osoko egoera geoestrategiko konplexuak eta guretzat garrantzitsuak diren herrialde batzuen ahultasunak ziurgabetasuna

eragin, batez ere, Alemaniaren, Europako erdialdearen eta baita Txinaren ahultasunak ere".

Emaitzak sektoreka

Eroskik 5.729 milioi euroko salmentak izan zituen, %6,3 gehiago,

eta 109 milioi emaitzak, %70 gehiago. Erkop-eko nekazaritzako elikagaien lau kooperatibek, berriz, 290 milioi fakturatu zituzten, eta 6,4 milioi emaitzak izan zituzten. Laboral Kutxak, aldiz, 222 milioi euroko emaitza izan du, %48ko igoera. Eraikuntza dibisioan salmentek atzerapena izan dute. Ekipo ondasunetan eta ingeniariaritzan eta zerbitzuei loturiko proiektuetan hazkundea izan da; azken horretan, %12tik gorakoa. Ekipamenduan aurrez

zertorren "bilakaera positiboa" mantendu dute eta automobilgintzan %14ko salmenta hazkundea izan dute. Ezagutzaren alorrean, azkenik, berrikuntzaren alde egindako apustua nabarmendu nahi izan dute.

Kongresua

Uztailaren 17an Bilboko Euskalduna jauregian kongresua egingo dute eta Ucinék azken agerraldia izango du bertan. Pello Rodríguezek ordezkatu du abuztuaren 1etik aurrera.



Onnera Groupeko batzar nagusia. ONNERA GROUP

Onnera Group izatera pasatuko da Fagor Industrial

Kooperatibak, 50. urteurrenean, fundatzaileak omendu ditu eta izen berria hartzeko erabakia hartu du.

G.B.Z. OÑATI

Joan den astean, Fagor Industrial S. Coop.-eko bazkideen batzar nagusia egin zen Oñatin, 359 pertsona bildu zituena. Aurtengo ekitaldiak garrantzi berezia zuen: erakundearen lorpen eta aurrerapen esanguratsuak partekatzear gain, 50. urteurrena ere ospatu zuten eta bazkide fundatzaileei omenaldia egin zieten.

Batzarrean, 2023ko emaitza ekonomiko-finantzarioak aurkeztu ziren, eta, 370 milioi euroko fakturazio-zifrarekin batera, %12,6ko EBITDA nabarmendu zuten. Egoera ekonomikoa

aztertzeaz gain, kooperatibaren izen soziala aldatzeko bozketa egin zuten batzarrean. Bazkideek gehiengo zabalarekin onartu zuten Fagor Industrial S. Coop. etorkizunean Onnera Group S. Coop. deitzea.

Aldaketaren bitartez, honako helburu hauek azpimarratu nahi dituzte Onnera Groupeko kideek: merkatu globaleko presentzia indartzen jarraitzea eta marka komertzialen kudeaketa hobetzea, hala nola Fagor Professional, Edenox, Asber, Efficold, Danube, Domus, Primer eta Onnera Contract markena.



Mondragon Unibertsitatea



Gure ikasleen ahotan



Izen-abizenak: Ander Etxabe
Herria: Arrasate
Gradua: Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako (LEINN) lehen maila

"Orain arte izandako ikasketa eredutik asko aldentzen da LEINN"

Zergatik aukeratu zenuen LEINN?
Jon Kareaga izeneko ekintzaile baten bitartez ezagutu nuen LEINN, DBH-3n nengoela. Gradua zertan zetzan bilatzen hasi nintzen, eta sentsazio onak ematen zizkidan; proiektuak egin nahi nituen, talde-lana eta bidaiak egitea, besteak beste, ahalbidetzen zuelako. Gainera, batxilergoan ez nuen garbi zer egin nahi nuen, eta gradu horrek bideak zabalik uzten zizkidan.

Nola ari da izaten LEINNen bizitako esperientzia?
Oso berezia. Graduaren lehen hilabeteetan desikaste prozesu batean murgilduta egon naiz; izan ere, orain arte izandako

ikasketa modutik asko aldentzen da LEINN. Oso praktikoa da eta ikasketa prozesua egoera errealean oinarritzen da.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan; nola egiten da hori?
Oso bitxia da. LEINN graduan sartzean, lehenengo egunetan garrantzi handia ematen zaio harreman pertsonalak eraikitzeari; izan ere, egun gutxitara taldeak egiten dituzte, eta apenas ezagutzen dituzun horiekin batera lau urtez enpresa talde berean jardun behar duzu. Enpresaren sortze prozesua beste edozein enpresa batek izango lukeen berdina da.

Nolakoa da taldean lan egitea?
Talde-lanean aritzea oso emankorra da, nahiz eta une gogorrek egon ere. Pertsona bakoitzak profil jakin bat du, eta elkarrekin lan eginez norbera bakarrik baino askoz urrunago irits daiteke.

Ze proiektutan ari zarete lanean LEINNen barne?
Hainbat proiektu ditugu esku artean. Horietako bat Beti Gazte

deitzen da. Hirugarren adineko pertsonen zuzendutako tailerrak antolatzen ditugu, bai nagusien egoitzetan, bai jubilatuen egoitzetan. Beste bat Futbarrio deitzen da, eta futbol txapelketak antolatzen ditugu; ahal den heinean, kausa sozial bat aldarrikatuz. Azkenik, Row Studio. Proiektu horretan diharduten taldekideek webguneak egiten dizkiete gure inguruko herrietako komertzio txikiak.

Zer-nolakoa izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?
Esperientzia ahaztezina izan da. Berlineko hilabete bat egon ostean, gauza ugari ikasi ditut. Bertako kulturaren eta bizimoduaren murgildu gara eta inpaktu positiboa sortzen ari diren hainbat enpresa bisitatu ditugu. Berlingo euskal etxarekin batera elkarlanean aritu ostean, euskal *networking* bat antolatu genuen.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?
Arlo askotariko proiektuak garatu nahi ditut, hainbat gairen inguruan ikasteko, baina, betiere, kutsu soziala izan dezatela.



ZABALIK

UNAI ETXENAUSIA

Izar asko, baina argirik ez

Kazetariaren irudia protagonismo eta izar zurrumbilo batean murgiltzen den aro batean, Maritxu Diez Radio Vitoriako esatari ohiaren hausnarketak ofizioaren muinera itzultzen gaitu. *Berria*-ri eskainitako elkarrizketa batean, Diezek irmo adierazi zuen: "Nire ustez, ahalik eta ondoena egiten saiatu behar du kazetariak; profesional on bat izan behar da. Erretiratzean, joan eta kito, ez da ezer gertatzen. Izar gehiegi daude kazetaritzan, baina kazetari profesionalak behar ditugu".

Hitz horiek inoiz baino zentzu gehiago daukate egungo testuinguru mediatikoan, non ikusgarritasunak eta ospearen bilaketak kazetaritzaren funtsezko misioa alboratu duten – informazioa zorroztasunez, egiazkotasunez eta erantzukizunez ematea–. Kazetari *izarren* ugaritzeak, informatzaile baino gehiago pertsonaia mediatiko direnak, desitxuratu egin du kazetari izateak esan nahi duenari

buruzko pertzepzio publikoa. Egiaren zaindari izan beharrean, kazetari asko ospea eta onspena bilatzeko tranpan erori dira.

PUBLIKOARENTZAKO INFORMAZIO ETA HEZKUNTZA TRESNA BAT IZAN BEHAR DU KAZETARITZAK

Ordea, kazetariak gogorarazi behar dute beren ardura nagusia publikoa informatzea dela, ez

exhibizionista edo iritzi emaile izatea. Egunaren amaieran, benetan garrantzitsua da egindako lanaren kalitatea eta horrek gizartean izan dezakeen eragin positiboa, ez haien irudiak edo iritziak izan dezakeen eragina.

Izar gutxiago eta profesional gehiago behar ditugu, egiazkotasunez informatzeko betebeharrarekin konprometituak. Kazetaritzak itxurakeria eta ospearen bilaketa kendu behar ditu bere benetako helburua berraurkitzeko: publikoarentzako informazio eta hezkuntza tresna bat izatea. Horrela bakarrik berreraiki ahal izango dugu hedabideekiko konfiantza, eta kazetaritzak lanbide duina eta errespetatua izaten jarraituko duela bermatu. Alfonbra gorriak artistentzat, ez kazetariarentzat.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Noiz arte?

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/WFMDE](https://labur.eus/wfmde)

Bilbon ezagutu genuen erakustazoka.

Eta han mitinak eta kontzertuak.

Makinak eta erremintak urrun geratzen zitzaizkigun batetik, eta hurbil bestetik, industrialdeak sortzeke, lantegiak artean herriguneetan zeuden eta.

BEC eraiki zuten gero, Barakaldon.

Eta han egiten da aspaldiko urteetan makina-erremintaren biurterokoa.

32. aldia izango du datorren astekoak.

"Oso indartsua" izango dela iragarri dute antolatzaileek.

"Makinak martxan erakusten dituen benetako ikuskizun teknologikoa". 1.558 enpresak hartuko dute parte.

3.593 produktu erakutsiko dituzte.

400 berritasun izango dira.

Robotak 105...

Baikortasuna.

Berrikuntza edozertan ere.

Ez dut gaiarekiko inolako hurbiltasunik.

Baina bai adiskide bat bi urtean behin aste hori Barakaldon ematen duena, horretatik eta horretarako bizi dena.

Kopeta zimurtuz kontatu zidan ez dakiela ze etorkizun izango duen ekimenak.

Bi-hiru enpresa erraldoik etortzeari uko egitea aski izango dela, hainbat denboran iraun duena bertan behera geratzeko.

Fio naiz lagunaren bihozkadaz.

Biurtekoak ez duela beste hiru ekitaldi iraungo jokatu nuke.

Munstro bat irudikatu dut bere burua irentsiz.

Izan ere, egiteko moduak hainbeste aldatu badituzte, erakustekoak ere derrigor aldatu beharko lituzkete...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
 Kooperatiba Elkarte
 Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
 Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
 Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
 Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
 Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna
 Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
 Imanol Soriano,
 Aitor Lagoma,
 Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
 Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
 Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
 Otalora Lizentziaduna 31
 132 posta-kutxa
 Tel.: 943 25 05 05
 Telegram eta WhatsApp:
 688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
 Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Europako legediak eragin zuzena dauka gure bizitzan"

IKER BARBERO IRAKASLEA EHU-N ETA LSNE-N

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Europako hauteskundeak garrantziaz, Bruselan hartzen diren erabakiez eta hauteskundeak ostean hartu beharreko erabaki nagusiei buruz hitz egin du Zuzenbide irakasle Iker Barberok GOIENArekin.

Zer dago jokoan Europako hauteskundeetan?

Europako Batasuneko proiektu solidarioa eta aurrerakoa izatea. Ikusten ari gara eskuin muturreko ideologia aurrera doala, edo hala esaten dute inkestek. Helburua izan beharko litzateke horma bat ezartzea. Ongizate estatuaren murrizketa dagoeneko martxan dago eta orain erradikalagoa izango litzateke. Nolabait, Argentinan gertatzen ari den bezala; ikusten dugu eredu hori hemen ere ezarriko litzatekeela.

Parte-hartzea %50etik beherakoa izatea aurreikusten da; zein da horren arrazoia?

Ezjakintasuna garrantzitsua da; Europako Batasuneko sistema politiko eta juridikoa oso konplexua da. Normala da jendeak ez jakitea zer bozkatzeko duen. Uste dut Europako agintarien lana oso ezezaguna dela. Ez gara konturatzen Europako



Iker Barbero. LSNE

legediaren %60-70k eragin zuzena dauka gure bizitzan. Haserrea ere badago. Gizarteak pairatu izan ditu murrizketak, giza eskubideen kontrako erasoak... Europatik gauza onak ere badatoz: diru-funtsak eta dirulaguntzak.

Aipatu dituzun arrazoiek lagundu dezakete boto-emaileak mugiarazten?

Parte-hartzearen gorakada efektu bikoitzetik dator. Eskuin muturrak jakin izan du sare sozialen bitartez

kanpaina oso ona egiten. Europako Batasuna eta Europako erakundeak konturatu dira egoera hori dagoela eta sare sozialetan zabaldu dute bideo bat erregimen totalitarioen arriskua ohartaraziz, eta saiaturiko da mobilizatzen totalitarismoaren kontrako botoetan.

Zilegitasuna irabazten dabil eskuin muturra?

Zilegitasuna, ez dakit; presentzia, bai. Presentzia aspaldi lortu zuen eta orain

ikusi dugu Europako Batasuneko erakundeak baliagarriak direla, eta horretaz baliatu nahi du haren proiektua aurrera eramateko.

Ultraeskuina Europarliamentuan agintzen duen lehen alderdien artean kokatzen bada, ze norabide aldaketa gerta daiteke?

Europako Batasunean eskuin muturra aspalditik da erreferente bat; batez ere, Europako eskumarentzat. Erakunde batzuetan eskuina eta eskuin muturra elkarrekin ari dira lanean, elkarrekin bozkatzeko dute. Gorakadaren olatua handia izaten bada, karguen banaketan eragina izango du, eta, agian, batzordean eserleku bat izan dezake, eta horrek immigrazio politikan, politika publikoen kudeaketan eta klima aldaketan eragina izan dezake. Zein urrats egin beharko luke Europako Batasunak Ekialde Hurbilean bakea lortzeko?

Batetik, adierazpen politikoak daude. Oraindik Europako Batasunak ez daki zein den horren aurrean izan behar duen diskurtsoa. Alemaniak pisu handia dauka eta Alemaniak, historiaren ondorioz, oraindik muga batzuk ikusten ditu Israelen gerra gaitzesteko. Ekonomian ere Israelekin akordio bat existitzen da elkarlanerako eta juridikoki uste dut badagoela tresna bat Israelgo gerra geratzeko. Akordioak eskatzen du giza eskubideak bermatzea, eta ez da hori gertatzen. Europak militarizatzerara egingo du? Derrigorrezko soldaduska bueltatuko da?

Herrialde bakoitzak erabakitzen du hori, baina ikusten ari gara gorakada dagoela gastu militarrean, segurtasunean... Gutxienez, beldur hori sartzen ari da, eta beldurra elementu bezala politikan sartzen denean oso zaila da kontrolatzea.

Beldurra kontrolatzen duenak joko-taula kontrolatzen du, eta oso arriskutsua da.

Zeintzuk izango dira datozen urteetan hartu beharreko erabaki nagusiak?

Eskuin muturra gailentzen bada, klima aldaketaren kontrako neurriak, estaturik gabeko nazioetan hizkuntzak erabiltzeko zailtasunak eta migratzaileen eskubideen murrizketak izango dira. Hauteskunde kanpaina nola ari zara ikusten?

Politika oso bortitz bihurtzen ari da. Elkarriketarako espazio gutxi dago, elementu fidagarriak ez dira erabiltzen, beti ari dira gezurrak edo ustezko datuak erabiltzen. Ezin da gaur egungo politika gezur orokor bat izan.

"BELDURRA KONTROLATZEN DUENAK JOKO-TAULA KONTROLATZEN DU ETA ARRISKUTSUA DA"

"POLITIKA BORTITZA BIHURTZEN ARI DA; EZIN DU EGUNGO POLITIKAK GEZUR OROKOR BAT IZAN"

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



Puzgarriak eta jolasak barraken ordeztu jaietan

2024ko San Juan jaietan ez da barrakarik egongo, ez baita enpresa bakar bat ere aurkeztu; hutsune hori betetzeko, Udalak puzgarriak eta jolasak jarriko ditu. "Esfortzu gehigarria egin dugu aurten haurren programazioa indartzeko", dio Udal Gobernuak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE "Aspalditik" datorren auzia da barrakena, Udal Gobernuak eta barraketako arduradunek adierazi dutenez. Izan ere, azken urteetan, geroz eta barraka gutxiago etorri dira Arrasatera, bideragarritasun ekonomikoa zaildu egin zaiela argudiatuta. Gobernuak azpimarratu duenez, barrakak jartzeko baldintzak berberak dira Gabonetan, San Andresko jaietan, Musakolakoe-tan eta baita sanjuanetan ere. "Kontua da lehen hiruretan jende mugimendu handia da-

goela, eta San Juan jaietan jende gutxi egon izan ohi dela", gaineratu du.

Kokapena da, hain zuzen, arazoaren eragileetako bat, barraketako arduradunen esanetan. Izan ere, Maiatzaren Bata plaza erdigunetik "urrunegi" dagoela aitortu du Atracciones Sanz enpresako arduradun Juan Pablo Sanzek. "San Andresko jaietan jendea San Andresen dago, eta barrakak bertan daude. Sanjuanetan, ordea, herritar guztiak erdigunetan daude eta oso urrun geratzen gara", zehaztu du.

Era berean, hainbat herritan zorua okupatzeko dirulaguntzak jasotzen dituzte barraketako langileek, baina Arrasaten udal tasak ordaindu behar izaten dituzte -barrakaren arabera, bost edo hamar euro metro koadroko-. Horrekin batera, baldintzetako bat izaten da bidaiako 1,80 euro kobratzea, gehienez, edota sei bidaiako abonua hamar euro.

Ondorioz, aurten ez da enpresa bakar bat ere aurkeztu lehiketa publikora, eta ez da barrakarik egongo sanjuanetan.

"Esfortzu gehigarria"

Hutsune hori betetzeko, haurrentzako programazioan "esfortzu gehigarria" egingo du aurten Udal Gobernuak: "Barrakak uzten duten hutsunea ezin da haurren kalterako izan; horregatik, jaiek iraungo duten egunetan haurren jolaserako alternatibak jartzeko erabakia hartu genuen duela aste batzuk. Alternatiba horien artean daude, besteak beste, askotariko puzgarriak edota jolasak". Are gehiago, ohiko puzgarriez gain, eguraldi ona eginez gero ur-puzgarriak ere jarriko dituztela aurreratu du Gobernuak, eta, gainera, aukera guztiak izango dira doakoak. Datorren astean



Puzgarriak eta jolasak Biteri plazan. GOIENA

Ikastaroetako tasak %3 igotzea proposatu du Udal Gobernuak

EAJ "erabat aurka" dago, beharrik ez dagoela argudiatuta; martitzenean landuko dute osoko bilkuran

E.A.B. ARRASATE

Ezusterik ezean, 2024-2025eko ikasturteko tasak onartuko ditu datorren astean udalbatzak, oraindik aldatu gabe dauden azken tasak. Espainiako Estadistika Institutuaren (INE) ara-

bera, 2023ko apiriletik 2024ko apirilera %3,3ko hazkundea izan da ondasun eta zerbitzuen kontsumoaren batez besteko prezioetan. Hori kontuan izanda, Ogasun batzordeak proposatu du ikasturteko tasak %3 igotzea.

Proposamen horren "erabat aurka" azaldu dira jeltzaleak. Udalaren finantza egoera "ezin hobea" dela adierazi du Ander Garayk, jeltzaleen udal taldeko bozeramaileak. Ez du ulertzen Gobernuaren proposamena: "Zorrikerria gabeko egoeran gaude, eta, gainera, aurreko urtetik ia 13.000.000 euroko soberakina izan dugu. Ez da ulergarria Udalak finantza-premiarik ez duenean eta inflazioaren krisia oraindik amaitu ez denean tasak arrasatearrei igotzea".

"Azken urteetan, geroz eta traba gehiago jarri dizkigu Udalak"

JUAN PABLO SANZ ATRACCIONES SANZEKO ARDURADUNA

Sanjuanetan barrakarik ez aurkezteko hiru arrazoi nagusi plazaratu ditu Juan Pablo Sanzek (Beasain, 1972).

Nola hartu duzu albistea?

Azken hamarkadako joera ikusita, garbi zegoen hau iritsiko zela. Are gehiago, guk joateari utzi genion duela bost urte, San Juan egun batean 30 euro baino ez genituelako irabazten. Azken urteetan geroz eta traba gehiago jarri dizkigu Udalak.

Zein da arazoaren muina?

Zorua okupazioa diruz lagunduta izan dugu 50 urtean Arrasaten. Baina, duela urte batzuk, tasa bat kobratzen hasi zen Udala. Bestalde, Biteritik Maiatzaren Bata plazara lekualdatu gintuzten, eta, hori gutxi ez balitz, fitxa bakoitzeko prezioa ere mugatzen hasi ziren. Bizkaian, esaterako, badaude herriak fitxa bakoitza



ATRACCIONES SANZ

3,5 eta 4 euro kobratzen dutenak. Guk ez dugu hainbeste kobratu nahi, badakigulako gurasoek esfortzu bat egiten dutela hori ordaintzeko. Baina, gaur egun, zorua okupazioa diruz lagunduta ere, ezin dugu 2,5 euro baino gutxiago kobratu, ez da errentagarria.

Zein da soluzioa?

Udalak gehiago inbertitu beharko du hau berriro martxan jartzeko. Izan ere, Arrasate behea jota dago.

iragarriko dute aurtengo jaietako programazio osoa.

Bilerak, soluzioa aurkitzeko

"Aspaldiko arazo bati konponbidea ematen saiatu" direla adierazi du Udal Gobernuak, eta

EGURALDI ONA EGITEN BADU, OHIKOEZ GAIN, UR-PUZGARRIAK ERE JARRIKO DITUZTE, GUZTIAK DOHAINIK

horretan jarraituko dutela datorren urtera begira: "Azken asteetan bi aldiz egon gara barrakena jabeekin; sanjuanak pasatuta bilera bat egiteko eskaera egingo diegula aurreratu diegu, haien beharrak identifikatzeko eta soluzioak bilatzeko". Sanzek zera dio: "Orain arte borondate gutxi ikusi dut; ez dut soluziorik ikusten". Auziarekin zerikusia duten eragile batzuekin bilduko da Gobernuak gaia lantzeko; adibidez, Gurasoen Asanbladarekin eta Haurren Kontseiluarekin.

Ikasturte amaierako topaketa egingo du Emakume Txokoak

Ekainaren 7an, egubakoitza, agurtuko du ikasturtea Emakume Txokoak, 18:00etan gunean bertan hasiko duten topaketa-rekin. Ikastaroetan landutako gaiak eta ezagutzak partekatuko dituzte topaketan eta txalaparta doinuek eta antzerki eta dantza ikastaroetakoek ere jai giroa jarriko dute. Ondoren, mokadutxo izango dute, sortutako gi-

roari jarraipena emateko eta "elkarrekin egoteko eta disfrutatzen". Hala, parte hartzeko dei egin diete herritarrei.

Jabetze Eskolako ikastaro eta gunez gain, hainbat ekimen gauzatu dituzte ikasturtean: *Arnasa betean* filmaren aurkezpena eta proiektzioa; *Trapu zikinak* antzerki emanaldia; *Ez dadin bizitza eten* hitzaldi solasaldia eta abar. Egitaraua, gainera, Zinegoak Hedapeneko film laburren emanaldiarekin itxiko da ekainaren 19an.

Egitarau erakargarria 25. urteurrena ospatzeko

Ekainetik abendura bitartean hainbat ekintza egingo dituzte Uarkapen. Urteurreneko programazioarekin frontoiari "bizitza" eman nahi diotela adierazi du Mainer Morras alkateak. "Berrikuntza lanen ostean, frontoia edukiz betetzea dagokigu orain", dio

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Uarkape frontoiak 25 urte beteko ditu urte amaieran, eta, hori ospatzeko, ekainetik abendura arteko egitaraua aurkeztu du Udalak, Arrasate Pilota Taldearekin eta Arrasate Dragoi Gimnasia Taldearekin elkarlanean.

Hala, ekainaren 21ean abiatuko dute urteurreneko programazioa, San Fermin torneoaren lau eta erdiko final zortzirenak jokatu baitituzte Uarkapen. Artolak eta Zubizarreta III.ak jokatu dute partidu nagusia, eta, aurretik, Agirrek eta Albi-suk Lasoren eta Arangurenen aurka jokatu dute. Sarrerak dagoeneko salgai daude *entradasfronton.com*-en. Horrekin batera, gaur, egubakoitza, Monte eta Buenuena tabernetan ere jarriko dituzte salgai.

Herriko pilotarien jaialdia

Uztailaren 19an herriko pilotarien txanda izango da. Arrasateko Pilota Taldeak antolatuta, pilota jaialdia egingo dute. Infantil mailan, Peru Orue (Arrasate) eta Alain Urien (Arrasate) lehian arituko dira Danel Zubiaren (Arrasate) eta Ibai Osororen aurka (Aramaio). Afizionatu mailan, Ander Murua (Arrasate) eta Aitor Elizegik (Zegama) Beñat Azkarate (Zegama) eta Endika Uriondo (Gizaburuaga) izango dituzte aurkari.

Egun horretan aipamen berezia eta aitortza egingo diote Ander Murua pilotari arrasatearrari. "Izan ere, Gipuzkoako, Euskal Herriko, Espainiako eta munduko txapeladuna da afizionatu kategorian", adierazi du Iker Zugastik, Arrasateko Pilota Taldeko zuzendaritzako kideak.

Irailean erremontea

Abuztuko atsedendialdiaren ostean, erremontearekin itzuliko da egitaraua, irailaren 14an; aurten lehendabizikoz, Arrasatek Erremontari Herriz Herri jaialdian



Mikel San Miguel, Mainer Morras eta Iker Zugasti, kartelarekin, Uarkapen. E.A.B.

UZTAILAREN 19AN HERRIKO PILOTARIAK ARIKO DIRA ETA ANDER MURUAK AITORTZA JASOKO DU

parte hartuko du. Jaialdiaren helburua da erremontea ezagutaraztea eta Euskal Herriko herrietan bira egitea. Jaialdi bakoitzean bi partida jokatu dituzte set formatuan, eta sarre- ra doakoa izango da.

Oraindik ez dute zehaztu zein partidu izango den. Hori bai, Mikel San Miguel Kirol zinegotziak azpimarratu du erremontean aritzeko pilotak Uarkapeko neurrietara egokituko dituztela.

Bertsoa, gimnasia eta pilota

Urriaren 26an, Bertsopilota Jaialdia egingo dute. Bertsotan Ane Zuazubiskar arrasatearra eta Amets Arzallus ariko dira. Pilotariei dagokienez, Jon Erasun eta Mikel Goñi izango dira, batetik, eta Iker Urmeneta eta Ander Murua, bestetik. Partiduan zehar, bertsolariek umorez aholkatuko dituzte pilotariak.

Azaroaren 23an, kirol diziplinaz aldatu, eta Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeak erakustaldia egingo du Uarkapen. "Taldeak badaramatza urte batzuk frontoian entrenatzen, eta haiei ere keinu bat egin gura izan diegu", dio San Miguelek.

Bukatzeko, abenduaren 22an, Binakako Pilota Txapelketako partidu jokatu dute, urtero legez. Gaur-gaurkoz, ez dago zehaztuta zein pilotarik, baina "goi mailako pilotariak" ekartzen saiatuko direla adierazi du Kirol zinegotziak. Egun horretan, halaber, "zerbait berezia" egingo dute, urteurrena abenduaren 21ean izango da eta.

Kirol komunitatea zaintzen

Alkateak dio hainbat berrikuntza lan egin dituztela Uarkapen, morez margotzearekin batera. Azken aldaketa hori islatu nahi izan dute, gainera, kartelarekin, lehengo berdea eta oraingo mo- rea uztertuz. Horrez gain, zera azpimarratu du Morrasek: "Kirol azpiegituren hobekuntza eta berrikuntza ezinbestekoa da Arrasaten, baina hori bezain garrantzitsua da kirol komunitatea zaindu eta elikatzea".



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Botoa bai, botoa ez

Europako hauteskundeetarako botoa emateko egun gutxi falta dira. Askok galdetuko dute merezi duen ala ez bozkatzea hauteskunde hauetan, eta erantzuna beti da bai.

Bai, gure botoak bizi garen mundua aldatzea eragin dezakeelako. Bai, gure botoak kezkatzen gaituzten gaiei buruz erabakitzeko aukera ematen digulako. Bai, gure botoak erabakitzen duelako Europar Batasunaren etorkizuna. Bai, gure botoak erronka globalei aurre egiteko balio duelako. Bai, gure botoak demokrazia defendatzeko balio duelako.

Bozkatzen ez badugu, ezin dugu etorkizunaz erabaki. Gainera, zenbat eta pertsona gehiagok bozkatu, orduan eta indartsuagoa izango da demokrazia, lorpen kolektibo baina, erantzukizun partekatua, eta denok dugu zeregin garrantzitsua.

Gure botoak erabakiko du zein diputatuk ordezkatu gaituen Europar Batasunak gure etorkizunari, legeei eta eskubideen defentsari buruz hartzen dituen erabakietan. Europar Batasunaren etorkizunari, Espainiari, Gipuzkoari eta Arrasateri buruz denok erabaki dezakegun une paregabea da.

'Energia hiri jasangarrian' erakusketa, hilaren 4tik aurrera

Eskolako 2030 Agenda proiektuaren baitan herriko ikasleek egindako lanaren emaitza ikusgai egongo da

E.A.B. ARRASATE

Energia hiri jasangarrian erakusketa prestatu dute Arrasateko ikasleek Eskolako 2030 Agendaren baitan. Hiri eta komunitate jasangarriari buruzko erakusketa izango da, eta energia irisgarria eta ez-kutsagarria ere landuko ditu. Horrekin, herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea lortu gura dute, Udalak eta Ingurumen Eskolak sustatuta, "jasangarritasunaren arloan herrian dugun egoeraz jabetzeko eta eraldaketaren bidean herritarrak ahalduntzeko".

Aurkezpena eta lehen bisita gidatua ekainaren 5ean egingo dute, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, 18:30ean. Ekainaren 12an, halaber, beste bisita gidatu bat egingo dute, 18:30ean, baina izena eman beharko da aurrez, *ieskola@arrasate.eus* helbidean.

Debagoiena 2030 taldearen erakusketa bat ere ikusgai izango da eta ekainaren 6an eta 11n Teknikerreko teknikari bat egongo da, aholkularitza emateko. Horretarako izena eman behar da, 943-77 04 88 zenbakian.

Udaixe programan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Udaleko Gazteria Sailak prest du nerabeei zuzendutako udako egitaraua, eta uztailaren 1etik 18ra egingo dute. Gazteekin elkarlanean, honako ekintza hauek prestatu dituzte: uztailaren 1ean, Castañaresera bizikletan, 16:00etatik 21:30era; uztailaren 3an, Deban surfa, 10:00etatik 18:00etara; uztailaren 5ean, munduko sukaldaritza, Erguingo

gazte txokoan, 16:30etik 21:30era; uztailaren 8an, Mutrikuko igerileku naturalera irteera, 11:00etatik 19:00etara; uztailaren 10ean, Hontza X-Tream, 12:00etatik 20:00etara; uztailaren 12an, Musabentura, 16:30etik 21:30era. Horrez gain, GazteKonkis ere egingo dute, uztailaren 16tik 18ra.

Ekainaren 18a baino lehen eman beharko da izena, 943-25 20 65 telefono-zenbakian, *gaztebulgoa@arrasate.eus*-en edo gazte txokoetan.

Mugarik gabe amaituko dute Aniztasun Astea

Amerika elkarteak "Latinoamerikako espresio kulturalak, gastronomikoak eta artistikoak" ospatzea du helburu bihar Biteri plazan egingo duen jain; halaber, Retina Gipuzkoa Begisarek informazio-mahaia jarriko du leku berean goizean

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Aniztasun Asteari bihar eman go zaio amaiera, Amerika elkarteak antolatu duen egun osoko ospakizunarekin eta Retina Gipuzkoa Begisarek jarriko duen informazio-gunearekin.

Kultura aniztasunaren aldeko ekitaldia egingo du Amerika elkarteak Biteri plazan, *Mugarik gabe* lelopean, eta goizeko haiketetan hasi eta gaueko haiketetan bitarte egongo da zertaz gozatu. Daniela Castro da Amerika elkartearen presidentea, eta adierazi du eurentzat "oso garrantzitsua" dela Aniztasunaren Astea ospatzea, iruditzen baitzaie beharrezkoa dela askotariko korrante kulturalak erakustea herritarrei. Biharko egunaren xehetasunak eman ditu: "Latinoamerikako espresio kulturalak, gastronomikoak eta artistikoak ospatuko ditugu". Hori horrela, 11:00etatik 14:00etara, Latinoamerikako zenbait txokotako janaria dastatu ahal izango da. Pintxo-potea ere egingo dute, 17:00etatik aurrera. Castrok adierazi du gastronomia postuetan lortutako dirua Amerika elkartearentzat izango dela: "Jendeak lagundu diezaguke kontsumituz, eta diru-sarrerak izan ditzakegu elkartearentzat".

Horrekin batera, etxeko txikienek mural batean adierazteko aukera izango dute.

Ipuin eta poesia txapelketa

Lehen aldiz Arrasate Herri Eskolarekin eta Arizmendi Ikastolarekin elkarlanean ipuin eta poesia txapelketa antolatu dute. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko ikasleei zuzendutakoa da, eta "berritasuna" da Amerika elkartearentzat. "Ez gara gure kultura ikusarazten ari soilik, baizik eta haurren pentsaeran ari gara ereiten gure inguruan dauden aniztasunak", dio Castrok. Biteri plazan jarriko duten eszenato-

kian irakurriko dituzte haien sormen lanak, "bakoitza eroso sentitzen den hizkuntzan", 12:00etatik 13:00etara bitartean.

Gainera, lehiaketako irabazleak bonu bidezko 35 euroko saria eskuratuko du herriko liburu-denda batean gastatzeko, horrela herriko komertzioa eta kultura babestu nahi baitute.

Musika eta dantza aurkezpenak

18:00etatik aurrera musika izango da protagonista, eta ordu horretan bertan, Amerika elkarteak sortu duen dantza taldea aurkeztuko du. Ondoren, *Marinera Norteña* haur dantza eta *La selva* dantza aurkezpena izango dira ikusgai. Azkenik, Bilbotik etorritako *La klave* izeneko musika taldeak girotuko du iluntzea Latinoamerikako doinuekin. "Haiek ere euren konpartsa ekarriko dute eta egun osoan animatuko dute

EGUN OSORAKO ANTOLATU DITUZTE EKINTZAK, ETA BERTARATZEKO DEI EGIN DUTE



Amerika Elkartearen dantza taldea aurkeztuko dute. A.E.

Biteri plaza Latinoamerikako musikarekin", dio Amerika elkartearen presidentea.

Errolda sozialaren kanpaina

Retina Gipuzkoa Begisarek ikusmen murriztua duten pertsonekin egiten du lan, eta elkarteari buruzko informazioa emateko mahaia jarriko dute 11:30etik 14:00era Biteri plazan. Elkarte horretako presidentea da Itsaso Nuin arrasatearra, eta aurreratu du aplikazio baten bidez "ikusmen ona daukan pertsonak" esperimentatu ahal izango duela ikusmen murriztua dutenek nola ikusten duten: "Oso tresna ona da, baliagarria. Hori probatzen duena gure azalean jartzen da eta ulertu egiten gaitu. Oso garrantzitsua da hori guretzako". Gainera, *Ikusmen murriztua dut* bereizgarriari buruzko informazioa ere eman go dute.

Oro har, herritarren eta gaitasunaren pairatzen duten senideen artean ezagutarazi nahi dute ikusmen murriztuaren egoera, "oso ezezaguna" baita Nuinen esanetan: "Gizarte sentsibilizatu eta gure bizimodu hobetu. Hori da helburua".

Biolurren Amillubi proiektua aurkeztu dute Kulturaten

Zestoako Amilibia baserriko lurrak modu kolektiboan babestea du helburu nagusi gisa proiektuak

I.A.A. ARRASATE

Laborantza ekologikoaren alde egitea helburu duen Biolurrek sortutako Amillubi proiektua aurkeztu zuten astelehenean Kulturaten. Amilibia baserria Zestoan dago eta 25 hektarea jarraian dituen lursaila du. Lur horiek elikagaiak eta lehengaiak sortzera bideratu nahi dituzte: "Azkenengo urteetan joan gara galtzen gure elikagaiak ekoizteko ohitura. Hori bakarrik ez. Kontsumitzen diren elikagaiak ez dabilta oso modu egokian ekoizten eta ikuspuntu agro-

kologikoa aipatzen da askotan. Amillubi ez da bakarrik elikagai horiek bertan sortzeko. Ahalik eta eredu osasuntsuenean ekoiztu nahi dugu ekosistemarendako eta pertsonendako".

Baserria eta bere lurrak erostea da proiektuaren lehen helburua, eta, horretarako, 390.000 euro lortu behar dituzte hurrengo bi urteetan. Dirua biltzeko hainbat ekintza eta *crowdfunding* kanpaina jarri dituzte martxan. Lehen ordainketarako 150.000 euro behar zituzten eta atzora arte egin zitezkeen ekarpenak.

Douglasetik Israelgo produktu bat kentzea lortu du BDZk

BDZk herritarrei eskatu die israeldar jatorriko produktuak identifikatuz gero, mugimenduari jakinarazteko

I.A.A. ARRASATE

Boikota, Deibertaria, Zigorrek mugimenduak (BDZ) israeldar jatorriko Alma K produktua erretiratzea lortu du Arrasateko Douglas dendatik. Joan den egubakoitzean, elkarretaratzea egin zuten mugimenduko kideek Ertzaintzaren babespean zegoen saltokiaren aurrean, eta bihar ramunean baieztatu zuten produktua dendatik kentzea lortu zutela: "Gaur, lehen alea landatu dugu: marka bat seinalatu genuen eta hura kentzea lortu dugu. Marka ez da edozein

eta lortutakoa garaipen garrantzitsu moduan har dezakegu, Alma K eskusiboki Douglasen saltzen baita".

Mugimenduak gogorarazi du Palestinako herriak eskatu die-lako egiten dutela bat BDZ borrokararekin. Hori horrela, herritarrei eskatu diete israeldar jatorriko produktuak identifikatu, argazkia atera eta *bdz-arrasate@proton.me* helbidera bidaltzeko; baita produktu horiei eta horiek saltzen dituzten merkatu edo supermerkatuei boikota egiteko ere.

Bigarren eskuko azoka egingo dute Gaztelupeko ikasleek

Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko batxilergoko lehenengo mailako ikasleek bigarren eskuko azoka egingo dute gaur eta bihar, ikasturte bukaerako bidaiarako dirua lortzeko. Salmahaiak Seber Altube plazan eta Uarkape aurrealdean egongo dira: gaur, 17:00etatik 20:00etara; eta bihar, berriz, 10:30etik 13:00etara bitartean.

Herritarrek postura joatera gonbidatu dituzte.

Etxean "egoera onean" dauden eta erabiltzen ez diren objektuak Arizmendi Ikastolara eramateko eskatu diete herritarrei ia hiru astez; hain zuzen ere, maiatzaren 12tik gaur bitarte. Besteak beste, liburuak, arropak eta jostailuak bildu dituzte. Orain, jasotako material hori bi egun horietan jarriko dute salgai; Gaztelupeko ikasleek adierazi dutenez, adostutako prezio "justu eta egokian".

"Txirrindularitza da nire bizitzako irakasle onena"

ITXASO PLAZA TXIRRINDULARIA

Kadete mailan hasi zen txirrindulari gisa lehiatzen Plaza; orduetik, aurrerapausoak ematen aritu da, UCI ProSeries kategorian onenen artean lehiatzera iritsi arte

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Igamo Packaging taldeko Itxaso Plaza (Arrasate, 2005) Arrasateko txirrindularia UCI ProSeries kategoriako lasterketan lehiatu zen domekan, eta balentria horrez bai, baina beste kontu batzuek ere aritu zen Plaza Arrasate Irratiko *Zaku bete kontu* saioan.

Noiz igo zinen aurrenekoz bizikleta batera?

Nahiko berandu hasi nintzen. Kadeteetako bigarren urtean Dorletako Amara batu nintzen, baina justu pandemiak harrapatu gintuen. Aitak bultzatu ninduen txirrindularitza ibiltzera; niri igeriketa eta korrika egitea gustatzen zitzaidan, eta pentsatu genuen triatloietarako interesgarria izan zitekeela txirrindularitza zer den bizitzea. Pandemia igaro ostean, Lokatza taldera joateko esan ziguten, baina nik, hasiera batean, bi lasterketa egiteko asmoa nuen. Azkenean, baina, harra sartu zitzaidan, eta gaur arte.

Zerk harrapatu zintuen?

Bizitzako kasualitate bat izan zela uste dut. Txirrindularitza bizitzeko estilo bat da; sakrifizio maila handiko kirola da eta askotan gauza batzuk alde batera utzera behartzen zaitu. Hala ere, denborarekin konpentsatu egiten du, badelako kirol bat modu indibidualean asko ematen duena, eta ikasteko zein norbere burua ezagutzeko irakasle onena.

Erreferenterik izan duzu?

Egia esan, ez. Txirrindularitza kasualitatez hasi nintzen, ez pasioagatik, baina, egia esan, gustatzen zait inguruko txirrindulariei begiratzea. Usoa Ostolaza, esaterako, asko gustatzen zait, bide onetik doa, eta, txirrindulari ona izateaz gain, haren gertutasunak ere egiten du erreferente.

Uztartu daiteke txirrindulari baten bizitza eta pertsona arrunt batena?



Itxaso Plaza, *Zaku bete kontu* saioan. AITZIBER ARANBURUZABALA

"ESKATZEN DUEN ESFORTZUA EGITEA MEREZI EZ DUEN UNEAN, UTZI EGINGO DUT"

Muga batzuk daude. Batzuetan pentsatzen dut ea benetan merezi duen egindako esfortzu guztiak, baina, orain arte, behintzat, merezi izan du. Esfortzua egitea merezi ez duen unean, utzi egingo dut; argi izan behar dugu disfrutatzeke egiten dugula, eta hori egiten ez dugunean, uztea dela onena.

Lokatza taldean zaude; zer moduzko taldea da?

Talde polita da. Gustatuko litzaidakeena baino emakumezko txirrindulari gutxiago gaude, baina bagoaz poliki-poliki aurrera egiten. Nire ahizpa ere txirrindularia da, ni baino sei urte gazteagoa, eta ikusten da haren belaunaldian badaudela hiruzpalau neska, baina gainontzekoetan ez daude horrenbeste emakumezko txirrindulari. Badaukagu zer egin neska gehiago erakartzeko.

Bergarako taldea da, baina eskualdeko ordezkariak zaudete.

Bai; horrelako kasuetan indarrak batzea da gakoa. Nor bere kontura arituko balitz, ezinezkoa litzateke taldea egonkortzea eta, beraz, erreferenteak sortzea. UCI ProSeries kategoriako lasterketan lehiatu zara; nolakoa izan zen une hura?

Komentatu zidatenean, ez nuen asimilatu. Motibatzen ninduen, baina ez nekien ea lasterketa amaitzeko gai izango nintzen. Edozelan ere, irteerara gozatzeko nahiarekin joan nintzen, eta bete nuen helburua. Izan ere, gerta liteke horrelako esperientzia bat berriro ere ez bizitzea, eta horregatik atera nintzen helburu horrekin. Norbere erreferente diren txirrindulariak alboan izatea eta euren batera lehiatu ahal izatea oso polita izan zen.

Zeintzuk izango dira hurrengo lasterketak?

Hurrengoa Lizarran izango da, baina irailera arte izango ditugu lasterketak. Nire kasuan, begiz jota dut Espainiako txapelketa. Ekainaren 22an jokatu da, Madrilen, eta hara ondo iristea espero dut.



Iazko Garagardo Azokako une bat. IMANOL SORIANO

Garagardoa eta errugbia eskutik, hogeita bederatzigarrenez

Eguenetik zapatuta irekiko dute Garagardo Azokako karpa: 18:30ean eguenean; 19:00etan egubakoitz eta zapatuan

J.M.M. ARRASATE

Urteroko legez, jatekoaz eta edatekoaz baino gehiago izango dute bertaratuek maiatzaren 30etik ekainaren 1era bitartean. Egitarauari dagokionez, eguenean karpa ireki bezain laster -18:30ean-, herri kirolak egongo dira. Ostean, 19:00etan, pintxo-potea egingo dute, 20:00etan sukaldetan lanean hasiko dira eta Garazi & Sala bikoteak girotuko du afaria. Egubakoitzean 19:00etan irekiko dute karpa, 20:00etan hasiko dira afariak banatzen eta 22:30ean Xaba DJak emanaldia egingo du. Azoka amaitzeko, zapatuko egitaraua egubakoitzekoaren berbera izango da, baina, kasu horretan, Asier DJ izango da karpa girotzeaz arduratuko dena.

Garagardoa bai, jatekoa ere bai
Garagardo Azoka bada ere, bertaratuen gosea asetzeko jakirik

ez da falta izaten. Arrasate Rugby Taldeko kideek jakinarazi dutenez, "2.300 litrotik gora garagardo eta beste 600 botilatxo" izango dituzte. Jatekoari dagokionez, "1.800 ogi, 570 txerri-ukondotik gora, 220 oilasko, 1.300 saltxitxa baino gehiago eta hamalau patata kaxa" egongo direla adierazi dute.

Zazpiko txapelketarik ez

Arrasate Rugby Taldeko entreatzaile eta kirol-zuzendari Julen Barrutiak adierazi du "agenda arazoak" direla-eta aurtengo edizioan ez dutela zazpiko txapelketarik antolatuko: "Asteburu honetarako ekintza ugari deituta daude, Euskadi zein Estatu mailan; horregatik, gure txapelketa ez antolatzea erabaki dugu. Hala ere, errugbia ez da faltako, klubeko jokalarien artean ekintzaren egingo baitugu Mojategin".

Mondratek agur esan dio Bigarren B Mailara igotzeko ametsari

Aurrera de Vitoriaren aurka jokatu du Mondratek Espainiako Bigarren B Mailara igotzeko kanporaketan finalerdietako partidua, eta, 3-3 berdindu ostean, agur esan diote arrasatearrek mailaz igotzeko ametsari. Hirugarren gelditu zen ligan Mondrate eta bigarren Aurrera de Vitoria, biak puntu kopuru berarekin. Hala ere, euren ar-

teko lehia arabarrek irabazi zuten eta horrek eman zien gasteitarrei kanporaketa etxean jokatzeko eta partidua berdinetan amaituz gero zuzenean finalera igarotzeko aukera.

Sailkapenean arabarren atzetik gelditzeagatik, irabazteak besterik ez zien balio Aitor Cortizas mutilei finalera igarotzeko. Arauzko berrogei minutuak agortuta luzapena jokatu bazen ere, ez zuten lortu arrasatearrek finalerako txartela eskuratzeko golik sartzea.



Arrasate Margo Taldeko kideak, Kulturolan duten lokalean. G.B.Z.

Urtean zehar egindako artelanak kalean ikusgai

Arrasate Margo Taldeak 'Artearen azoka' egingo du bihar, Seber Altube plazan, 10:30etik 14:00etara. Taldeko hamalau artista bertaratuko dira eta euren lanak erakutsiko dituzte. Gaita ikasleen ikuskizunean ere parte hartuko dute margolariek

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE
Urteroko gisan, Arrasate Margo Taldeak *Artearen azoka* egingo du bihar. Seber Altube plazan izango da azoka, eta 10:30etik 14:00etara bitarte egongo da bertan. Talde horretako hamalau margolari bertaratuko dira azokara, eta euren artelanak ikusgai jarriko dituzte, urtean zehar egindako lanak eta izandako garapena ikus ditzaten arrasatearrek. "Helburua erakustea da, urtean zehar egiten duguna erakustea. Denbora horretan askotariko margolariak oinarri hartuta probatu ditugun teknikak ikusarazi nahi ditugu, besterik gabe", dio Jose Angel Iturbek, Arrasate Margo Taldeko kideak.

Teknika pikturikoak nagusi
Aurten, teknika pikturikoak izango dira nagusi *Artearen azoka*-n, nahiz eta beste estilo batzuetako teknikak ere izango diren. "Beste urte batzuetan collageek eta beste teknika ba-

tzuek zelanbaiteko protagonismoa izan dute. Aurten, teknika pikturikoak izango dira gehienak: akuarela, olioia eta akrilikoak. Collageren bat ere bada", aipatu du Iturbek.

Gaiteroekin elkarlana
Arrasate Musikaleko gaita ikasleek emanaldia egingo dute bihar, 12:00etan, Arrasateko kaleetan zehar. Azoka eta emanaldia gainjarri baino, nahiago izan dute lankidetzan jardun: "Gaiteroak ere kalean izango dira, eta, Seber Altuben diren bitartean, haien ekimenaren marrazki eta zirriborroak egiteko aprobetxatuko dugu". Emanaldian beste hainbat talde ere presente izango dira: Txikitxu Arrostitz

TALDEKO HAMALAU MARGOLARI BERTARATUKO DIRA EUREN ARTELANAK ERAKUSTEKO

eta Lore Gazteak dantza taldeak, Arrasateko Erraldioen Konpartsa eta Arrasateko Gaiteroak.

Urtean bi erakusketa
Azokak taldeko kideei aukera zabaltzen die artelanak herriari erakusteko. Hala ere, azoka ez da aukera bakarra, Kulturaten ere erakusketa bat jartzeko baitute urtero: "Urtean bi ekitaldi ditugu: bat hau da, motz samarra izan daitekeena, goiz bakar hartzen duelako; bestea urte amaieran Kulturaten egiten dugun erakusketa da, hilabete luzez bertan egoten dena. Bi ekitaldien helburua lanak ikusaraztea izaten da".

Egoera ona
Iturberen arabera, taldea ondo dago: "27 pertsona gaude, gutzira. Taldeak dinamika ona du; batzuk gazteagoak dira eta besteak zaharragoak, baina lokalean elkartzen gara eta elkarrekin gustura marrazten jarraitzen dugu".

Kulturate barrez ezandaraztera datoz Martiarena eta Torregarai

'Ztandap' ikuskizuna aurkeztuko dute ekainaren 6an Kulturaten Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai

G.B.Z. ARRASATE
Luze edo motz ikuskizunarekin 150 emanalditik gora egin ostean, *Ztandap* izeneko ikuskizuna sortu dute Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoristek. Ekainaren 6an arrasatearrek barrez ezandarazteko asmoz, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dute ikuskizuna, 19:00etan hasita. Sarrera doakoa izango da.

Umorea betaurreko moreekin
Ikuspuntu feministatik lantzen du umorea *Ztandap* ikuskizunak. Generoa dute bi sortzaileek umorea egiteko abiapuntu. Bide horretatik, eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira; beti ere, betaurreko moreak jantzita. Horretarako, askotariko gaiak jorratuko dituzte Martiarenak eta Torregarai; besteak beste, orgasmo arrakala, maitasun

erromantikoa, *señorak* eta elkarbizitza izango dituzte hizpide. "Kritika eginez, deseraikiz eta barre eginez bazterrak ezandarazteko prest gaude!", iragarri dute bi umoristek.

Bakarrizketak binaka
Martiarena eta Torregarai hainbat urte doaz oholtzaz oholtza umorezko ikuskizunak egiten. 2018an sortu zuten elkarrekin egindako lehen ikuskizuna: *Bakean dagoena bakean utzi*. Gero, *Luze edo motz* ikuskizun arrakastatsuekin Euskal Herri osoa zeharkatu zuten. Orain, emanaldi horietan pilotutako esperientziarekin sortu dute *Ztandap* ikuskizun berria bi bakarrizketari beteranok.

Bikotearen ikuskizun guztiak ezohiko elementu batek ezaugarritzen ditu: bakarrizketa ikuskizuna binaka emateak.

'Garaia udaberri fest' ikuskizuna egingo dute ekainaren 6an

Garaia udaberri fest izeneko musika ikuskizuna antolatu dute Garaia Parke Teknologikoko kideak, Soñua Prorekin batera. Ekainaren 6an izango da ikuskizuna, 18:00etatik aurrera. Emanaldiak Garaiaiko eraikin nagusiko Itxaropena korridorean egingo dituzte. *Garaia udaberri fest*-erako sarrera irekia eta doakoa izango da.

Jaialdiaren estreneko edizio honetarako bi artista iragarri dituzte antolatzaileek. Arrasaten bizi den Sertx musikaria izango da lehena. Folk musika abangoardista du oinarri zarauzta-rrak, iluna eta intimoa. Bigarren musikaria Bouza izango da. Kontzertu akustikoa emango du hark, abesti klasikoaren errepaso bat egitea helburu. Smashing Pumpkins, Atahualpa, Beatles, Yupanki, Bob Dylan eta Camilo Sestoren abestiek osatzen dute haren errepertorioa.

Egurhotza jaialdirako sarrerak eskuragarri daude jadanik

Uztailaren 4ean Monterrongo parkean egingo den Egurhotza jaialdirako sarrerak salgai daude jada. Sarean erosiz gero, *musicaze.net* atarian, 25 euroko prezioa dute sarrerek. Lehiatila-ko prezioa, berriz, 40 eurokoa izango da. Etxepe, Tatta&Densio eta Mutiko debagoiendarrak izango dira jaialdian, baita J Martina, Judeline eta Ebano ere.

Arrasate Musikaleko familien arteko kontzertua gaur

Arrasate Musikalen eskutik, familien arteko kontzertua egingo dute gaur, 18:30ean, Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean. Musika klasiko eta herrikoia joko dute, besteak beste. Hogei pieza izango dira. "Kontzertu hunkigarria izaten da eta oraingoa ere horrela izatea espero dugu", adierazi dute antolatzaileek.

"Uste dugu badaukagula kafearen kultura"

AINHOA OYANGUREN KAFE DASTATZAILE PROFESIONALA

Ikasketak kafearen munduan egin ondoren, 2022an lortu zuen aramaioarrak nazioartean errespetua duen kafe dastatzaile izateko 'Q Arabica Grader' titulua

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO Basque Culinary Centerrek gastronomiako 100 talentu gazteen zerrenda argitaratu du eta profesional berrien arloan izendatu dute Ainhoa Oyanguren (Aramaio, 1996) kafe-dastatzailea. **Nola hartu duzu Basque Culinary Centerren zerrenda horretan egotea?** Hasieran, sorpresaz. Zerrenda argitaratu baino hilabete lehenagotik banekien, baina, azkenean, ez dakizu zer izango den eguna pasa arte. Boom hutsa izan zen. Aukera eman zidaten baita ere gainerako gazteei nire esperientzia kontatzeko, eta hori motibazio-puntu handia izan da jarraitzeko nire progresioan. Poztasun bat da.

Kafe kontuak noiztik dituzu gustuko edo noiztik dira lanerako tresna? Hasieran, denok bezala, kafea hartzen nuen itzartzeko eta eguna hasteko. Baina Basque Culinary Centerreko ikasketen laugarren ikasturtean hasi nintzen nire ikasketak kafe mundutik



Oyanguren, eguaztenean, Gasteizko Trike Koffe Roasters dendan. TXOMIN MADINA

bideratzen. Aukera eman zidaten kafe munduan murgiltzeko eta gradu bukaerako lana garatzeko. Kanadara joan nintzen nire proiektua egitera, kafearen jatorria eta bide guztia ezagutzera benetan.

Kafearena mundu bat da, ezta? Uste nuen Kanadako enpresan nik egingo nituela ekarpenak kafean nuen jakituriarekin eta gastronomian nuen oinarriarekin, baina ez zen horrela izan. Egia da ardoaren munduan edu-

ki nuela aukera handia dastaketaren munduan murgiltzeko, eta horrek asko lagundu zidan kafeak deskribatzeko orain deskribatzen ditudan bezala. Ez nuen ezagutzen kafearen industria, batez ere, espezializatutako kafea, eta han ezagutu nuen.

Kafe dastatzaile profesional homologatua zara.

2022an joan nintzen Madrilera titulua ateratzera, eta, hemeretzi proba egin eta gero, *Q Arabica Grader* titulua atera nuen, dastatzaile profesionala arabiar kafeetan. Ziurtagiri hori nazioartean oso errespetatuta dago eta gai gara kafearen kalitatea baloratzeko eta puntuatzeko.

Nola dastatzen da kafea?

Normalean, brasildar dastaketa egiten dugu. Kikaran kafea ehoa dago, eta hortik hasten gara aztertzen. Lehendabizi, haren usaina lehorrean; gero, ura botatzen diogu. Dastatzen hasiko ginatke eta aztertuko genituzke kafearen zaporea, azidotatua, oreka, gorputzaren ukipen-sentsazioa ahoan. Horrela aztertzen dugu kafearen kalitatea osorik.

Trebatu egin beharko da, ordea.

Ez da daukagun gaitasuna. Landu egin behar dira trebetasun sensorial horiek, zaporeak eta ukipen-sentsazioak atzeman eta puntuazioa emateko. Ez nire kalifikazioa bakarrik, bazik eta nire ondoko dastatzaileekin ere kalibratuta egon behar dut. **Gaur egun, Gasteizen zaude, Trike Koffe Roasters izeneko egitasmoan.**

Hemen txigortzaileak gara, eta espezialitateko kafea txigortzen dugu. Arabiarra da erabiltzen dugun kafea eta gure helburu nagusia da ekartzea jatorri askotariko kafea, batez ere, esperientzia sensorial hori handitzeko eta zaporeak ezagutzeko. Hori guztia kafe-kikarara eramanda eta bezeroak kontsumitzen duenean beste esperientzia bat edukitzeko.

Euskal Herrian badakigu zein den kafe ona eta zein txarra?

Pentsatzen dugu badaukagula kultura, baina tailerretan azaltzen dudanean kafearen jatorria eta kafearen atzean dagoen guztia konturatzen dira ez daukagula ezagutza puntu hori. Jendeak uste du kafeak beltza, gogorra eta fuertea izan behar duela.

Tabernetan zerbitzatzen den kafeari buruzko ze iritzi daukazu?

Ohiko kafetegietan kafe komertziala erabiltzen da. Ez bada %100 arabiarra antzematen da *robusta*-ren eragina. Azkenean, oraindik ez dago puntu finko hori aldatzeko kafe bat zapore gehiago duena, konplexutasun gehiago duena eta esperientzia bat eman ahal dezakeena kafetegi bezala.

"KAFAE EZ BADA %100 ARABIARRA, ANTZEMAN EGITEN DA 'ROBUSTA'-REN ERAGINA"

Aramaixo Herri Eskolako festa ospatuko dute zapatuan

Pregoiarekin hasiko da festa, plazan, eta kalejiran joango dira eskolaraino; ondoren, han izango dira ekintzak

I.A.A. ARAMAIO

Ikasturtea amaitzeko aste batzuk baino ez dira falta, eta, ohitura duten moduan, Aramaixo Herri Eskolan bihar egingo dute ikasturte amaierako jaia, eskolak eta guraso elkarteak antolatuta. 11:00etan hasiko da jaia, herriko plazan seigarren mailakoek egingo duten pregoiarekin, eta handik kalejiran joango dira eskolara.

11:30etik 13:00etara, *slack line*-a, ur parkea, ahateen arrantza, aurpegi margotzea, *just dance*-a, *pintxo-chef*-a, eskulanak, henna

eta bestelako jolasak eta ekintzak izango dira. 14:00etan izango da bazkaria eta 15:30ean bingoan jolastuko dira. Azkenik, euskal jolasetan aritu ostean, 17:00etan amaituko da jaia.

Festa hori aprobetxatzen dute ekintza solidarioren bat egiteko, baina, Aramaixo Herri Eskolatik jakinarazi dutenez, aurtan ez da halakorik egongo. Iaz, Bergarako Ndank Ndank elkar-tearekin elkarlanean egin zuten, eta 256,25 euro bildu zituzten Senegalgo Dionewarko proiektu batera bideratzeko.



ALAIK KANTUAN

Ikasturteari agur, emanaldiekin

Ikasturte amaierako kontzertuak eman dituzte aste honetan Alaiak Kantuan taldeak eta musika eskolako ikasleek. Alaiak Kantuan emanaldia martitzenean izan zen, Sastiñako ermitan, eta, denera, sei abesti kantsatu zituzten. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibili ziren kantu-jiran, akordeoak lagunduta.

OHARRAK

Alboka Eguna bihar

Euskal Herriko Alboka Eguna ospatuko dute Aramaion eta egun osoko egitaraua antolatuta dute. (Ikus 35. orria).

Kinttelena zabalik

Bihar irekiko ditu ateak berriz ere Kinttelenak. Ordutegia: astelehenetik domekara 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00era. Telefonoa: 945-06 96 82.

Santikurtz Eguna

Domekan ospatuko dute Santikurtz Eguna, Arriola eta Arexola auzoetakoek antolatuta. 12:00etan meza izango da ermitan; gero, beheko txabolari salda beroa eta pintxoak egongo dira.

Antzezlanak eta musika kalean ekaina girotzeko

'7x7 kultura kalean' ekimena familia osoarendako eskaintzarekin dator, beste urte batez; eguaztenean emango diote hasiera, Kiki eta Koko pailazoen emanaldiarekin, eta Garazi eta Sala bikote arrasatearren doinuek emango diote amaiera hilabeteari

Mirari Altube ARETXABALETAKA

Uda giroarekin batera kultur ekitaldiak kalera aterako ditu Udalak, azken urteotan egindako legez. Eguaztenean hasi eta ekainaren 26ra bitartean hainbat, ikuskizun, antzezlan eta musika emanaldi izango dira herriko sei txokotan. "Kultura normalean iristen ez den lekuetara ailegatzeko ekimena da, eta, aurten, lehenengoz, Larrino auzoan izango da emanaldi bat", eman du aditzera Kultura zinegotzi Ibai Zangituk.

Familia giroan ikusteko ikuskizunak izango dira hainbat: "Ekainean umeak libreago egoten dira eta". Eta hori uztartu dute kontzertuekin: "Eguazten pare batean jarri ditugu musika emanaldiak Mitarte kalean, pintxo-potea egoten denez, guztiek batera herria girotzeko".

Haur-animazioa

Kiki eta Koko pailazoak ezagunak dira herriko umeen artean, eta



Kiki eta Koko pailazoak lagunekin, ikuskizunaren une batean. KIKI, KOKO ETA MOKO

datorren eguaztenean *Bizi-bizi zirkua* lanarekin etorriko dira, abestiak, dantzak eta joko parte-hartzaileak eskaintzeko. Bihar taldeak, oster, txotxongiloak protagonista dituen eta berdintasuna aldarrikatzea helburu duen *Amets pirata* istorioa ekarriko die hilaren 7an.

Eidabe ekimen kulturalak dantzan jarriko ditu neska-mutikoak *Gora bihotzak!* ikuskizunarekin ekainaren 19an, eta Antxo eta Pantxa bikotea *Eman bizia* antzezlanarekin joango da 21ean Larrino auzora.

Kontzertu akustikoak eta banda

Musikari dagokionez, emanaldi lasai baina dantzagarriak izango dira. Andoni Ollokiegi musikari pasaiatarra gitarra eskuan duela etorriko da ekainaren 12an eta *Bekataria* izeneko lehen diskoko kantuak abestuko ditu.

Ekainaren 14an Leizarra musika eskolako banda eta Oñatiko banda gazteak bat egingo dute Felix Inurategi lorategian iluntzea girotzeko herritarrei. Eta hilaren 26an Garazi eta Sala bikote arrasatearrak emango dio bukaera ekimenari, kontzertu akustikoa emanda.

Egitaraua

Ekainak 5, eguaztena

• **Kiki eta Koko pailazoak:** *Bizi-bizi zirkua*. Gipuzkoa plaza.

Ekainak 7, egubakoitza

• **Txotxongiloak:** *Amets pirata*. Santa Kurtz plaza.

Ekainak 12, eguaztena

• **Musika:** Andoni Ollokiegi. Mitarte kalea.

Ekainak 14, egubakoitza

• **Musika:** Leizarra musika banda eta Oñatiko banda gaztea. Felix Inurategi lorategia.

Ekainak 19, eguaztena

• **Haur-animazioa:** *Gora bihotzak*. Herriko Plaza.

Ekainak 21, egubakoitza

• **Antzerkia:** *Eman bizia*. Larrino auzoa.

Ekainak 26, eguaztena

• **Musika:** Garazi eta Sala. Mitarte kalea.

Emanaldi guztiak 19:00etan.

EAJk dio Udal Gobernuaren lau urteko plana "berandu" datorrela

Eragileekin egoteko denbora egon dela uste du, eta "hartutako konpromisoak" betetzen hasteko ordua dela

M.A. ARETXABALETAKA

Udal hauteskundeak egin zirenetik urtebete pasatu da, eta EAJk balorazioa egin gura izan du. Oposizioa pasatzerakoan "trantsizio ahalik eta egokiena" egiten saiatu direla adierazi dute, "martxan zeuden proiektuek aurrera egin zezaten prestutasuna erakutsita". Horren adibide jarri dute komentuko eraikinaren lanak, eta horien atzerapenaren ardura bere gain hartu dute: "Proiektuaren sustatzaile izan garen aldetik, dagokigun erantzukizuna gure egiteko arazorik

ez daukagu, jakin badakigulako azken emaitza herritarrentzat ona izango dela".

Udal Gobernuak jakinarazi berri du elkartearen, alderdi politikoen eta herritarren iritzia jasoko duela, eta urrian aurkeztu plan estrategikoa. EAJk uste du "berandu" datorrela plana, "agintaldiaren %35 pasata" egongo delako. Horregatik dio orain "lehenetasunak ezarri" behar direla: "Hau ez da agintaldiko proiektu estrategikoen inguruko iritzia jaso zeko unea, hartutako konpromisoak gauzatzeko baizik".

NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA ARANBURU

Garrak bizirik dirau

Aretxabaletan, Ibarra futbol zelaia herritarren topagune da domekero, eta aurten, are eta gehiago. UDA futbol taldea Hirugarren Mailara igotzeko borrokan izan da denboraldi osoan zehar, eta herritarrek ez dute hutsik egin. Egungo mundu globalizatuan, futbol herrikoia garra itzaltzen ari da; ez da aretxabaletarren kasua.

Futbolaren baitan komunitate bat sortzeak kultura, adin, sexu eta sinesmen desberdineko pertsonak helburu komun baten inguruan batzeko aparteko gaitasuna du. Gizartea kohesionatzeko tresna, oro har. Herriaren opioa izatetik urrun, zaleen artean nortasun kolektiboaren zentzua indartzen lagundu eta jendea mobilizatzen du. Futbolaz gozatzeko guztiak dira ongietorriak. Horrek urrea balio du.

Real Madril eta Bartzelonaren munstroak herriko futbola irensten duen bitartean, mantendu dezagun garra bizirik. Denontzat irisgarria izango den kirolaren alde, jarraitu herriko taldea animatzen!

Euspot lehiaketako sari banaketa eguenean izango da

Hamahirugarrenez egin den Euspot euskarazko spot lehiaketara 87 lan aurkeztu dituzte. Horien artean, 60 izan dira 18 urtetik beherakoek egindakoak; eta gainerako 27ak, 18 urtetik gorakoak. *12 urteko seme-alabak mugikorra eskatu die gurasoei. Zer egin?* izan da aurtengo gaia, eta mugikorrek adin txikiak eskaintzen dizkieten au-

kera eta mehatxuak azaldu behar izan dituzte 30 segundoko ikus-entzunezkoetan.

Euskal Herriko leku askotatik jaso dituzte lanak, eta epaimahaiak aukeratuko du orain onenak zeintzuk diren; publikoak dagoeneko izan du botoa emateko aukera, eta, guztira, 800 boto baino gehiago jaso dira. Sari banaketa ekitaldia eguenean egingo dute, ekainaren 6an, Arkupen, 19:00etan. Lanik onenak 1.000 euro jasoko ditu eta beste 2.000 euro baino gehiago banatuko dituzte.

Erakusketa:

'LGTBIQ+fobia'

Astelehenean irekiko dute ekaineko erakusketa Arkupen: *LGTBIQ+fobia, gorroto delitu eta diskurtsoak*. Hor jasoko dituzte: sexu eta genero aniztasunaren arteko ezberdintasunak; LGTBIQ+fobiaren oinarrian dagoen instituzionalizatutako diskriminazioa; zeintzuk diren gorroto delituak eta gorroto diskurtsoen atzean dagoena; eta horien aurrean jokatzeo estrategiak eta proposamenak, pertsonalak zein kolektiboak.

"Aldapak ditut gustuko; izan ere, sufritzen dakit"

MANEX LARRAÑAGA SARRIEGI TXIRRINDULARIA

Bi txapel jantzi zituen joan den aste bukaeran Bolintxo Okindegia-Lana E. Koop. taldeko aretxabaletarak: Gipuzkoako txapelduna izan zen errepidean eta mendian

Mirari Altube ARETXABALETA

Pilotan, futbolean eta txirrindularitzan jardun du Manex Larrañaga Sarriegi gazteak (Aretxabaleta, 2008) iaz arte, eta bizikletaren aldeko apustua egin du aurtengo denboraldian; baita asmatu ere. Bigarren urteko kadetea hainbatetan igo da podiumera, eta joan den astea ezkerreko Gipuzkoako txapelduna da errepidean eta mendian.

Sekulako denboraldia egiten zabilta; gustura, ezta?

Bai, pozik, jarritako helburuak gaintzen nabil eta. Denboraldi bukaerarako podiumen bat egin gura nuen, baina erdira iritsita bi podium eta bi Gipuzkoako txapel irabazita ditut; hortaz, oso gustura.

Ohikoa da errepidea eta mendia bateratzea?

Ez, errepidean bakarrik ibiltzen dira gehienak; Gipuzkoan uste dut talde bakarra dagoela mendikoa. Nahiago dut errepidekoa, gehiago nabilelako eta taldeak hori bultzatzen duelako. Baina mendiko lasterketak ere gustuko ditut, nahiz eta bakarra izan.

Zein da denboraldi on honen gakoa?

Goiz hastea denboraldiaurrea, nire ustez; hau da, denboraldia-ri ekin aurretik hainbat hilabetez entrenatzen jardutea. Azaroan hasi ginenean, hain zuzen ere; orduan, negu partean, barruan jarduten dugu, korrikan eta indarra lantzen, bereziki. Taldeak ematen dizkigun entrenamenduak eta baldintzak oso onak dira horretarako.

Zeintzuk dira zure ezaugarriak?

Aldapetan moldatzen naiz ondo, sufritzen dakit eta. Erlojupekoan eta lautadetan, ostera, ez hain ondo. Esprintean txarra nintzela uste nuen, baina Zumaian hirugarren izan nintzen, eta ikusi dut hor ere egon naitekeela.

Futbolearen ere jardundakoa zara.

Bai, futbolearen eta pilotan. Umetatik egin dut kirol bat baino gehiago, eta aurtengoa da lehe-

nengo denboraldia kirol bakarrekin nabilena. Txirrindularitzan geroago hasi nintzen, baina ilusio handiarekin, eta horren aldeko hautua egin dut.

Epe motzera zein erronka dituzu?

Domekan Bergaran Gipuzkoako bakarkako erlojupekoa dugu; ondo moldatu nahiko nuke. Ekainean hiru eguneko proba bat izaten da Bizkaian, eta postu ona lortu nahiko nuke. Uztailan, ostera, taldekako erlojupekoa eta lasterketa asko ditugu.

Eta aurrera begira non ikusten duzu zeure burua?

Urtetik urtera hobetzen joan gurako nuke; ahal den heinean, postu onak eskuratuta. Baina, behintzat, gustura egon gura dut lortutakoarekin eta egindako bidearekin.

Anaia ere indartsu dator atzetik.

Bai; nire antzeko bidea egiten dabil: pilota, futbola eta txirrindularitza. Beharbada, ni erreferentzia naiz harendako, eta ni gustura.

Baliteke urte batzuk barru biok batera ikustea lasterketa garrantzitsuren batean...

Polita izango litzateke, bai. Ikusi egin behar.



Manex Larrañaga, Herriko Plazan, entrenatzen hasteko gertu. MIRARI ALTUBE

Gipuzkoako txapelduna

Joan den zapatuan, Zumaian jokatutako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Larrañagak eta txapeldunordea izan zen Izortz Llodio taldekide eta laguna.

"Taldekako bi egoteak podiumean meritu bikoitza dauka", dio pozik eta Bolintxon duten giroa balioan jarri du: "Familia bat gara. Horrek samurtu egiten ditu entrenamenduak, baita lasterketak ere".



Larrañaga eta Llodio. MAIDER SARRIEGI

Ametzueta lagunartea berpiztu gura dute herriko realzaleek

Orain dela 18 urte inguru sortutako taldeko kideekin jarri dira harremanetan, eta berriak batu gura dituzte

M.A. ARETXABALETA

Ametzueta lozorrotik esnatu eta martxan jarri gura dute Aretxabaleako hainbat realzalek. Horretarako, orain dela 18 urte sortutako lagunarteko kideekin harremanetan jartzen hasi dira, eta dagoeneko 125 bat izen jaso dituzte. Horiek bakarrik ez, zale berriak ere batu gura dituzte taldera, eta interesatuak, Realeko bazkideak izan edo ez, Arlutz tabernara joan daitezela eskatu dute, izena emateko han. "Oraingoz, zale guztien izenak jasotzen gabilta, baina, bereziki, bazkide

direnak interesatzen zaizkigu", azaldu dute lagunarteko kideek.

"Denboraldia bukatu berri da, baina datorrenari begira dagoeneko lanean hasi gura dugu", gaineratu dute. Behin martxan jarrita, Realeko arduradunekin batzar bat egiteko asmoa daukate: "Urte askoan ez gara aktibo egon eta ez dakigu zein baldintza bete beharko ditugun. Aurrerago jakingo dugu hori guztia eta antolatzen hasiko gara". Oraingoan "lagunarte sendoa" osatu gura dute, denboraldi berria indartsu hasteko.

Mendi martxan izena emateko epea irekiko dute astelehenean

XII. mendi martxa egingo du Murruxiko mendizale elkarteak ekainaren 16an, domeka. 25 kilometroko ibilaldia izango da, eta oso ezagunak diren inguruetatik pasatuko dira mendizaleak; besteak beste, Urkulu, Ugastegi eta Leixargarate. Bi anoa-postu izango dituzte edatekoarekin eta jatekoarekin: bata 8 kilometroan eta bestea 16.ean.

Izena aldeztu aurretik eman ahal izango da, ekainaren 3tik 7ra bitartean, Murruxikoren Durana kaleko egoitzara jota, 19:30etik 20:00etara bitartean; orduan 5 euro ordaindu beharko da. Ekainaren 16an bertan ere onartuko dituzte izen-emateak, 10 euro ordainduta.

Irekitzear da Ikazkin Trail lasterketan izena emateko epea

Irailaren 7an jokatuko da UDAK antolatutako III. Ikazkin Trail mendiko lasterketa, eta izena emateko epea astelehenean, irailean 3an, 10:00etan, zabalduko dute; aurrekoetan legez, rockthesport.com atarira jo beharko da horretarako.

Berritasunekin dator aurtengoa; izan ere, bi ibilbide izango dituela aurreratu dute antolatzaileek: luzea, 23,2 kilometrokoa eta 1.300 metroko desnibelarekin; eta motza, 14,8 kilometrokoa eta 920 metroko desnibelarekin. Biak ere Kurtzebarri mendiaren bueltako ibilbideak izango dira. Nondik norako guztien berri datorren astean emango dute UDAko kideek.

Open Oztopo trialsin txapelketa jokatuko dute bihar, zapatua

Oztopo trialsin taldeak txapelketa antolatuko du biharko, herriaren sarreran dagoen trialsin gunean. Hasiberriak, alebinak, infantilak, kadeteak eta junior eta elite kategorietako kirolariak elkartuko dira lehiatzeko; 40 bat ziklista espero dituzte. 16:00etan hasi eta 20:00ak arte iraungo duen txapelketa ikustera gonbidatu dituzte herritarak.

1944an jaiotako kintoak bazkaltzeko elkartuko dira bihar

Kintoen bazkaria egingo dute 1944an jaiotakoek ekainaren 1ean, zapatua, Taberna Berri jatetxean, 14:30ean. Izena aldeztu aurretik emateko eskatu dute antolatzaileek, telefono-zenbaki hauetara deituta: 629 41 42 95 edo 695 75 39 59. Giro ona ziurtatuta izango dela adierazi dute eta kintoak bertaratzera animatu dituzte.



Euxki poltsak saltzen dituen Maitane Axpe artisau eskoriatzarra, lanen informazioa ematen, iazko aldian. IMANOL SORIANO

Ekoizleen eta artisauen 83 postu izango dira zapatuko Ferixien

Arizmendi ikastolak antolatutako Eskoriatzako Ferixie egingo dute zapatu honetan, ekainaren 1ean. Aurtengoa hogeita seigarren edizioa izango da eta herriko zein kanpotik etorritako ekoizleen eta artisauen produktu ugariz beteko da herria

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Baserriko produktuak eta elikagaiak, artisautza eta bestelako tresneria batzen dituen azoka egingo dute zapatu honetan Eskoriatzan. Hain zuzen ere, Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunek antolatzen duen hogeita seigarren edizioa izango da, eta, guztira, 83 postu izango dira Jose Arana kalearen eta Santa Marina plazaren artean. Artisautza postuak 61 izango dira, eta horietatik hemeretzi eskoriatzarrek jarritakoak izango dira; elikagaienak, bestalde, 22 izango dira, guztira, eta horietatik zazpi eskoriatzarrek jarritakoak.

150 boluntario inguru lanean

Azokaz gain, egun osoko egitaraua dago programatuta egunerako, eta horiek guztiak aurrera eramateko hainbat lan-

talde arituko dira lanean. "150 pertsona inguru arituko dira ferian boluntario. Talo-postuan, San Pedro elizako arkupeetan 40 lagun inguru arituko dira lanean; goizean postuen muntai lanetan eta gero dena jasotzen ere beste hainbat... Horrekin batera, egitarauan azpimarratzekoak dira 13:00etan *Ikusgarri* izenpean Mikel Lasarte irurtzundarrak motozerrarekin egingo duen egur-lanketa erakustaldia, Jose Aranan, eta herrian zehar jarriko den argazki erakusketa. Azken horri dagokionez, leku bakarrera

**ELIKAGAI,
ARTISAUTZA ETA
TRESNERIAKO 83
POSTU IZANGO DIRA
AURTENGO EDIZIOAN**

mugatu gabe, hainbat tokitara banatzea erabaki dute. Beraz, horiek ikusteko, azokan zehar ibili beharko dute herritarrek", adierazi du Lierni Altunak, Arizmendiko Jose Arana guneko irakasleak.

Haurrentzako ekintza ugari

Hitzordu horiez gain, urteroko ekintzek ez dute hutsik egingo Eskoriatzako Ferixien. Esaterako, XV. txorimalo lehiaketa egingo dute nerabe eta haurrentzat. Jose Arana gunearen kanpoaldean egingo dituzte, erreka alboan. Horrekin batera, haurrentzat eta gazteentzat prestatuko dituzten tailerrak eta puzgarriak izango dira ikastolako jolastokian; XI. txapel jaurtike-ta txapelketa ere egingo dute, Jose Arana kalean, Laboral Kutxa parean; ekoizleei zuzenduta, bestalde, XIV. gazta das-

"Bailarako artisauei ateratako argazkiak erakutsiko ditut"

NARA DOMINGUEZ ARGAZKILARIA



Nara Dominguez (Eskoriatza, 1987) erretratuetan espezializatutako argazkilaria da. Madrilen bizi da eta Ferixaren 26. edizioan *Lanederra!* izenpean argazki erakusketa jarriko du ikusgai. Bailarako zenbait ekoizle eta

artisauei ateratako argazkiak erakutsiko ditut" artisau erretratatu ditu eta Euskal Herriaren kultura eta tradizioaren parte izan diren eta oraindik indarrean dauden lanen historia erakutsi nahi du.

Zer batzen du *Lanederra!* izeneko argazki erakusketak?

Zortzi argazki batzen ditu lanak, eta protagonista guztiak debagoiendarrak dira. Urteetan zehar egin diren eta oraindik bailaran egiten diren lanbideak batzea izan da asmoa, galtzear daudenak. Azken belaunaldiko artisauek dira, eta ogibide bakoitzaren atzean dauden istorioak kontatzeko eta euskal kulturaren artxibo bisual bat sortzeko asmoz egingo diren lanak da.

Nola erabaki zenuen bailarako ekoizleak protagonista dituen erakusketa hori egitea?

laz, Estela de Castro erretratugilearekin ikastaro bat egin nuen, eta horren ostean erabaki nuen proiektu hau egitea. Lan hau Eskoriatzan egin nahi nuen, bertakoekin, eta urtebete daramat proiektu honekin. Beti enkargu bidez egin dut lan, eta hau ezberdina izan da; gogorrena produkzio lana izan da. Zapatuko azokan egongo dira argazkietako artisau guztiak, edo handik pasako dira; beraz, euren erretratuak ikusteak ilusioa egingo dielakoan nago.



Inazio Bengoetxea, ardi-moztailea. NARA DOMINGUEZ

taketa eta txapelketa egingo dituzte, Santa Marina plazan.

Dantza eta musika

Bazkaria *Zuk ekarri zuk jan* estiloan egingo dute, Fernando Eskoriatza plazan. Herritarrek euren bazkaria eramango dute,

**MIKEL LASARTEK
MOTOZERRAREKIN
EGUR-LANKETA
ERAKUSTALDIA
EGINGO DU**

aurrez mahai eta aulki erreserba eginda. Hala ere, bapo jateaz batera, dantzek eta musikak euren lekua izango dute. Esaterako, Gorosarri dantza taldeak erakustaldia egingo du 12:15ean, Gorosarri plazan. 19:30ean, berriaz, dantza taldeko kideek zein egunerako prestatzen aritu diren hainbat herritarrek larrain dantza, arin-arina eta fandangoa dantzatzeko dute Fernando Eskoriatza plazan; eta, ondoren, erromeria izango da Imanol Intxaustirekin eta Iñaki Larrañagarekin.

Amaitu da Gabez Takarraran egitea

Ekaineko hirugarren asteburuan egin izan den Gabez Takarraran mendi lasterketa ez du antolatuko aurten Eskoriatza Kirol Elkarteak. Azken edizioetan izandako parte-hartzearen beherakadaren ondorioz, ez dute bideragarri ikusten

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Gabez Takarraran mendi lasterketa herrian errotutako proba berezia izan da hamaika urtez. Hala ere, gautxorien neurria egindako lasterketaren hamabigarren edizioa ez dela egingo aurreratu dute antolatzaileek. "Parte-hartzeak behera egin du, puntako kirolariek ez dute lesiorik nahi, eta, beraz, ez dute gauz korrikarik egin nahi, jende asko behar da antolatzeko eta bidegurutzeetan egoteko, kanpotik datozen askok ez dute errepikatzen, geroz eta giro gutxiago egoten da plazan... Hainbat arrazoi tarteko, ez dugu antolatuko", adierazi du Garbiñe Uribe, Eskoriatza Kirol Elkartearen kideak. Gaineratu duenez, "ez da Udal Gobernu aldaketa izan delako; hori ere iritsi zaigu eta. Pozik gaude antolatzaileok orain arte egindakoekin, baina jakin behar da noiz amaitu, eta iritsi da ordua".

Xarma bereziko proba

Eskoriatzako bi aldeak zeharkatzen ditu probak, 24 kilometro eta 1.200 metroko desnibela duen ibilbidean. Plazan hasita, korrikalariek Asentsio mendia igotzen dute lehendabizi, eta, ondoren, plazara itzuli eta bigarren zatian egiten diote aurre, Atxorrotz



Iaz, Gabez Takarraran probako bi parte-hartzaile helmugaratzen. IMANOL SORIANO

pasa ondoren Makatzgaineraino igota (980 metro). Horren ondoren, beherako bidari ekin eta plazan izaten da helmuga.

Parte-hartzearen beherakadari buelta emateko zenbait saiakera ere egon dira. Zenbait ediziotan oinezko martxa egin da lasterketarekin batera, Euskal Herriko koparako puntugarria izan da, Eskoriatza Korrika Taldea sortu zen... Erronkak ere ezarri dira nor iritsiko Atxorrotzera bizkorren, baina, azken edizioeko balorazioa eginda, bukatutzat eman nahi

dute Gabez Takarraran probaren ibilbidea.

Parte-hartzaile esanguratsuak

Bailaran gauz egiten den mendi lasterketa bakarria izanda, izen handiko korrikalariak batu ditu hainbat ediziotan: Oihana Azkorbebeitia, Aitor Ajuria, Silvia Trigueros, David Rua, Nerea Amilibia... Eta herriko ordezkariak ere izan da presente: Iñaki Uribeberria, Bartolo Garcia –omenaldia egin zioten iaz, korrikalari beterranoari hamar aldiz parte hartzeagatik...

Largero Egunean

Mendiolako eta Arkarazoko auzotarrek Largero Eguna ospatu dute, beste urte batez. Baserriz baserri kantuan eta eskean jardun zuten joan den zapatuan, eta, eguraldi ona lagun, baita giro bikaina sortu ere. 60 lagun inguru aritu ziren, eta, kantu eskean aritu ostean, Mendiolan talde-argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten egunean batutakoek.



MENDIOLAKO ETA ARKARAZOKO AUZOTARRAK

LEINTZ GATZAGA | 17



Kat Lumen artista Dorleta Santutegiko saioan. SAIOLA URRUTIA

Zentzumen guztiak erabilia, ikuskizun sentsoriala

Joan den egubakoitzean, 50 lagun inguru batu ziren Dorleta Santutegian 'Lilura' ikuskizunaz gozatzeko

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Kat Lumen herbeheretarrak Diana Wondy artistarekin elkarlanean egindako lehenengo lana estreinatu zuten joan den egubakoitzean Dorleta Santutegian. 50 lagun inguru batu ziren Lilura izeneko ikuskizuna ikusteko, eta hainbat diziplina batutako saioa izan zen.

"Askotariko instrumentuak erabiliz –akordeoia, flauta, teklatura...– loop-arekin jolasten da; hau da, jotakoa grabatu eta errepikatuz. Gero, abestu ere egiten du hainbat hizkuntzatan. Gaztelaniaz, ingelesez, herbe-

retarrez, frantsesez, italieraz, euskaraz... abestu zuten. Horrekin batera, dantza egiten ikustea zoragarria izan zen", adierazi du ikusle gisa saioan izan zen Saioa Urrutia herritarrak.

Ikuskizun sentsoriala

Abestiei marko bat ematen die-la ere azaldu du Urrutiak: "Jendartean sartu eta ponpak egiten zituen. Beste une batean, ikusleak begiak itxita jarri eta lumatxo batekin aurpegian ukitzen zuten publikoak; usainak erabili zituen... Zentzumenak erabiliz egindako saioa izan zen".

GORA ETA BEHERA



Arriskuak gutxitzeko lanak egin dituzte

Leintz Gatzagako Gatz Museoaren harrera-gunearen –Santa Columba ermita– eta gatz produkzioaren eta biltegiaren eraikinen artean dagoen paretan garbiketa lanak egin dituzte. Harri batzuk erori ondoren, eremua txukuntzea erabaki du Gatzagako Udalak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Udaltzainei arma ematearen aurka

Udaltzainei suzko arma ematera derrigortzen duen Jaurlaritzaren dekretua dela-eta mozioa aurkeztu zuen Gorka Artola alkateak asteleheneko osoko bilkuran, eta aurrera egin zuen EH Bilduren aldeko botoekin, EAJren aurkakoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udaltzaingoaren eredia eta suzko armak. Bi termino horien bueltan aurkeztu zuen Gorka Artolak mozioa alkate bezala – udaltzainen arduraduna ere bada–, orain arte sekula erabili ez duen prozedura erabilia; mozioak aurrera egin zuen EH Bilduren aldeko botoekin, EAJren kontrakoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Mozioaren eskaeren artean dago, besteak beste, honako hau: "Eusko Legebiltzarrari Polizia Legea berrikustea eskatzea, herri txiki eta ertainen errealitate sozialera eta baliabideetara egokituz eta udal autonomiaren printzipioa irmoki errespetatuz".


Auzitegi Nagusiaren aurka

Bergarako Udala, Eibarkoaren edo Tolosakoaren antzera, judicializatutako herrietako bat izanik, Artolak aurreikusten du neurri batzuk hartzera derrigortuko dutela: "Dekretuak urtebeteko epemuga ezartzen digu herri ertainoi suzko armen presentzia bermatzeko kalean, eta, bide horretan, pauso batzuk ematera derrigortuko gaituzte; aldi berean, baina, eztabaida mahai gaineratu beharra dugu". Izan ere, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko ekaineko epaiaren arabera, alkateek ez dute udaltzainek armatuta egon behar duten edo ez erabakitzeko ahalmenik, "segurtasun publikoa Estatuaren eskumen eskusiboa" delako: "Gizartearen errealitateak erakusten digu herritarren segurtasuna gero eta maizago dagoela arriskuan, eta indarra eta, zehazkiago, su-armak erabiltzea ezinbesteko bihurtzen dela". Epaiak "disuasio-funtzioa" ikusten dute udaltzainek ere su-arma bat eraman dezaten.

"Beste modu batzuk landu nahi ditugu"

GORKA ARTOLA ALKATEA (UDALTZAINEN ARDURADUNA)

Ze helbururekin aurkeztu duzu mozioa alkate bezala? 2012ko segurtasun publikoaren inguruko legeak, 2019ko Euskal Poliziaren legeak eta orain suzko armak arautzen dituen Jaurlaritzako dekretuak baldintzatu egiten dute udalek gure udaltzaingo antolatzeko dugun autonomia. Talkak sortzen dira gure antolaketa ereduaren eta ezartzen diguten beharren artean; behar horiek ez dira egokitzen askotan udal txiki eta



J.B.L.

ertainen baliabide tekniko eta pertsonaletara eta, zer esanik ez, herri txiki eta ertainon egoera sozialetara. Eztabaida maila politikora ekarri nahi izan dugu. **Nola baloratzen duzu oposizioaren erantzuna?** Suzko armen gaian zentratu da. Bat egiten dut PSE-EEko Alberto Alonsorekin; alegia, suzko arma batek ez duela sekula segurtasuna indartuko. Suzko armak ezarri aurretik, beste modu batzuk landu nahi ditugu.

EAJ, Jaurlaritzako dekretuarekin EAJko bozeramaile Mikel Letek udalbatzaren aurrean azpimarratu zuen jeltzaleek ere nahia-goketela udaltzainek ez balute suzko armarik erabili behar izango: "Horrek adieraziko luke egoera beste bat dela orokorrean, baina, zoritxarrez, zenbait zerbizutarako egoki ikusten dugu. Jaurlaritzaren martxoko dekretuan definitzen da udaltzainek ze ekipamendu erabili beharko duten euren lanean herritarren eta euren buruaren segurtasuna bermatzeko. Dekretu hori bete-eta aurrera egitea da gure nahia".

PSE-EEko Alonsoren gogoeta

Alderdi sozialista abstenitu egin zen alkatearen mozioaren botazioan, Alberto Alonso eleduna "irakurketa batzuetan" ados ez zatorrelako. Hala ere, suzko armen inguruko gogoeta bat egin zuen udalbatzaren aurrean: "Udaltzainen eskariak oinarri moduan dauka euren burua babesteko pistola bat behar dutela. Horren harira, gogoratu nahi dudana bakarria da pistola bat ez dela izango sekula babeserako gailu bat; babeserako erreminta bat izango da, akaso, balen aurkako txaleko bat, baina pistola bat ez".

Lua dendaren erosketa

Bestalde, duela gutxira arte San Martin plazan zegoen Lua dena zena erostea ere adostu zuen udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoekin, EAJren kontra-

koekin eta Alderdi Sozialistaren abstentzioarekin. Udaltzeko "espazio falta historikoa-ri" aurre egiteko hartu dute neurria, EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagaren arabera: "Lokalak dituen ezaugarriengatik, kokapenagatik eta udaletxearekin konektatzeko ematen dituen aukerengatik, uste dugu ezin genuela aukera galtzen utzi". Udalak 390.000 euroren truke erosiko du Lua zena, udal aurrekontuetan aurreikusten ez zenez datorren urtean gauzatuko dena; erosketa gauzatu arte, alokairua ordainduko zaio jabeari.

EAJk kontra bozkatu zuen, EH Bilduk ez duelako zehaztu ze erabilera emango zaijon: "Arduragabekeria iruditzen zaigu lokal bat erostea zehazki zertarako erabiliko den definitu gabe".

Udalbiltzan sartuko da Bergara

Asteleheneko bilkurako beste erabakietako bat izan zen Bergarako Udala Udabiltzara gehitzea: "Udalbiltzak beste erakunde batzuek nazio mailan jorratzen ez dituzten sektoreak lantzen ditu, subiranotasuna eta lan kolektiboa sustatuz. Udaletatik, lau oinarri nagusitan oinarritutako proiektu eraldatzaileak bultzatzen dira: herri jasangarria, herri zaintzaile eta hezitzailea, memoria duen herri euskaldun eta anitza, eta udal antolaketa parte-hartzailea, publikoa eta komunitarioa". EH Bildu izan zen aldeko botoa eman zuen talde bakarria: Bergara erabat bat dator Udabiltzaren printzipioekin, eta ziur gaude Udabiltzak ere gauza positiboak ekarriko dizkiola gure herriari". EAJk eta PSE-EEk proposamenaren kontra bozkatu zuten.

DEKRETUAREN ARABERA, 2025EKO MARTXORAKO SUZKO ARMA IZAN BEHARKO LUKETE UDALTZAINEK

AUZITEGI NAGUSIAK DIO SEGURTASUNA ESTATUAREN "ESKUMEN ESKUSIBOA" DELA



Udaltzaingo eredia eta suzko armen erabileraren derrigortasuna mozioaren bozketa, asteleheneko bilkuran. J.B.L.



Patronalak eta instituzioek gaitu eta hiltzen gaituzte lelopean egin zuten protesta Embalán 3 enpresaren atarian. JULEN MURUA

Laneko heriotzen zama, geroago eta pisutsuagoa

Maiatzaren 22an kamioi baten zama gainera erori eta zaurien ondorioz hilaren 27an hil zen Unai Alberdi bergararrarekin, hiru dira 2024an Debagoienean lan istripuz hil diren langileak. Sindikatuek patronalari exijitu diote lan osasuneko araudia "behingoz" betearazi dezala

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Larramendi industrialdeko Embalán 3 enpresan istripua izan zuen hilaren 22an Unai Alberdi langile bergararrak; kamioi bat bakarrik zamatzen ari zela zama gainera erori eta harapatuta geratu zen. 51 urteko langile osintxuarraren heriotza maiatzaren 27an ziurtatu zen. Gero eta lan istripu gehiago gertatzen direla eta administrazio publikoaren esku-hartzerik eza salatu zuten LAB, ESK, Steilas, Hiru eta EHNE-Etxalde sindikatuek; martitzenean protesta egin zuten Embalán 3 enpresaren atarian.

Bestalde, ELAk agerraldia egin zuen atzo eguerdian San Martin plazan, eta leku berean baina 19:00etan, herriko eragileek deituta protesta egin zuten.

Bailarako hirugarren heriotza LABeko Debagoieneko arduradun Jon Baranguanek administrazioan eta patronalaren betebeharreran jarri zuen arreta: "Lan istripuak

gogor ari dira kolpatzen euskal langileria. 26 euskal langile dira dagoeneko eta eskualde honetan hirugarren heriotza da hau [aurreko bi heriotzak Arrasaten gertatu ziren, otsailaren 26an eta apirilaren 9an]. Administrazioaren bitartekoak ez dira nahikoa eta Osalan erakundearen papera aholkularitzara mugatzen da. Eusko Jaurlaritzak esku-hartze zuzenagoa izan beharko luke patronalari lan araudia betetzea behartzeko. Patronalari ere mezu bat helarazi nahi diogu: lan osasuneko araudiak betetzen ez dituzten enpresariak langileak hiltzen dituzte eta hori ezin da geratu zigortu gabe. Instituzioek patronala estutu behar dute, bada-eta garaia behingoz lan osa-

UNAI ALBERDI BAKARRIK ZEGOEN ZAMA GAINERA ERORI ZITZAIONEAN; BOST EGUNERA HIL ZEN

suneko araudia bete dezaten". Horrez gain, sindikatuek doluminak eta babesa adierazi zizkieten Unai Alberdiren senitartekoei eta lagunei.

Talde politikoen doluminak

Asteleheneko osoko bilkura aurretik konfirmatu zen Alberdiren heriotza, eta hiru talde politikoetako bozeramaileek hartu zuten hitza Goienako kameran aurrean. EH Bilduko Maite Usabiagak eta EAJko Mikel Letek doluminak adierazi zizkieten Alberdiren senitartekoei; PSE-EEko bozeramaile eta Osalan erakundeko zuzendari ohi Alberto Alonso harago joan zen bere hausnarketan: "XXI. mendean ze gizartek onartu dezake pertsona bat lanean hiltzea? Egoera hau ezin dugu onartu, eta gizarteari dei egiten diot errebelatzeko; ezin dugu pasibo jokatu. Komunikabideei ere kritika bat egingo nieke, nire ustez ez dietelako lan istripuei merezi duten tratamendua ematen".



NIRE USTEZ

MAMADOU SARR

Nuyoo

Mendian bai, kalean zergatik ez? Auzokide, ezezagun, kaixo, egun on zioen kartel baten irakurri dudan mezu honek Euskal Herrira heldu nintzeneko oroitzapenak ekarri dizkit burura.

Euskaldunak, agurtu edo *Agur* esaten duzue? Hona iristean, hemengo agurtzeko erak harritu ninduen. Pertsona batekin elkarrizketa luze bat izan eta hurrengo egunean topo egitean *bueno...* batekin agurtu. Ezin nuen ulertu orduan eta oraindik ere kosta egiten zait ulertzea. Nirekin Senegalera etortzen diren bisitarietara ere bertako agurrak arreta deitzen die. Senegalen agurrak berebiziko garrantzia du. Pertsona ezagutu edo ez, agurtzea derrigorrezkoa da, ez egitea errespetu falta bezala ulertzen da eta. Agurra ez da *kaixo* edo *agur* esatera mugatzen; gutxienez, galdera hauek luzatzen dizkiogu elkarri, normalean irribarre batekin ahoan: *Zer moduz?; Bakean zaude?; Zelan daude etxeokak?* Askotan, ezezagunekin ere elkarrizketa luze bat sortzen da, baita laguntasun harreman bat ere. Agurtzeak denbora ematen badigu ere, bueltan jasotzen duguna asko da. Agurtzeko denbora hori hartzera animatzen zaituztet.

Jabekuntza Eskolaren topaketarako izena eman beharra dago

Jabekuntza Eskolak interesa duten emakume guztiak gonbidatu nahi ditu ekainaren 7an 18:00etatik 20:00etara Irizar jauregian egingo den ikasturte amaierako topaketara: "Ekitaldia eskolako tailerretan parte hartu duten emakume guztiak biltzeko diseinatu da, baina oraindik parte hartzeko aukerarik izan ez duten arren etorkizunean

parte hartzeko interesa duten emakumeak ere gonbidatuta daude". Udalak antolatu du topaketa, honako helburu honekin: "Bergararako nahi dugun Jabekuntza Eskola motari buruz elkarrekin hausnartu nahi dugu. Elkar hobeto ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta elkarrekin ondo pasatzeko gune bat sortu nahi dugu".

Aldez aurretik izena eman beharra dago, www.bergara.eus-en. Ondoren, "mokadu agroeko-feminista" egingo dute.

OHARRAK

San Martin eskolaren ikasturte amaierako jaia

Egun osoko egitaraua izango dute gaur, maiatzak 31. Goizean Haur Hezkuntzako eraikinean izango dituzte ekintzak eta arratsaldean, berriz, Lehen Hezkuntzako eraikinean.

Kantu-jira herrikoia egingo dute domekan

Udalaren laguntzarekin, Jardunek beste behin antolatu du Bergara Kantuan. Ekainaren 2an San Martin plazan elkartuko dira, 12:30ean, eta gero, kalejiran joango dira kantuan.

Iñaki eta Koldo Anasagastirekin solasaldia

Olaso Dorrea fundazioak liburu aurkezpena eta solasaldia antolatu ditu ekainaren 6rako, 19:00etan, Olaso Dorrean bertan. Iñaki Anasagastiren *España, ¡Qué país Mikelarena!* liburua eta haren anaia Koldo Anasagastiren *Aunque silben las balas, te escribiré* liburuak izango dituzte berbagai.

Lanbroa Kultura Elkartearen hitzaldi-afaria

Hauteskundeak Katalunian. Eta orain zer? izenburupean, historian lizentziadun eta ANCKo kide ohi Josu Tornay gonbidatu dute. Gaur, hilak 31, Irizar jauregian izango da hitzaldia (19:00), eta ondoren, Pertxa elkartearen afalduko dute.

Ohorezko Mailari begira daude ligako txapeldunak

Maiatz hasieran Preferente Mailatik igoko zirela ziurtatu ostean, joan den asteburuan finala irabazi zuen Bergarak Irauli Bosteko taldearen aurka (4-2); datorren denboraldian taldearen oinarria mantendu egingo dute: "Gaur-gaurkoz, 20 bat jokalariko taldea dugu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Preferente Mailako denboraldi bikainari amaiera bikaina eman zioten joan den asteburuan senior mailako futbolariak, Idiazabalen jokaturako finalean Irauli Bosteko taldeari 4-2 irabazita.

Taldeko kapitain Sara Balentziagaren (Bergara, 2002) arabera, merezimendu osoz irabazi zuten finala: "Maila handia izan zen finalean, bi taldeok ondo jokatu genuen, baina, orokorrean, gu izan ginen hobekak".

"Gehiago ezin dugu eskatu"

Maiatz hasierarako matematikoki ziurtatuta zuten Ohorezko Mailara igotzea, baina finala irabaziz kategoriako txapeldun izatea ere bazuten begiz jota: "Sentsazioa dugu azken hilabete hau nahiko luzea egin zaigula, gure helburuak beteta genituelako eta talde gaztea izanda ikasturte amaieran izan ohi diren ikasketekin zerikusia duten konpromisoak genituelako, baina lortu dugu motiba-

zio maila bat mantentzea eta oso pozik gaude txapeldun izatea lortu dugulako. Askoz gehiago ezin dugu eskatu".

Bizkarrezurra mantenduko dute

Datorren urtera begira iaz izan zen belaualdi aldaketarik gertatuko ez dela azpimarratu du Balentziagak: "Nesken futbola ez da batere egonkorra izaten, bereziki, senior mailan, eta datorren urtera begira egongo dira aldaketak, baina esan dezakegu ez dela egiturazko aldaketarik izango. Dei batzuk egin ditugu, eta, gure kalkuluen arabera, orain bertan hogeit hamar futbolari osatutako taldea badugu. Kopuru itxaropentsua da datorren denboraldira begira". Iaz galdu zuten

SARA BALENTZIAGA KAPITAINAK ESKER ONA ADIERAZI DIE "BEREZIKI BETI HOR" EGON DIRENEI

Ohorezko Mailara itzuliko da Bergara. "Dagokion lekura", Balentziagaren arabera. "Lehen helburua izango da mailara egokitzea, horrek izan behar du gure lekua. Talde polita izango dugu eta espero dugu maila mantentzeaz harago postu ona lortzea".

Datorren denboraldian ere kapitainaren besokoarekin arituko da Balentziaga. Hori bai, denboraldia amaitu berrikan, beti hor egon direnak izan ditu gogoan: "Manolo Ortiz, Lander Ugarte eta Leire Martin entrenatzaileek lan ederra egin dute; adibidez, eurei esker mantendu dugu motibazioa azken hilabete zehar. Bestalde, eskerrik beroak eman nahi dizkiet une txarretan eta denboraldi osoan beti ondoan izan ditugun lagunei eta senitartekoei. Igoera faserara jende asko etorri da, eta haiei ere eskerrik asko, baina, bereziki, beti hor egon direnei. Zuek badakizue nortzuk zareten. Eta, nola ez, Ainhoari [Etxeberrria] eta Mariñeri [Diaz]".



Iazko erlojupekoaren irteera, San Antonion. IMANOL SORIANO

Kadeteendako erlojupeko bizia domekan, San Antonion hasita

San Antonio Sariaren 87. edizioa antolatu du Lokatzak ekainaren 2rako (17:00); 100 bat ziklista irtengo dira

J.B.L. BERGARA

San Antonio Txirrindularitza Sariaren 87. edizioa jokatu da domekan, ekainak 2, 17:00etan hasita. Kadete mailako ziklistei zuzendutako erlojupekoa da, nesketan zein mutiletan: nesken kasuan, Gipuzkoa eta Euskadi mailako proba; eta mutilen kasuan, berriz, Gipuzkoa mailakoa. "Antolakuntza ikuspegitik oihartzun handia duen erlojupekoa da; bada modu bat, kadete mailako ziklismoan bada ere, Bergara Euskadiren erdigunean jartzeko", adierazi du Lokatza Ziklismo Eskolako presidente Ion Unamunok.

San Antonioko irteera puntuan 100 bat ziklista izango direla aurreikusten du antolakuntzak; txirrindulariak 30 segundoan behin irtengo dira eta 7,2 kilometroko ibilbidea egin beharko dute erlojuaren kontra Espoilo-ko helmuga zeharkatu aurretik.

Denbora onak egiteko aukera

Kirol arloari dagokionez, Unamunok dio Lokatza "momentu onean" dagoela: "Joan den asteburuko lorpenen artean daude, mutiletan, Manex Larrañaga Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde izatea lortu zuela, eta Izortz Llodiok Gipuzkoako txapeldunorde izatea lortu zuen. Bereziki, Manex Larrañaga ikusten dugu zerbait polita egiteko moduan, baina ikusiko da. Nesketan bi izen aipatuko genituzke, batez ere: Izar Eskibel oñatiarra eta Araia-ko Zihortza Heredia; biak daude sasoi onean eta denbora politik egiteko aukerak dituzte".

Unamunok dio ziklista askorentzat lehen erlojupekoa izango dela: "Proba motza eta bizia da eta bidegurutze batzuetan baita tekniko ere. Ondo prestatu beharreko espezialitatea da, ezagutu beharrekoa".

Pilota: Herri Artekoan final laurdenak ditu gaur Bergarak (19:00)

Herri Arteko Pilota Txapelketan aurrera doa Bergara, eta gaur, maiatzak 31, final laurdenetako joaneko kanporaketa jokatu dute Ataunen aurka -19:00etan hasiko dira partiduak-. BKEko pilota saileko presidente Julen Aranbururen arabera, ez dute informazio handirik pilotari ataundarren gainean: "Multzokoburu direnez, ez dugu informazio

askorik pilotarien inguruan. Espero dugu kadeetetan guk irabaztea... Badakigu gazte mailan Lazkaokoa den Kerejeta pilotariak maila handia duela eta nagusien mailan badakigu Beñat Zubizarretak ezingo duela jokatu, tamalez, belauneko lotailu gurutatua apurtuta duelako. Beraz, ea kadete mailako lehian indartsu hasi eta irabazten dugun, gero gazte mailakoek eta nagusiek ez dezaten presio gehigarririk izan. Gure mailarik onena ematen saiatuko gara, beti bezala".



Preferente Mailako txapeldunak, lagun, senitarteko eta klubeko ordezkariak batera, Idiazabalen finala irabazi ostean. BKE



Manso optikako Cristina Revuelta optikaria ume bati ikusmena neurtzen.

Miopiaren garapena moteldu egin daiteke

Errore errefraktibo bat da miopia, eta, hazkundearekin lotuta dagoenez, haurtzarotik garatzen da. Badaude haur-miopiaren progresioa moteltzeko eta zuzentzeko tratamenduak. Bergarako Manso optikan adituak dira 'MiSight 1 day' lenteetan

Begien gehiegizko hazkundeak eragiten du miopia. Oinak neurritz kanpo hazten badira nahikoa da zapata handiagoak erostea, baina begien kasuan ikusmen arazoak sortzen dira. Adituek aurreikusten dute 2050erako munduko biztanleriaren erdiak baino gehiagok garatuko duela miopia, eta gomendatzen duten lehen neurria da etxetik kanpo

edo aire zabalean denbora ahalik eta gehien igarotzea. Bigarren gomendioa da adi egotea; izan ere, miopia zantzuak agertuz gero komeni da lehenbailehen esku hartzea. Gaur egun badaude tratamenduak haur-miopiaren progresioa geldiarazteko eta zuzentzeko gai direnak, eta, hain zuzen ere, 7 urteko neska-mutikoei erabil ditzakete.

'Mysight 1 day' tratamendua *Mysight 1 day* tratamendua da horietako bat, eta egindako hainbat azterketa klinikotan frogatu da haren eraginkortasuna. Aukera ona da miopia duten ia haur guztiengan funtzionatzen duelako, kasu askotan haur-miopiaren progresioa erdira mugatzen duelako, erabiltzaileendako eroso delako eta tratamendua-

ren onurak nabariak direlako erabiltzeari utzi ondoren ere.

Bi ezaugarri nagusi dituzte *Mysight 1 day* lenteek: umearen ikusmena hobetzen dute eta, aldi berean, begiak motelago haztea eragiten dute. Tratamendua betaurrekoekin zein lentillekin egin daiteke eta Bergarako Manso optikan orain zazpi urte espezializatu ziren. "Tratamenduak ez du miopia desagerrarazten, baina neurri esanguratsuan moteltzen du garapena", azaldu dute. "Umearen adina, egungo graduazioa eta gurasoen graduazioak kontuan hartuta gai gara kalkulatzeko begiek batez bestekoaren gainetik hazteko dagoen probabilitatea, eta horren arabera gomendatu dezakegu zeintzuk diren hartu beharreko neurri egokienak".

Manso optikan ume bakoitzaren beharrian indibidualak hartzen dituzte kontuan bai ikusmena zuzentzeko bai miopiaren progresioa kontrolatzeko, eta aldian-aldian kontrolak egiten dituzte begien garapenaren jarraipen zehatza egiteko. "Miopia 20 urtera arte handitu daiteke; batez ere, ikasten jarraitzen duten pertsonen artean. Gerta daiteke azterketaren batean hazkunde bat detektatzea, baina normala da; izan ere, umearen gorputz osoa ari da hazten, begiak barne. Nolanahi ere, tratamendua erabiliko ez balu baino gutxiago haziko da miopia".

Onurak mantendu egiten dira *Mysight 1 day* produktuekin egindako ibilbidearen ostean Manso optikan oso pozik daude lortutako emaitzekin, eta ziurtatzen dute tratamenduekin lortutako onurak mantendu egiten direla erabiltzeari utzi ondoren ere: "Gaurko egunera arte, produktu bakarra da frogatu duena tratamendua-

ondorioak denboran luzatzen direla. Ikerketa batean, *Misight 1 day* tratamendua utzitako umeen jarraipena egin zuten zazpi urtez, eta demostratu zen haien begiak adinarekin lotutako erritmoan hazi zirela. Horrek esan nahi du arrazoia edozein izanda ere tratamendua miopia egonkortu baino lehen eteten bada onurak mantendu egiten direla".

Argibideak umei

Manso optikan garrantzia ematen diote tratamendua egiten duten umei ere argibide egokiak emateari. Adinaren arabera azalpenak ematen dizkiete, begietan zer duten eta tratamenduak nola lagunduko dien ondo uler dezaten. Azaltzen diete, esaterako, begiak ohikoa baino gehiago hazten badira miopia gara dezaketela, horrek ikusmen lausoa eragingo diela eta ondo ikusteko betaurrekoak edo ukipen-lenteak jarri beharko dituztela. "Umeek berehala ulertzen dute begiak zainduz gero graduazioa ez dela izan zitekeena bezain handia izango, eta begi osasuntsuagoak izango dituztela helduaroan".

BEGIEN GEHIEGIZKO HAZKUNDEAK SORTZEN DU MIOPIA, ETA KOMENI DA GOIZESKU HARTZEA

TRATAMENDUA 7 URTEREKIN HAS DAITEKE, ETA ETENDA ERE MANTENDU EGITEN DIRA ONURAK

RPS 73/23

Geldiarazi umearen miopia, ez haren etorkizuna.

MiSight® 1 Day lentillekin lor daiteke. Zatoz eta galdetu!

Manso Optika www.opticamanso.com • 943 76 27 86 • Irizar pasealekua 2 • Bergara



Eskolako ikasleak *Musikak batzen gaitu* kantua grabatzen; biharko kontzertuan lehen aldiz entzungo da abestia zuzenean. GOIENA

40. urteurrena ospatzeko festa, musikak batuta

Musika Eskolaren 40. urteurrenaren barruko zita bereziena izango da biharko Udaberriko Jaia. Kalejirak, kontzertua, boluntarioei aitortza eta bazkaria daude, besteak beste, egitarauan; Espoloiari egin nahi dute, baina, euria bada, Seminarioko karpa da beste aukera

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako Musika Eskolaren 40. urteurreneko ospakizunen barruan, mugarrira izango da bihar, ekainak 1, ospatuko duten Udaberriko Musika Jaia. Egitaraua eta jaiaren parte izango diren herriko eragileen zerrenda ikustea besterik ez dago kontzertua berezia izango dela ondorioztatzeko: Bergarako Musi-

ka Banda, Aritzeta abesbatza, Bergarako Orfeoia, Bergarako Orkestra, Txistulari Banda eta Bergarako Musika Eskolako ikasle eta irakasleak.

Kalejirak eta kontzertu berezia Egun osoko egitaraua prestatu dute musika eskolako ardura-dunek. Herriko hainbat lekutatik abiatutako kalejirekin eman-

go diote hasiera egitarauari, 11:30ean. Matxiategi edo *Poligono*-tik kantu jiran arituko direnak irtengo dira; Usondo parketik, musika banda; epaitegitik, biolin jotzaileak; eta Burdinatetik, azkenik, dantzariak eta txistulariak.

Ondoren, partaide guztiak San Martin plazan elkartu eta kalejiran joango dira Espoloiari

(12:45), eta kalejira amaitutakoan kontzertua emango dute Espoloiari (13:00). Kontzertutik aurreratu daiteke hiru pieza joko dituztela talde guztiek batera: *Euskal Herrian Euskaraz*, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren Musika Eskolako Martxa -35 urte betetzen ditu martxa horrek, 1989ko ekainaren 6ko lehen Udaberriko Jaian estreinatua zena- eta eskolako ikasleek Idoia Asurmendirekin batera sortu duten *Musikak batzen gaitu* abestia; hain zuzen ere, abesti horrekin bideoklipa ere kaleratu zuten duela bizpahiru aste. Abesti hori lehen aldiz entzungo da zuzenean bihar, bandako zuzendari Enrike Txurrukak abesti horren orkestrarako moldaketa egin du eta.

160 lagun herri bazkarian

Kontzertua amaitu osterako herri bazkaria dute antolatuta eta antolatzaileek espero dute gutxi gorabehera 160 bat lagun elkartuko dituztela. Bapo bazkaldu ostean, Itzal taldearen erromeria izango dute, 16:00etan. "Duela 35 urte ere erromeria batekin girotu genuen bazkaloste", gogoratu du Ugaldek.

Eguraldia: erabakia hartzeke

Egitaraua oparoarekin eta eragile askoren parte-hartzearekin festa bermatuta dago, baina antolatzaileak beldur dira eguraldiarekin. Honela azaldu zuen musika eskolako zuzendari Marije Ugaldek zein zen egoera atzo eguerdian: "Erabakia hartu beharrean gaude, baina ez dugu argi. Iazko Udaberriko Jaia tokiz aldatu genuen eta gero eguraldi ona egin zuen; pena handia izan zen. Guk Espoloiari egin nahi dugu, baina ez dugu erabaki oraindik; beste aukera

izango da ekitaldi guztiak Seminarioko karpan egitea".

Boluntarioei aitortza

Bestalde, Ugaldek gogora ekarri du biharko jai bereziak baduela beste helburu bat: "Jaiegun hau hainbeste urtetan boluntario lanetan ibili den jendea gogoratzeko erabiliko dugu. Argi dugu gure proiektua herriko sortu zela eta herritar askori zor diogula gaur daukagun musika eskola. Haiek omen du nahi ditugu. Adibidez, 40 urteotan zuzendari batzordetik pasatu diren 145 boluntarioen izena jasota daukagu. Haiei urte luzez egindako lana errekonozituko diegu eta dagoeneko 55 lagunek konfirmatu digute bertan egongo direla".

Argazkiak denda eta tabernetan

Biharko jaiak aparte, ekimen berezi baten berri ere eman dute musika eskolatik: "Bedelkar merkatarik elkartari esker *Bergarako Musika Eskola*. 40 urte irudietan erakusketa antolatu dugu. Herriko denda eta taberna batzuetan egongo dira ikusgai gure ibilbideko argazkiak. Sei gai nagusitan banatu dugu erakusketa; guztira, Bedelkarreko 63 bazkide animatu dira gure argazkiak jartzera, ekainaren 8ra arte". Sei gai edo multzo horiek honako hauek dira: *Musikalak eta ipuinak*; *Udaberriko Jaia*; *Elkartrukeak eta jaialdia*; *Gabonetako kontzertua*; *Apirilean Musika*; eta *Herrigintza*.

BOLUNTARIOEN LANA AITORTZEKO FESTA ERE IZANGO DA; 55 LAGUNEK ZIURTATU DUTE EGONGO DIRELA

Elosuko Otaba jaiak: herri kirolen orde, artzain txakur erakustaldia

Lau artzain gonbidatu dituzte; tartean, Miguel Arregi eta Joxe Mari Bengoa oñatiarrak. Domekan izango da (16:30)

J.B.L. BERGARA

Ekainaren 1ean, 2an eta 3an Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosuan. Aurtengo nobedadeetako bat da herri kirolen orde artzain txakur erakustaldia egongo dela. Domekan izango da, ekainak 2, plaza

azpiko zelaietan (16:30). Lau artzain gonbidatu dituzte: Miguel Arregi oñatiarra *Lagun* txakurrarekin; Joxe Mari Bengoa oñatiarra *Ze*u txakurrarekin; Jabier Zubiaurre mutrikuarra *Mendi*-rekin; eta, azkenik, Kepa Ardanza abadiña-

rra *Txuri*-rekin. Bihar, ekainak 1, mus txapelketa izango dute 16:30ean, eta 16:00ak arte izena eman daiteke; 21:00etan, txiste kontatzailea eta bertso afaria izango dute Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin -gai-jartzaile lanetan Ibon Leibar *Txinbo* arituko da-. Domekan izango da erretiratuendako bazkaria, Elurmendi elkartean (14:30). Asotelehenean, ekainak 3, Otaba Txiki eguna ospatuko dute; auzo bazkaria (15:00) eta erromeria izango dituzte, besteak beste.



Herri kirolak, iazko jaietan. GOIENA

Ke Lepo eta Zatibi taldeek joko dute kartzela zaharrean

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenari esker, goi mailako musika elektronikoa eta askotariko proiektioak izango dira protagonista gaur, hilak 31, kartzela zaharrean (22:30). Antolatzaileek inor axolagabe utziko ez dituen luxuzko bi gonbidatu lotu dituzte: Ke Lepo eta Zatibi. Sarrera zortzi euro ordaindu beharko da.

"Aupa!

Lortu dot azkenien!

Oin, Debagoienien

nun erosi neike

auto bat?"



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.



Antzuolako Altxa Burua taldeko kideetako batzuk, joan den astelehenean, Antzuolan. A.R.K.

Martxan da Altxa Burua, pantailen erabilera oinarri

Miren Ros hezitzaile eta Bidelagun proiektuko arduradunak 'Haurrak, nerabeak eta pantailak' hitzaldia egingo du ekainaren 6an, eta Altxa Burua taldeak momentu hori aprobetxatuko du bere proiektuaren berri emateko; ateak "irekita" dituzte

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Sakelako telefonoen –eta, oro har, bestelako pantailen– erabilerak ume eta nerabeengan sor ditzakeen arazoekin kezkatuta, Gipuzkoako eta Deba-goieneko beste herri batzuetan bezalaxe, Antzuolan ere duela hilabete batzuk hasi ziren elkartzen guraso batzuk egoera aztertu nahian, arazotzat duten auziari buelta emateko zer egin zitekeen pentsatzen; eta hala sortu zuten Antzuolako Altxa Burua taldea.

Hamabi guraso inguruk osatzen dute, gaur-gaurkoz, aipaturiko taldea, eta, batik bat, hiru helburu dituzte esku artean: "Sakelako telefonoek eta pantailen erabilerak duten eraginaren gaineko kontzientziazioa, ona eta txarra; ahal den heinean, umeak mugikorrarekin hasteko adina atzeratzea; eta azkenik, mugikorrik gabeko inguruak sortzea, batez ere, ikastetxeetan". Haien hitzetan, "gutxi gorabehe-

ra", Altxa Burua plataformarekin konpartitzen dituzte hiru helburu horiek, eta hori sozializatzea dute asmo: "Honetaz guztiaz, behintzat, hitz egitea dugu xede, beste aukera batzuk badaudela jakitea".

Horretarako, Miren Ros hezitzaile eta Bidelagun proiektuko arduradunak *Haurrak, nerabeak eta pantailak* hitzaldia egingo du ekainaren 6an, eguenean, 18:00etan, Olarango areto nagusian. Hala, taldeki-deen asmoa da hitzaldia aprobetxatzea taldearen berri emateko, "hastapenetan" daudela nabarmenduta. "Honen berri eman nahi diogu jendeari, eta denei ateak irekita dituztela azaldu, interesa izan dezakeen

GAI HORRETAZ HITZ EGITEA DUTE HELBURU, BESTE AUKERA BATZUEN INGURUAN JARDUTEA

edonork baitu lekua proiektu honetan".

Elkarlanean dabilta

Eratu berri duten taldea, ordea, ez dabil bakarrik lanean, Antzuolako Udalaren eta Pausoka guraso elkartearekin baitabil elkarlanean. Are gehiago, orain, Ipintza institutuko guraso batzuk ere batu zaizkie taldera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak han egiten baitituzte antzuolar gehienek: "Gainera, ohartu gara pantailen erabilera handiena DBH-1etik gorakoan artean dagoela". Horrez gainera, Bergarako eta Elgetako taldeekin ere jardunean dabilta, hiru herrietako nerabeak batzen baitira Ipintzan.

Eskolei dagokienez, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak aginduta, pantailen erabileraren inguruko protokolo bat ondu behar dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeek; beraz, horretan dabilta Antzuola Herri Eskola eta Ipintza BHI.

Beste urte batez, gorritz jantziko du herria AKE egunak bihar

Poteoa, herri bazkaria, sari banaketa eta Elektro Txufla elektrotxaranga antolatuta dituzte eguna ospatzeko

A.R.K. ANTZUOLA

Herrian errotutako ospakizunetako bat da AKE eguna, ehunka lagun batzen baitira, eta badi-rudi horrela izango dela aurten ere, Jokin Arantzabal AKEko lehendakariak azpimarratu baitu 420 herritar inguru bilduko direla biharko herri bazkarian: "Azken orduko aldaketa batzuk salbu, dena dugu prest biharko egunerako".

Ezustekoei dagokienez, jakinarazi du azkenean ez dutela futbol partidurik egingo, eta, beraz, karro-poteoarekin hasiko dutela eguna, 12:00etan, Okaldin. 14:30ean, berriz, herri bazkaria egingo dute, eta, ostean, sariak banatuko dizkiete jokalaria batzuei: "Bizpahiru omenaldi ere egingo ditugu, baina sekretua da bazkalostera arte". Azkenik, Elektro Txufla elektrotxaranga alaituko du giroa. "Egun hone-

taz gozatzeko, herritarrek gonbidatzen ditugu gorritz janztera, herria gorritu dadin".

Ikasturtearen balorazioa

Lehen Erregional Mailan jokatuko du datorren denboraldian Antzuolako gizonzkoen taldeak, mailaz jaitsi baitira Gorengo Mailatik. "Kolokan egon dira azken urteetan, eta, azkenean, oraingoan iritsi da jaitsiera. Hala ere, espero dugu jokalaria gehienek jarraitu nahi izatea taldearekin jokatzen".

Futbolari gazteagoen taldeei dagokienez, kadete mutilak, esate baterako, Preferente Mailara igo dira, eta neskek, berriz, bergararrekin batera, txapeldunordeak izan dira. Infantiletan ere "ondo" aritu direla azpimarratu du Arantzabalek, eta futbol eskolaren balorazioa ere "ona" dela.

Herriari "bizitasuna" emateko, bueltan dira Ondarreko jaiak

Duela zortzi urte inguru antolatuta zituzten azkenengo aldiz Ondarreko jaiak, eta, ordutik, ekintza solte batzuk salbu, ez dituzte ospatu. Hala ere, aurten, hiruzpalau auzotar elkartu dira festak errekeruperatzeko asmoz, eta,aldi berean, baita herriari "bizitasuna" emateko ere. Hala, haien hitzetan, "herritar guztiei" zuzendutako egitaraua osatu dute, "haur, gazte zein helduek" goza dezaten.

Bihar hasiko dituzte jaiak. Umeentzako bizikleta-ginkana egingo dute goizeko hamaiketan, Peña Aiausti elkartearen laguntzarekin; 17:00etan, berriz, Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna eta merienda izango dira. Iluntzean helduagoen txanda izango da, AKE eguneko Elektrotxufla elektrotxaranga bukatutakoan Latxirongak DJak izango baitira musika jartzen; barra ere egongo da. Azkenik, prozesioa izango da domekan, 12:00etan; ondoren, dantza saioa, salda eta txorizoarekin.

Antonio Aretxabalak hitzaldia egingo du eguaztenean

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, Antonio Aretxabala geologoak hitzaldia egingo du datorren eguaztenean, ekainaren 5ean, Olarango beheko aretoan, 18:30ean. Hain justu, plataforma *Energia berriztagarrien inplantazioaren beharra, bideragarritasuna eta naturan dituzten kalteak* izenpean ari da jardunaldiak egiten.

OHARRAK

Errepidea itxita

Etzi, 16:45-18:15, Zupidetik San Antoniora (Bergara).

Bertso saioa

Antzuola Herri Eskolako ikasleen saioa, hilaren 4an, 17:00etan, Torresoroan.

Alarderako jendea

Danbor-jole, eskopetari edo mairuaren musikari: 650 805 248 edo kultura@antzuola.eus.

"Inguruko saguzarrak entzungo ditugu irteeran"

ION FONTENLA NATURTZAINDIA ELKARTEKO KIDEA

Asteon bi saio egin ditu eskolan eta umeak irrikaz daude gaur soinu-detekttagailuak hartu eta saguzarren pista jarraitzeko; taldea 21:00etan elkartuko da, plazan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ion Fontenlak (Lazkao, 1984) gidatuko du gaur iluntzean egin-giduten irteera. Herritar guztiei dago zabalik.

Kobazuloetan bizi dira saguzarrak?

Asko egoten dira kobazuloetan, edo, hobeto esanda, bertan ikusi ohi ditugu gizakiok, baina zuhaitzetako arrakaletan eta etxebizitzetako teilak azpian ere asko sartzen dira.

Zenbat espezie daude?

Euskal Herrian 27 espezie ditugu. Pirinioetako leku konkretu batzuetan soilik ikus daitezke horietako bi. Gainerakoan, badaude herrigunetan bizi direnak, basoetan gehiago daudenak, garaiera handiko lekuak gustuko dituztenak...

Eta ze funtzio betetzen dute?

Funtsezkoak dira, intsektuak jaten dituztelako. Garrantzitsuak dira gizakiondako zein abeltzaintzarako izurriteak eta izurriteekin lotutako gaixotasunak ekiditen laguntzen dutelako.

Arriskuan daude saguzarrak?

Legez babestuta daude, baina nekazaritzarako erabiltzen ditugun kimikoak eta bertako baso helduen falta ez dira lagungarri. Espezieak mantentzen dira, baina saguzarrak galtzen ari gara. Kutzak jartzen ditugu babeslekuak topa ditzaten, eta Deba-



Ion Fontenla, Elgetako Herri Eskolan, astelehenean. L.Z.L.

SAGUZARREK EZ DUTE HOTZA ETA EURIA MAITE; EGURALDI TXARRA BADA, EZ DA IRTEERARIK EGINGO

goienean dezente daude, baina bestelako neurriak ere har daitezke. Esaterako, saguzar populazio handiak dituzten kobazuloen sarrera erregulatzea.

Zer egin beharko genuke saguzar bat etxean sartzen bazaigu?

Bakarra sartzen bada, itxi gela-ko atea, zabaldu leihoa eta utzi bakean. Gosetu eta ilundutakoan bakarrik irtengo da. Baserri ganbara batean talde bat sartzen bada, gomendioa da, ahal den neurrian, errespetatzea; eltxoak jaten dituzte, eta osasunean irabaziko dugu. Negualdia pasatakoan irtengo da kolonia, eta orduan itxi beharko litzateke ganbara, berriz ez sartzeko. Arazorik sortzen bada, gomendioa da basozainari deitzeko. Naturtzaindian bertan ere hartzen ditugu abisuak.

Elgetako Udalak 158.712 euroko superabitarekin itxi du 2023a

Inbertsioen exekuzio maila, dirulaguntza eskaerak eta 341.174 euroko gerakina izan ditu aztergai udalbatzak

L.Z.L. ELGETA

Elgetako udalbatzak martitzeanean egin zuen maiatzeko osoko bilkura. Landutako gaien artean izan zen 2023ko udal aurrekontuaren likidazioa. Ibon Unzeta-barrenetxea alkateak azaldu zuen Udalak 158.712,87 euroko superabitarekin itxi duela 2023ko ekitaldia, kalte-ordainetara 78.000 euro bideratu direla, zor bizia %21,61 dela eta erabilgarri dagoen gerakina 341.174,58 eurokoa dela.

Jeltzaleen balorazioa

Jeltzaleek kezka azaldu dute inbertsio errealean exekuzio mailarekin. "Alarma bat piztu behar dugu; izan ere, %37 exekututzea gutxi da", esan zuen Iker Lakak. "Ez badira inbertsioak exekutatzen, dirua gelditu dago, eta herriak baditu beharrak". Azpimarratu zuen, bestetik, aurreikusitako dirulaguntzen erdia bakarrik

lortu dela. Gerakina, azkenik, "garrantzitsua" dela esan zuen, eta jeltzaleak "adostasun berriak lortzeko prest" daudela. "Prest gaude ditugun erronken aurrean adostasunak lortzeko. Gainerako erakundeen aurrean ere laguntzeko prest gara. Gure aldeetik badago kolaboraziorako nahia eta gogoia".

Elkarlanerako borondatea

Alkateak esan zuen inbertsio handienak –Arantzetara ura eramatea eta San Roke kaleko lanak– 2024an gauzatu direla, ez 2023an. "Horregatik da exekuzio maila %37". Dirulaguntzen kudeaketa indartzearekin ados dago, baina Udalak dituen baliabideekin esfortzu handia dela ere esan zuen. Azkenik, EH Bildu ere elkarlanerako prest dagoela esan zuen: "Negoziazio fase berri bat irekiko dugu".

Betiko osagai guztiekin datoz Beheko kaleko jaiak

Hamar urte auzoa alaitzen. Hori dio kartelak; izan ere, urtemuga borobila du aurten Jai Batzordeak. Eguenerako, ekainak 6, uretako txirrista (16:15), GramolaDJ (19:00), Holi festa, bits festa eta etxean egindako pata-tortilla lehiaketa (19:30), Unai Cantabranaren kontzertua (20:00) eta Baobeer-en dastaketa daude iragarrita. Biharamunean, bizi-

kleta lasterketa (16:30), entzierroa eta buruhandiak (17:30), Amaia DJ eta DantzaShowa (18:30), Igel-toka lehiaketa (19:30), jaien aldeko topa (20:00), auzo afaria, suzko erruberak (23:00), Gauargiren erromeria (23:15) eta Mojita Jaia (00:00) daude programan.

Afarirako txartelak salgai daude Goikoetxe harategian eta Lola jatetxean. "Martxan dugu otarre eder baten zozketa ere!", esan dute Jai Batzordekoek. Txartelak salgai daude Ugari dendan, harategian eta Lolan.

Espezie nagusia, pipistrela arrunta

Saguzar populazio garrantzitsuena da inguruotan. "Gure aparailuekin detektatzen ditugun %90 dira. Lauzpabost gramo pisatzen dute, bakarka edo talde txikietan bizi dira, eta, txikiak izanda ere, migrazio luzeak egiteko gai dira. Eltxoak jaten dituzte, eta milaka behar dituzte gauero", azaldu du Fontenlak. Gaurko irteeran gehien agertuko direnak dira.



Pipistrela arrunta. ADRIABAUCELLS.COM

OHARRAK

Zapatuan, Intxortako I. Rallysprinta

12:30ean irtengo da lehen autoa (Ikus 32. orria).

Gipuzkoako Bertso Txapelketarako txartel bila

Saillkapen faseko bigarren itzuliko saioetako bat jokatu da zapatuan, 17:00etan, Espaloian. (Ikus 35. orria).

Ferixa Nagusiko jaietako kartela

Lehiaketarako onartutako lanak ikusgai daude buztin gelan. Gaur da botoa emateko azken eguna.

EH Bilduk antolatuta, solasaldia eguaztenean

Palestinaz arituko da Andoni Olariaga, 18:30ean, udaletxean.



Txondorra egiten auzolanean ibili diren hainbat herritar, martitzenean, San Martinen. O.E.G.

Herritarrekin piztu gura dute auzolanean egindako txondorra

Zapatu eguerdian brasa eta betegarriak sartzen hasiko dira txondor barrura goiko zulotik behera, jai giroan. Bizpahiru aste beharko dira erabilitako egurra egosi eta ikatz bihurtzeko, eta zaintza lanak egiteko gonbidapena egin gura diete herritarrei

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI Azaroan egin zuten txondorraren proiektuaren aurkezpena Txondorraren Bueltan egitasmoko kideek, eta uda izango da barruan egingo den ikatz guztia atera orduko. Irteerak, hitzaldiak eta txondorra bera egiteko auzolanak egin dituzte bien bitartean. Bihar, zapatua, piztuko dute, jai giroan, ikazkintzari buruz interesa duten herritarrekin eurek ikasitakoa partekatuz.

Erdiko zulotik behera

San Martin auzoko zuhaitzian, ermitaren atzean, egin dute txondorra. Eta ondoan etxola bat, ikazkinek horrelakoetan pasatzen baitzituzten ikatza egin bitarteko egunak, prozesuaren zati horrek orduroko zaintza eskatzen du eta. Barrua bost metrokoa du txondorrek; sei metro, estalki eta guzti neurtuz

gero. Erdian zuloa du, eta hortik sartuko dituzte zapatuan brasa eta betegarriak. "Erdiko su-etxea beteko da horrela eta ingurura zabaltzen hasiko da gero sua. Azpiko ondo-zuloetatik arnasa hartzen du txondorrek, tiro efektua egiten dute, eta txondorrean beste puntu batzuetan zuloak eginda kontrolatzen da sua, zuk gura duzun tokira eramateko. Zuloa alde baten eginez gero, beste aldera mugituko da sua. Joko hori egin behar da, eta egunero zaindu: su-begiak sortuz gero, tapatu egin behar dira ahalik eta azkarren, lurra jaus-ten bada jaso...", dio proiektuan ibili den Arantzazu Sagarzazu Sacristanek.

25 tona egur

Pago egurra erabili dute txondorra egiteko, lehen ere horixe zelako nagusi langintza horretan,

"ziurrenik gehien zegoelako, azkarrago hasten dalako eta errazagoa delako". Paga kudeatzeko modu ezberdinak daude, txaria edo pago-motzak, adibidez, eta herri lurretako txara batean entresaka egin behar zela aprobetxatuta, egur hori atera zuten. "Otsailean jo genuen basoa, bota zen egurra, behorrek bideetara atera genuen eta kamionetan hona, San Martinera, ekarri. Gero, hemen, tamainako zatiak egin ditugu, neurrira moztu; metro inguruko zatiak batzuk eta txikiagoak beste batzuk. Baita egur xehea ere, fina; horiekin bete ditugu zulo guztiak".

Erre ez, egosi

Kalkulatu dute guztira 36 tona egur ekarri dituztela basotik kamionetan. Gehiena, 25 bat tona, erabili dute txondorra egiteko; gainerakoa, adibidez,

etxolarako, bete-lanak egiteko eta su-egurretarako izango da, jatorduak egiten erabiltzeko, kasu. Txondor barruko egurra egosi egingo da denborarekin, bizpahiru aste beharko ditu erabat egosteko, eta gero aterako dute ikatza. Ikazkinen esanetan, lau edo bost tona egurretik tona bat ikatz ateratzen da. Ikatza ateratzeko puntuan noiz dagoen jakiteko txondorrari berari begiratu behar zaiola dio Sagarzazuk; hark ematen ei ditu argibideak horretarako: "Txondorra bera txikitzen joaten da, adibidez, zuritzen ere bai, eta kolore urdineko kea botatzen hasten da gero".

Garai batean ikatza erabiltzen zuten fabrika askok lanerako. Egun, ez da horrelakorik, baina ikatza erabiltzen da, gastronomian, esaterako, eta parrilladak egin gura dituztenei edo interesa duten elkarteei saltzea da gero asmoa. Lortutako dirua Gure Bazterrak taldeak hurrengo egingo duen proiekturako izango da.

Ikazkin motak

Ofizios ikazkinak zirenak bazi-eren garai batean. Beste batzuek,

KALKULATU DUTE 36 TONA PAGO EGUR ERABILI DITUZTELA; TXONDORRA ETA ETXOLA EGIN DITUZTE

Ekaineko egitaraua

Ekainak 1

- **Txondorra piztu**, eguerdian. Musika, dantza herrikoiak, jatekoa eta edatekoa, umore ona eta antzinako ezagutzen transmisioa.

Ekainak 8

- **Bertso emanaldia** Eñaut eta Unai Agirre anaiek: *Auskalo zeinek jarriak bertso zaharrak eta berriak.*

Ekainak 16

- **Txondor bazkaria** lanean ibili diren boluntarioek.

Txondorra piztuta dagoen bitartean

- **Txinparta** bertso eskolako gazteen saioak, martitzenetan.
- **Zaintzak** egiteko herritarren 24 orduko txandak –izen-ematea: Arrano taberna–.
- **Bisita gidatuak**, zapatuetan, 11:00etan.
- **Tertuliak**, zuzeneko musika eta bestelako ekintzak ere antolatuko dituzte.

aldiz, txanpon batzuk irabazteko egiten zuten ikatza, nekazaritza lanen osagarri. "Ogibide-tzat zutenen kasuan, esaterako, *ogibidea* hitza oso ondo dator hor; izan ere, trukean irina jasotzen zuten eta ogia egiten zuten etxerako eta langileendako. Baserritarrek, berriz, udazkenean egiten zituzten, normalean, garia jota edo ardiak menditik etxera jaitsita zituztenean. Auzotarren artean lauzpabost txondor egiten zituzten, kuadrillan, bizilagunak batuta. Normalean, zortzitik hamaikara bitarteko kuadrillak izaten ziren, baso lanean eta zaintzan ere lan egiten zutenak. Gu ere kuadrilla polita elkartu gara hemen".

Urtean zehar egindako irteeretan eta hitzaldietan jende asko batu delako pozik daude ekintzaileak. Auzolanerako gutxiago elkartu dira, akaso,

baina batzuek errepikatu egin dute, behin baino gehiagotan joan dira. Parte hartzaileen artean, gainera, oñatiarrak ez ezik antzuolarrak ere baziren, adibidez.

Orain ere deialdi irekia egin dute zapatuko ospakizun festan parte hartzeko. Goizuetatik etorriko dira erreperatu duten zahagi dantza egitera, adibidez. Eurengana joan ziren hemengoak ere proiektu honen hasieran, eta eskertuta daude Txondorraren Bueltan ekimean parte hartu dutenak, euren laguntzagatik. Dantzarekin batera musika ere egongo da, baita jatekoa eta edatekoa ere, eta testu bat irakurriko dute. Gainera, hemendik aurrerako zaintzak egiteko gonbidapena ere egingo dute: "Bi txanda egongo dira: 17:00etatik 21:00etara eta 21:00etatik aurrerakoa. Gura duenak aukera izango du gaua bertan pasatzeko ere, etxola barruan ez bada ermita barruan". Arrano tabernan eman behar da zaintzarako izena.

Erakusketa ermita barruan

San Martingo ermita barruan argazki erakusketa bat jarri dute ikusgai, prozesu osoaren pausoak ikusteko. Argazkiekin batera, hiztegia ere bai; izan ere, ikazkintzako hitz propioak berreskuratu dituzte. Ikazkinen langintzari omenaldia egiteaz gain, ikasi ere egin dutela diote eta: "Ikazkin lanetan edo baso lanetan aritzen zirenak eskola gutxikoak izaten ziren, normalean, baina neurriak begiradarekin eta kalkuluak buruz hartzen zituzten; ondo, gainera. Eta bazuten hiztegi propio bat ere, jakina".

San Martingo zuhaitzian, ermitaren atzeko zelaitxoan dago txondorra, "leku paregabea", ekintzaileen esanetan. Ikazkinen ogibideari buruzko jakintza ez ezik, basoak gizakiari eman dionaz hausnartzeko ere balio duela proiektu horrek diote, "asko" eman diolako, "baserriak, itsasontziak edo ikatza, adibidez". Bide batez, zuhaitzia zainatzeko dei ere egin dute.

ERMITA BARRUAN ERAKUSKETA BAT DAGO, ARGAZKIEKIN ETA IKAZKINEN OGIBIDEKO HITZEKIN

Txondorraren prozesua



Txondorraren hasiera, barruan dagoena. GOIENA

1. Alkatea edo *fraila* esaten zaio txondorraren erdiko puntuari, eta hori zein izango den zehaztu eta haren bueltan egurrak jarrita markatu dute barruko neurria: 2,5 metroko erradioa, bost metroko diametroa. Maiatzaren 15ekoa da argazkia.



Txondorra, forma hartuta. GOIENA

2. Metro inguruko egur zatiak eta motzagoak egin dituzte. Horiek kolokatzen hasita eman diote forma txondorrari. Egurraren eta kanpoko lurraren artean orbela sartuko dute, lurra ez dadin bitartetatik barruraino sartu. Maiatzaren 23ko argazkia da hori.



Txondorra eta etxola, bukatuta. GOIENA

3. Txondorra bukatuta. Gainean lurrezko estalkia jarrita, sei metroko diametroa hartu du. Goitik hasiko dira betegarriak eta brasa botatzen zapatuan, eta txondorrak berak emango ditu argibideak ikatza ateratzeko prest noiz dagoen jakiteko. Maiatzaren 28ko argazkia.



NIRE USTEZ

ASIER UGARTE IMAZ

Espazio seguruak

Pertsonok sentimendu ugariaren itsasoan bizi gara. Batzuetan, barealdian daramatzagu eta gure kabuz kudeatzeko gai gara, kontrako korronterik egongo ez balitz bezala, igeri egiteko gai. Beste askotan, ordea, olatuak handiegiak balira bezala, laguntza beharra izaten dugu, espazio seguru bat, entzunak izango garen igerileku bat. Nire kasuan, familiak eta lagunek eman ditzaketan espazioak bilatu izan ditut emozioak azalerratu eta askotariko egoerei aurre egiteko, eta eskertuta nago, ondoan izan ditudalako, igerian jarraitzen dudalako, irmo, behar ditudan heldulekuen jakitun orain. Hala ere, susmoa dut askok ez dituztela halako espazioak aprobetxatzen, zenbait aurreiritzi tarteko. Momenturen batean gelditu gura izatea, arnasa hartzea eta norbere buruaz hausnartzea, etengabe murgilduta gauden itsasotik bizirik ateratzeko era bat izan daiteke. Atsedean hartzeko inguru bat bilatu, barrua askatzen saiatu eta zama arintzeko erabakia hartzea erabaki ausart bat da, epaitua izateari beldurra galtzea bezainbat.

EAJK "langilearekiko begirune falta" egotzi dio Udal Gobernuari

EAEko Auzitegi Gorenak emandako epaiaren harira egin dituzte jeltzaleek adierazpenak astean

O.E.G. OÑATI

EAJren udal taldeak "gardentasunik eza eta kaleratutako langilearekiko begirune falta" egotzi dizkio Udal Gobernuari eta "aurretik zuen lanpostu finkoa utzi eta Oñatiko Udalean lanean hasi eta hilabetera kaleratze desegokiari aurre egin behar izateagatik" adierazi dio elkartasuna. Eta EH Bilduren Udal Gobernuari buruz esan du ez duela "inolako arretarik eta begirunerik" izan langile horrekiko eta ez dela "langilearen ondoan" egon. Epaiaren osteko balorazioa ere soilik Go-

bernuarena dela esan du, eta gaineratu "kudeaketa txarrak" eragin duela "kontratazio akats tamalgarria", ondorioz "langilea kaleratzea eta itzelezko kalte-ordaina ordaindu behar izatea, Oñatiko Udalaren diru-kutxaren kaltetan".

Udal Gobernuak "harriduraz" hartu du EAJren prentsaurrekoa, "horrelako gai bat politika egiteko erabili duelako jakinik gertakariak ez duela zerikusirik jarduera edo erabaki politikoe-kin. Ez dugu uste ebazpen honek bide hori jarraitu behar duenik".

Gune historikoaren biziberritzeaz arituko dira eguenean

Hirigune historikoen biziberritzeaz egingo dute berba datorren eguenean Oñatin, Gipuzkoako lurralde eta hiri-ereduaren etorkizunaren inguruko hausnarketarako eta eztabaidarako VII. jardunaldiaren barruan. Lau arkitekto etorriko dira hirigune historikoen inguruan berba egitera. Ekainaren 6an da ekitaldia, 18:30ean, zinema-aretoan.

Nadia Ghulam afganiarra dator martitzenean

Nadia Ghulam aktibista eta idazle afganiarra etorriko da Oñatira datorren astean, eta hitzaldia egingo du, Afganistango egoeraren eta bertako emakumeen eskubideen inguruko. Erei elkarteak eta Hotz Oñatik antolatutako ekitaldia da. Hitzaldia ekainaren 4an, martitzena, izango da, kultura etxean, 19:00etan.



San Migel, prozesioan, apostoluak eta kofradiako kideak ondoan dituela. GOIENA

Gaur hasiko dira Corpus jaiak, ohiko ekitaldiekin

Jesus Irizar 'Txutxin'-ek maite zuen zorroztasunarekin egingo dute prozesioa eta horrela omenduko dute gidari izan zena. Oñatz dantza taldeak gura duten beste herritar hartuko ditu domekako soka dantzan, maisu-dantzariari eskerrak emateko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Badira egun batzuk San Migel parrokiako kanpaiek Corpuse-tako doinua jotzen hasi zirela, jaiak iragartzeko. Eta heldu dira. Asteburu honetan ospatuko dira, gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean. Hiru egun baina egitarau betea, adibidez, Oñatz dantza taldeko kideendako. Dantzariak, Corpus dantzak,

dira jaien ezaugarri nagusia, eta aurten ere ospakizuneko parte izango dira, ohiko agerraldiak jasotzen ditu-eta egitarauak.

Egubakoitz goizean hasita

Unibertsitatearen aurrean egingo dituzte lehen dantzak gaur, 09:00etan, eta handik joango dira gero, hainbat talde eginda, baserrietara, herriko ikastetxee-

tara eta kaleko auzoetara. Zapatu goizean plazan eta kaletan egiten dituzten dantza saioek izaten dira Corpus dantzak ikusteko momenturik kuttunena herritar askorendako, eta aurten ere bilduko da jendea han. Prozesioa domekan egingo da; txistulariekin eramango dituzte santuen irudiak parrokiara eta prozesioan parte har-

tuko dute meza ostean. Azken saioa domeka arratsaldean egingo dute, plazan, eta han egingo diote keinu Jesus Irizar *Txutxin* dantza-maisuari, herritarrekin batera. "Bederatzi herritar atera beharrea, irekia izango da soka eta parte hartu gura duen edonor sartu ahal izango da dantzara. Honekin gura duguna da sokaren sinbologia kontutan edukita denok elkartu eta berari eskerrak ematea egindako lanagatik", diote Oñatzeko dantzariak.

Kofradeak ere prest daude

Kofradiako kide ere bazen *Txutxin*, hura zen gidaria, eta omenaldirik onena guztia hark erakutsi bezala egitea izango dela adierazi du presidenteak, Manu Egañak: "Dena egin behar den moduan egitea da *Txutxin*-i gehien gustatuko litzaiokeena, eta horretan saiatuko gara".

Domekako prozesioan hartuko dute parte kofradiako kideek. San Migelen irudia zaharberritu dute aurten, anderoendako kuxin berri batzuk erosi dituzte eta ileordeak gordetzen dituzten kaxetako forruak ere aldatu dituzte. Andero edo kofrade ateratzen direnetako batzuk min hartuta daude, eta ordezkoez hartuko dute euren lekua. Aurpegi berriak ere ikusiko dira, horrenbestez, prozesioan.

Bestalde, urteroko eskubaloi txapelketa ere jokatu da aurten Zubikoan eta keinu bidezko antzerkia ere egongo da plazan: *Grimm anaien parkea*.

Goiena telebistan ikusgai

Goiena telebistak tarte berezia eskainiko die Corpus jaiei datorren asteleheneko *Hemen Debagoiena* saioan: 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan.

Egitaraua

Maiatzak 31

- **09:30** Dantzariak landa-auzoetan.
- **14:30** Dantzariak ikastetxeetan eta kale-auzoetan.
- **19:00** Txorimaloak eta erraldoiak kaleetan zehar.

Ekainak 1

- **09:00** Dantzak plazan. Ondoren, herriko kaleetan.
- **10:00** Corpuseko eskubaloi txapelketa goizean eta arratsaldean.
- **18:00** *Grimm anaien parkea* keinu bidezko antzezlan plazan.

Ekainak 2

- **09:00** Aita Madina txistulari taldekoen goiz-eresia.
- **10:00** Musika bandaren eresia eta irudiak parrokiara eramatea.
- **10:45** San Migelen irudia parrokiara iritsiko da.
- **11:00** Meza nagusia Oñatzeko dantzariarekin.
- **12:00** Prozesioa. Ondoren, musika bandaren kontzertua plazan.
- **17:00** Barraketan soinuak ez bi orduz.
- **18:15** Dantzarien eta txistularien emanaldia plazan –giro txarra bada, Zubikoan–.
- **19:00** Dantzaldia musika bandarekin parrokia aurrean.



AKER • ALDAPA • GAROA • ETXE AUNDI • SORALUZE • TXOPEKUA • URTIAGAIN



Parrokiaren alde batean uzten dituzte santuak, prozesioan ateratzeko. GOIENA

Irudi bakoitzak bere tokia du prozesioan

Dantzariekin batera eramaten dituzte prozesioan parte hartuko duten irudiak San Migel parrokiara, eta txistularien doinuekin batera sartzen dira barrura. Zehaztuta dago zein irudi zein ordutan eta nondik eraman behar duten elizara

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Goizeko hamaiketako mezaren ostean, eguerdian hasiko da prozesioa, domekan. Guztira, hamabost figura ateratzen dituzte anderoek eta herriko kaletan zehar eramaten dituzte hamabi apostoluak eta San Migelekin batera, kofradiako kideek lagunduta.

Ohikoak izaten dira anderoak

Kofradiako kideak dira prozesioaren ardura dutenak. Denak du bere ordena, lekua eta ordua, eta hori gauzatzeko egiten dute ahalegina, dena ondo atera dadin. Horrela, hamabost kaxatan gordetzen dituzte prozesioan erabiltzen dituzten ileordeak, kapak, maskarak eta bestelako osagarriak gordetzeko. Santa Ana komentuan egoten dira kaxak eta domekarako denak Santa Anan egoteaz arduratu behar dute. Aurten, hain zuzen ere, berriro egin dituzte kaxa horietako forruak.

Anderoek erabiltzen dituzten kuxinak ere horrelako kaxetan egoten dira, eta banatu egiten dituzte, gero, irudiak bizkar gainean eraman behar dituzten artean. Ohikoak izaten dira anderoak, baina urtero egoten da bajaren bat, eta, normalean ordezkoa euren artean bilatzen

badute ere, kofradeen ardura da behar den andero kopurua ziurtatuta egotea. Andero gehienak gizonezkoak diren arren, ez denak. Neska gazte batzuk ere hasi ziren andero duela urte gutxi, adibidez, eta aurten ere haiek aterako dute Pragako Jesus haurra.

Parrokiara irudiak

Prozesioko irudiak herriko hainbat gunetan gordetzen dira, han egoten dira urtean zehar, eta domeka goizean gerturatzen dituzte kalera, Aita Madina txistulariekin eta Oñatzeko dantzariekin batera parrokiaraino eramateko. Barruan egoten dira

mezak irauten duen bitartean, eta gero ateratzen dituzte prozesiora. Ezarrita dago zein irudi nondik eta ze ordutan eramango duten San Migel parrokiaraino, eta ezarrita dago prozesioan zein zeinen ondoren aterako den. Horrela, parrokiako gurutzearen ondoren doan

lehen irudia Arantzazuko Ama Birjinarena da. Bigarrena da San Kristobal –prozesioko berriena– eta Aozarazako Mikel hirugarrena. Haren ondoren doaz: Ama Sortzez Garbia, San Isidro, San Martin, San Roke, San Krispin eta Krispiano, San Juan Bataiatzailea, San Jose, San Sebastian, San Migel Goiaingerua, Errosarioko Ama eta Pragako Jesus haurra. Prozesioko azken irudia San Frantzisko da.

Domekan euria egiten badu, parrokiara barruan egingo dute prozesioa, joan den urtean gertatu zen moduan, eta han ere errespetatuko da irudien ordena. Irudiekin batera joango dira hamabi apostoluak, sei alde bannatan, eta tarte horretan joango dira San Migel –parpaila berriak izango ditu aurten–, Maria eta Kristoa. Dantzariak, txistulariak, bandakoek eta beste parte-hartzaileek ere euren egoteko tokia eta momentua dute prozesioan.

ARANTZAZUKO AMA BIRJINA DA PROZESIOKO LEHEN IRUDIA ETA SAN FRANTZISKO AZKENA

Irudiak parrokiara eramateko ordutegia

Irudia	Egon lekua	Irteera lekua	Ordua
Arantzazuko Ama Birjina	Trianako behea	Trianako behea	10:05
San Kristobal	Olabarrieta auzoa	Gomendio etxea	10:25
Mikel Aozaraza	Triana behea	Triana behea	10:05
Ama Sortzez Garbia	Galartza etxea	Galartza etxea	10:30
San Isidro	Kasablankako ermita	Kurtzekuan	10:25
San Martin	San Martingo ermita	Gomendio etxea	10:15
San Roke	San Martingo ermita	Gomendio etxea	10:05
San Kripin - Krispiano	San Estebango ermita	Dukearen etxea	10:25
San Juan Bataiatzailea	Gomendio etxea	Gomendio etxea	10:05
San Jose	Trianako behea	Trianako behea	10:15
San Sebastian	Trianako behea	Trianako behea	10:15
San Migel Goiaingerua	Santa Ana antzokia	Udaletxea	10:45
Errosarioko Ama	San Migel parrokiara	San Migel parrokiara	11:00
Pragako Jesus Haurra	Dukearen etxea	Udaletxea	10:45
San Frantzisko	Bidaurreta komentua	Euskadi etorbidea	10:15

ITURRIA: APOSTULATUKO KOFRADIA

Haizeak zabaldu ditzala krisketaren hotsak

KORPUS EGUNA

EKAINAK 2 OÑATI

San Migel Goiaingerua zaharberritu egin dute

XIX. mendeko egurrezko irudia da San Migel Goiaingeruarena, eta Xabi Mendizabal zaharberritzaile oñatiarrak egin ditu zaharberritze lanak, Zubillagako tailerlean. Apurtuta zeukan ezpata konpondu dio eta bestelako lan batzuk ere egin dizkio

Amaia Txinturreta Guridi OÑATI

San Migel Goiaingeruaren irudia Corpus egunean ateratzeaz gain, Oñatiko San Migel patrioiaren egunean ere –irailaren 29an– ateratzen dute kalera. Iazko irailaren 29an ezpata apurtu zitzaion, eta Corpusetako kofradiakoek ezpataren lotura hobetu nahi izan dute –zatitan apurtuta gelditu zelako–, eta, hori konpondu behar zenez, irudian ageri diren aingeruaren eta deabruaren arteko lotura ere konpondu nahi izan dute, solte samar zegoelako.

Orain arte, Gasteizko Croma enpresak egin izan ditu Oñatiko irudien zaharberritze lanak, baina oraingoan, kontuan izanda Xabi Mendizabal oñatiarra herrian dagoela eta zaharberritzailea dela, harengana jo zuten. Hala, hark egin ditu irudiaren zaharberritze lan guztiak, Zubillagako tailerlean.

Mendizabalek dio San Migel Goiaingeruaren irudia tamaina errealean egiteko eskaria Udalak egin zuela bere garaian, herriko patrioiaren irudi bat nahi zuelako, eta ez dakitela zehazki nork egin zuen, baina egurrez egindako XIX. mendeko irudi bat dela zehaztu du. Gaineratu du ez dela oso ba-



Xabi Mendizabal, San Migel Goiaingeruaren irudia zaharberritzen. XABI MENDIZABAL

liotsua eta askotan gainetik pintatu izan dela, denborarekin irten zaizkion inperfekzioak zuzentzeko.

Egindako lanak

Martxotik apirilera bitartean izan da irudia Mendizabalek horretarako zehazki egokituta duen Zubillagako tailerlean, eta hainbat lan egin dizkio: "Hasteko, hainbat zatitan apurtuta zegoen ezpata konpontzeko eskaera jaso nuen, eta, horrez gain, aingeruaren eta deabruaren arteko lotura ere hobetu diot. Bestelako pieza asko ere solte zeuden, esaterako, behatzak eta hegoen zatiak, eta horiek ere bere lekuan jarri ditut. Baina ez hori bakarrik, polikromian edo pinturan zeuzkan galera guztiak ere berregin ditut. Irudia sortzerakoan erabili zen teknika bera jarraituaz egin dut lan hori: urreztatuta egin dut. Urre- eta zilar-xaflak jarri dizkiot". Artistak Londresen ikasi zuen teknika hori; han asko erabili zuen, gainera, eta hori aplikatu du San Migel Goiaingeruaren irudian ere.

Gaineratu du irudian ez dela alde nabarmenik lehen nola zegoen ikusita eta oraingoarekin alderatuta, baina bai lortu duela guztia ondo osatuta gelditzea.

Aurrera begira irudian beste lan batzuk ere egin daitezkeela azaldu du: "Lanean nembilela bai konturatu naiz birpintatuta dagoela. Normala da urteak pasa ahala irudi hauek gainetik pintatzea, zaharberritzaile bategana jo gabe. Baina ikusi dut birpintatuta dauden zati batzuen azpian badagoela polikromia edo pintura polita; orduan, kofradiakoei proposatu nien San Migel jaiak pasata tailerrera ekartzeko berriro

beste zaharberritze bat egin ahal izateko irudiari".

Urtean zehar Santa Ana antzokian egoten da gordeta irudia, eta bertako baldintzetara moldatu behar izan du tailerra Mendizabalek, baina zehaztu du ez duela aldaketa handirik egin beharrik izan eta egonkor egon dela haren tailerlean.

Pozik egindakoarekin

Oñatiarrak dio oso pozik dagoela egindako lanarekin: "Oso emoziozantea izan da txikitatik ikusi izan dudana santu bat nire tailerlean izatea. Izan ere, Londresen egon naiz, Ingalaterran, beste hainbat lekutan... eta gauza asko egin ditut, baina, azkenean, bertako gauzak daukazunean oso espeziala da; batez ere, Oñatiko patroia delako eta betidanik izan dudana nire ilusio horretan egon delako. Nire buruko amets horiek zaharberritzeko aukera izan dut eta horrelako bat nire etxean egotea bakarrik oso emoziozantea da".

Corpus jaiak, bereziak

Modu oso berezian bizi ditu, gainera, egun hauek Oñatiko artistak: "Nire izaeran inpaktu handia dute txikitatik Corpus jaiak; izan ere, Corpusek sortu didate irudiekiko nire atrakzioa edo lilura. Bai erraldoiek eta bai santuek dutena da hori, mugimenduarekin bizia hartzen dutela. Espektakulu teatral horrek asko markatu nau".


POLIKROMIA EDO KOLOREA HOBETZEKO, IRUDIA SORTU ZENEAN ERABILITAKO TEKNIKA BERA ERABILI DU

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Ondo pasa Corpus jaiak!



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

amaia igartua ARKITEKTURA

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57 * amaia@aiarkitektura.com



Julen Kortabarria, Santa Ana antzokian, San Migelez janzten, hari bizia ematen irten zen azkeneko aldian, 2022an. IMANOL SORIANO

Julen Kortabarria irtengo da San Migel jantzita

Laugarren urtez emango dio bizia Julen Kortabarria San Migel pertsonaiari Corpus eguneko prozesioan. Dagoeneko guztia prest dute eta probatu dituzte arropak eta 30 kiloko armadura. Mirari Lizaurren, berriz, Mariaren paperean estreinatuko da aurten

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Corpus eguna barrutik biziko du, beste urte batez, Oñatzeko dantzari ohi Julen Kortabarria. Aurrez, 13 urtean irten izan da prozesioan dantzari, eta aurten, laugarrenez jantziko da San Migel. Bi urtean behin, txandaka, irteten dira Kortabarria eta Ibai Gonzalez San Migeli bizia ematen. Eta aurtengo prestake-

ta lan guztiak egin dituzte dagoeneko.

Izan ere, duela gutxi, Corpusetako materiala gordetzen duten Santa Ana komentuan izan zen Kortabarria, San Migelen arropak eta 30 kilo pasako armadura probatzen. Guztia haren neurrira jarri zuten, domekan Santa Ana antzokian jendaurrean janzteko dena prest izateko. San

Migeli janzten laguntzen izaten dira Marilo Unzurrunzaga eta Mirari Lizaurren, eta nabarmendu dute zailena dela armadura gorputzera ondo egokitzea. Kortabarria gaineratu du, batez ere, kaskoa ondo lotuta izatea dela garrantzitsuena: "Armadura baino gehiago, garrantzitsua da kaskoa ondo lotuta izatea, batez ere, San Migelek buelta

eman behar izaten dituen momentu horietan, ezer ez mugitzeko. Kaskoak berak pisu handia dauka, eta bueltako momentua izaten da konplikatuena. Kaskoa ondo lotuta baldin badago, ez da inongo arazo edo konplikaziorik egoten".

Jendaurrean janzten

Prozesio aurretik, Santa Ana antzokian herritarrek aukera izaten dute ikusteko apostoluak, Jesus eta San Migel nola janzten diren eta nola jartzen zaizkien guztiei maskarak eta aurrez Maribi Korkostegik ondo orraztutako ileordeak. Aurten, San Migelek, gainera, paparrerako bordatu berriak izango dituen parpailak estreinatuko ditu. "Beste atrakzio bat da une hori. Polita izaten da eta ulertzen dut sekula ikusi ez duenak edo Corpusen berri jakin nahi duenak ikusi gura izatea", adierazi du Kortabarria.

Mariaren pertsonaian

Aurten, hirugarren urtez arituko da orri honetako argazkian San Migel janzten makurtuta azaltzen den Zilaurren, San Migel janzteko lanetan, eta beste zeregin garrantzitsu bat ere izango du oraingoan; izan ere, prozesioan, apostoluen erdian eta San Migelen atzetik joaten den Maria pertsonaiaren paperean irtengo da lehendabizikoz. Hark ez du maskararik-eta eramaten, eskularru zuriak eta makila luze bat eramaten ditu eskuan, haren gainean ama birjinaren medailoi bat daramana. Zilaurrenentzat oso berezia izango da domekako eguna: "Aitarentzat Corpus eguna garrantzitsua zen, urte askoan irten zen apostolu, eta harendako oso-oso egun inportantea zen,

urteko garrantzitsuena. Hil zenean, ama sartu zen kofrade baina inoiz ez zen prozesioan atera. Gero, niri eskaini zidaten eta baiezkoa eman nuen. Azken bi urteetan kapa beltzarekin irten izan naiz kofrade prozesioan, eta aurten, Mariaren paperean estreinatuko naiz. Kofrade irten nintzen lehenengo urtean ere barruak buelta eman zidan, eta domekan ere barruak mugituko zaizkit eta aita izango dut gogoan, gogor-tzen txikitzen nola bizi izaten genuen egun hau etxean".

Egun berezia

Bai Kortabarriaentzat eta baita Zilaurrenentzat ere egun berezia izango da domekako. "Egia esan, momentuz, nahiko lasai nago, urte askoan irten izan naizelako prozesioan. Alabari esaten bagabiltza nola irtengo naizen, eta apur bat imajinatzen du. Eta familian ere, amarentzat, esaterako, egun berezia da. Dantzari ibilitako urteetan arropekin bera arduratzen zen, eta pentsatzen dut etxeokok ilusioz biziko dutela", dio Kortabarria.

Zilaurren ere gogotsu dago domekarako: "Ama antzuolarra zen eta ohitura zuen egun honetan haren familiakoak gure etxera bazkaltzera gonbidatzeko. Urtero izaten genuen etxea jendez beteta, eta gaur egun ere ohitura hori mantendu egiten dut eta etxera etorriko dira Antzuolako familiartekoak guztiok batera bazkaltzeko".

**HAINBATETAN
APOSTOLU ATERATAKO
LUIS AITA IZANGO DU
GOGOAN
ZILAURRENEK**



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Ondo ibili!!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

130.000 euro behar ditu Ointxe!-k mailaz igotzeko

SASKIBALOIA Ointxe! taldeak igoera historikoa lortu zuen joan den asteburuan Granadan: LF2ra, Espainiako hirugarren mailara. Hala ere, 130.000 euro behar ditu maila horretan jokatzeke, eta, diru hori lortzeko, atak jotzen hasiko dira

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Ointxe! taldeko emakumeek igoera historikoa lortu dute LF2 ligara, baina txartela lortzea ez da nahikoa. Maila horretan lehiatzeko klubaren diru-sarreak ez dira nahikoak. Tenerife, Valladolid, Coruña, Castello, Lleida eta Mallorcako klubekin lehiatuko dira LF2 ligan, eta bidaiak-kostuak eta Federazioko kostuak esponentzialki haziko dira. Hain zuzen ere, 130.000 euro lortu beharko dituzte hiru astean erronka berriari aurre egiteko. Hala ere, maila horretan lehiatzea mugarri bat izango litzateke bailaran, eta, *Guk sinisten dugu: amets bat, aukera bat* lelopean, erronkari aurre egin nahi diote.

Taldea eta zuzendaritza ados
Hala ere, kirol-merituen bidez lortutako plaza eskuratzeko borondatea dutela azpimarratu dute taldekideek. Ilusioz daude jokalaria, eta zuzendaritzako kideek hori ikusita dirua lortzeko bideei ekin diete. Izan ere, jokalariek kantxetan lan ona egin ostean, bulegoetan egin beharko dute lan orain zuzendaritzako kideek. Erakunde publikoei, tokikoei, eskualdekoei eta Gipuzkoako bidelagun izan daitezten eskatu diete.

Ate joka dirua batzeko
Astelenean zuzendaritzako bilera izan zuen Ointxe!-k, eta, Oihane Agirrek Ointxe!-ko presidentea azpimarratu duenez, behar duten dirua lortzeko atak jotzen hasi dira dagoeneko: "Jokalaria aurrera egiteko prest daude; beraz, gu ere prest gaude. Aurrekontu bat egin dugu eta bi ate jo beharko ditugu. Batetik, erakundeak. Aretxabaletako eta Arrasateko alkateekin egon gara, eta ikusten dugu bidelagun izango direla. Horrekin batera, Gipuzkoako atak ere jo nahi ditugu, diru kantitate handia delako. Eta, bestetik, ate pribatuak ere joko ditugu".

Lehiatzea ez da helburu bakarra
Asteon, egoeraren berri emateko komunikabideei deite egin die Arrasateko saskibaloit talde-

"INPLIKAZIO HANDIAGOA ESKATUKO DIGU, BAINA JOKALARIOK GOGOZ GAUDE"



IZAR BEDIA
OINTXE! SASKIBALOI TALDEKO KAPITAINA

ko kideek, eta, klubaren bulegoan, taldea LF2 mailan –Espainiako hirugarren maila– lehiatzeko gai dela azpimarratu du Iñaki Ogaran *Arri* entrenatzaileak, eta jokariengan sinisten duela gaineratu. "Lehiatu baino gauza gehiago egin ditzake talde honek. Liga berrian disfrutatzea ere bada asmoa, lanean jarraitzea, eta azken urteotan egin dugun lan ona ekiten jarraitzea. Gure helburuak, taldearenak, eta klubarenak ez du soilik lehiatzea izan behar. Liga hau ezagutzea eta gero beste urrats batzuk egitea da asmoa, neska hauek ez baitute goia jo oraindik", adierazi du Iñaki Ogaran *Arri* entrenatzaileak.

Jokalaria ilusioz daude
Ointxe!-ko jokalaria pozik daude lortu duten igoerarekin.

"LEHIATZEA EZ DA HELBURU BAKARRA, NESKA HAUEK EZ BAITUTE GOIA JO ORAINDIK"



IÑAKI OGARAN 'ARRI'
ENTRENATZAILEA



Ointxe!-ko jokalaria, entrenatzailea eta presidentea batuta. XABIER URTZELAI

Hala ere, jakitun dira erronka berri baten aurrean daudela eta euren aldetik esfortzu berezia egin beharko dutela. Haxe dio Iñarribe Bedia, Ointxe! saskibaloit taldeko kapitainak: "Pozik gaude jokariok, baina badakigu mailaz igotzeak inplikazio handia eskatuko digula. Granadaraino joan gara fase bat jokatzen, baina dirua lortzen bada eta maila berria bi astetik behin kanpora joan beharko bagenu, kilometro ugari egin beharko genituzke, eta gure partetik inplikazio handiagoa jarri beharko dugu.

"BERTAKO ERAKUNDEEN ATEAK, GIPUZKOAKOAK ETA PRIBATUAK JOKO DITUGU"



OIHANE AGIRRE
OINTXE!-KO PRESIDENTEA

Ikusiko dugu inplikazio hori mantentzen dugun. Momentuz, baiezkoa da jokalarien partetik; beraz, aurrera. Jokalari bakoi-tza bizitzeko une ezberdinetan dago: batzuk lanean, beste batzuk ikasten, seguruenik gehiago entrenatu beharko dugu... Hala, exijentzia maila bera ere igo egingo da".

Merezi dutelako, orain da unea
Duela hiru urte, Ointxe!-ko gizonetakoek lorpen bera izan zuten, baina uko egin behar izan zioten mailaz igotzeari. Hala, Ointxe!-ko klubak ez du historia errepikatzerik nahi. Urteetan emakumezkoen saskibaloian egin duten lanean sinisten dute, eta ez direla beldurtuko erronka berri honen aurrean adierazi dute. "Badakigu ez garela laguntza behar duten bakarrak, baina ziur gaude emakumeen kirolean inbertitzea gizarte bidezkoago batean inbertitzea dela. Uste dugu aurkezten dugun aukera diferentziala dela eta orain dela momentua".

Intxortako ralliesprintean bailarako hamar pilotu izango dira

AUTOMOBILISMOA San Kristobalen hasi, Angiozartik pasatu eta Asentziorako bidea hartuko du, eta Kanpazarren amaitu

I.B. ELGETA

Zapatu honetan, 12:30ean hasita, Intxortako lehenengo ralliesprinta izango da Angiozar eta Kanpazar artean. Antolatzailea A+gas taldea da, Mendi Mendia Racing taldearen laguntzarekin,

eta sarrera hamar euro ordaindu beharko da.

Parte-hartzaileen zerrendan 42 pilotu daude, euren kopilotuekin batera. Pilotu debagoien darrak hamar izango dira; honako hauek: Gorka Idigoras

(Eskoriatza), Ander Sarrao (Bergara, Angiozar), Iñigo Errasti (Bergara, Angiozar), Mikel Beretxinaga (Elgeta), Unai Jurado (Eskoriatza), Jose Ferreira (Eskoriatza), Alex Calzon (Aretxabaleta), Monika Muñoz (Oñati), Gorka Markez (Bergara) eta Aimar Arriolabengoa (Aramaio). Pilotu horien artean azpimarratzekoa da Gorka Markez pilotua aurtengo denboraldian estreinatuko dela eta Aimar Arriolabengoa, berriz, junior kopa irabazitakoa dela.



Mikel Beretxinaga elgetarra, aurtengo Gorkako igoeran. IMANOL SORIANO



Aloña Mendiko jokalariek eta entrenatzaileak, Ostadarren aurkako kanporaketaren aurreko entrenamendu batean. MIREIA BIKUÑA

Azkoagain erabakigarri, urteko garrantzitsuenean

FUTBOLA Ohorezko Erregional Mailara zer talde igoko den erabakiko da zapatuan, 17:00etan, Azkoagainen. Joaneko partiduan 2-2 berdindu ostean, irekita dago kanporaketa eta Aloña Mendik zein Ostadarrek dituzte igoera lortzeko aukerak

Julen Murua Mesonero OÑATI

Azken urratsa besterik ez zaila gelditzen Aloña Mendiri Ohorezko Erregional Mailara igotzeko txartela eskuratzeko. Aurreko astean gertatu bezala, Lasarteko Ostadar taldea izango du aurkari Gotzon Urzelaik zuzendutako taldeak, baina oraingo honetan aldagai erabakigarri bat izango du neurketak: Azkoagain. Zozketa bidez erabakita, kanporaketako lehenengo partidua Lasarten jokatu zuten, eta, txantxikuarrak 0-2 aurretik egon ostean, bina berdindu zuen partidua etxeko taldeak. Orain, berriz, Aloñak izango du etxean jokatzeko abantaila, eta Auritz eta Joseba Larrea kapitainek diote "Azkoagain sutan" ikusi nahi dutela asteburuan. Izan ere, esku artean du Oñatiko taldeak igoera, eta "garaipena etxean lortzea baino ezer hobea" ez dagoela diote Larrea anaiek.

Guztia erabakitzeke

Azkoagaingo partidua etxeko lan guztiak eginda jokatu nahi zutela aitortu zion joan den astean Ander Irizar jokalarik txantxikuarrak GOIENARI, eta, helburu hori gertu izan bazuten ere, joaneko partiduko emaitzak kanporaketa guztiz irekita utzi zuen. Bi goleko errenta lortu zuten oñatiarrek lehenengo za-

lian, baina, atsedenditik bueltan, partidua berdintzea lortu zuen Lasarteko taldeak, kórner bidezko bina golekin. Gertatutakoa ikusita, Auritz Larreak dio "tentsio handiko partidua" izango dela eta "gauza txikienez garrantzi handia" izango dutela. Horrez gain, gehitu du taldea "momentu oso onean" dagoela eta "markagailuan aurretik jartzea oso garrantzitsua" izango dela "kanpoan sartutako golekin duten balioa dela-eta, emaitza ona" ekarri zuten-eta Lasartetik.

Bestalde, Joseba Larreak azpimarratu du "urte osoko joko estilo berbera" erakustea izango dela kanporaketa irabazteko gakoetako bat, horrek eraman

baitzuen Aloña "joaneko partiduan 0-2 irabazten jartzera".


Zaleei deia

Denboraldiko partidua garrantzitsua etxean jokatu du Aloñak, eta, neurketak duen garrantzia ikusita, Azkoagain zalez beteta egoteko eskaera egin dute kapitainek, taldearen izenean: "Partidua jokatzeko ilusio handia dugu eta espero dugu Azkoagainen sekulako giroa bizitzea eta jende asko joatea zelaira". Zapatuko partiduari begira, klubak jakinarazi du sarrera doakoa izango dela, "Aloñako zaleak Azkoagainera igo eta harmailak jendez bete daitezten".



AURITZ LARREA
ALOÑAKO KAPITAINA

"Tentsio handiko partidua izango da, baina taldea momentu onean dago, konfiantza handia dugu eta guztion artean aterako dugu".



JOSEBA LARREA
ALOÑAKO BIGARREN KAPITAINA

"Urte osoko joko estilo berbera egitea eta gure estiloa ezartzea izango dira gakoak; hori egiten badugu, partidua irabaztetik gertuago egongo gara, ziur".

Bermeo eta Gasteiz, igoera lortzeko azken geltokiak

FUTBOLA Bermeo eta Aurrera de Vitoria izango ditu aurkari UDAk Hirugarren Mailara igotzeko kanporaketan

J.M.M. ARETXABALETA

Ohorezko Erregional Mailako liga erregularra amaitu arren, Unai Calzonek zuzendutako taldeak oraindik ez du denboraldia amaitutzat eman, zorionez. Hirugarren Mailara igotzeko helburua izan du Aretxabaleto taldeak urte osoan, eta datozen asteetan egiaztatu dezake helburua. Horretarako, Bermeo Futbol Taldearen eta Aurrera de Vitoriaren aurka partidua bana jokatu beharko dute, eta neurketa horietan puntu gehien lortzen dituen taldeak lortuko du Hirugarren Mailarako txar-

tela. Ekainaren 1ean jokatu du UDAk lehenengo partidua, Bermeon; bigarrena ekainaren 16an jokatu du, Ibarren, Aurrera de Vitoriaren aurka.

Bermeorako autobusa

Zapatuan 17:30ean da Bermeoko partidua, eta hara joateko autobusa antolatu gura du UDAk, "zale guztien babesa jaso dezan taldeak". 15:45ean irtengo da autobusa Aretxabaleto, eta UDAkoek jakinarazi dute 2010 baino lehenago -horiek barnejaiotakoek arduradun batekin joan beharko dutela.



UDAK jokalariek, ligako azken partiduan sartutako gol bat ospatzen. IMANOL SORIANO

PILOTA Ataun izango du aurkari Bergarak final-laurdenetan

Aurreneko bi kanporaketak gaindituta -Amezketaren eta Amasa-Villabonaren aurka-, Herriarte Pilota Txapelketako final-laurdenak jokatu ditu Bergarak datozen bi asteburuetan. Azken urteetako emaitza onenak lortzen ari dira bergararrak, eta ez dute edonolako aurkaria garaitu beharko finalerdietara igarotzeko. Ataunen aurka arituko dira nor baino nor gehiago, Gipuzkoako lau onenen artean sartzeko helburuarekin. Iazko finalera igarotzeko gertu izan ziren ataundarrak, eta ez diete gauzak erraz jarriko bergararrei. Kanporaketako joaneko partidua Bergaran jokatu dira; itzulerakoak, Ataunen.

ESKUBALOIA Bailerako ordezkariak EAE-Nafarroa txapelketan

Zapatuan jokatu da, Gasteizen, EAE-Nafarroa eskubaloi txapelketa Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako selekzioen artean. Kadete eta gazte mailako neska-mutilek jokatu dute, eta Gipuzkoako selekzioan Debagoieneko ordezkariak egongo da. Gazte mailako nesken taldean jokatu dute June Herzog eta Nahia Lopez bergararrek, 11:45ean, Nafarroako selekzioaren aurka. Kadete mailako mutilei dagokionez, Aritz Bermejo oñatiarra eta Markel Aperribai bergararra izango dira ordezkariak eta 11:45ean jokatu dute nafarren aurka. Bi taldeek arratsaldean jokatu dute finala edo hirugarren postua erabakitzeke partidua.

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

Hamabi bakarrizketarik hartu dute parte Bergarako Jardun Euskara Elkarteak eta Goiena Komunikazio Taldeak bestelako eragileen eta erakundeen laguntzarekin antolatutako *Algaraka* euskarazko bakarrizketa lehiaketan. Jokatutako saioa irabazita eskuratu zuten txartel bana Ion Martinez *Txiki*-k, Manex Astigarragak eta Asier Galartzak, eta Nerea Arriola eta Getari Etxegarai *coach*-ek aukeratu zuten laugarren finalista; hain justu, Ander Malbadi.

Sari potoloak daude jokoan: 1.000 euro eta Bergarako tostoiak eta erreilenoak eskuratuko ditu lehenengo sariaren irabazleak; 600 euro, bigarren sariaren irabazleak; Bergarako Zumelaga jatetxean afaria eta Lamaino Etxeberri nezkazari-etxean gaua eta gosaria jasoko ditu hirugarren sariaren irabazleak. Horiez gainera, Bergaran gastatzeko 250 euroko bonua jasoko du Bergara Saria eskuratzen duenak.

Lehiakideak, "gogoz"

Finalak berarekin dakarren tentsioari aurre egiteko gogoz, taularen gainera igotzeko "ilusioarekin" daude lau bakarrizketariak. "Sentsazio onak ditut, pozik noa kanporaketatik, eta ea asmatzen dugun guztion artean *Algaraka*-ri bukaera txukuna ematen. Ez da erraza nork irabaziko duen aurreikustea", dio Asier Galarzak. Bide bereetik erantzun du Manex Astigarragak: "Lehenengo izango omen naiz; beraz, ondorengoak baino metro dezente atzerago hasiko naiz korrika. Plaza hotz, asko asmatu beharko dut irabazteko. Apur bat bustiz, Asierrek emaitza ona edukitzea gustatuko litzaidake, hura ere jardun honetan berria delako eta duen estiloa gustatzen zaidalako".

Gaurko finalerako gogo handiarekin dagoela aitortu du Ion Martinez *Txiki*-k ere: "Antzokia bete egingo da eta sekulako giroa izango dela uste dut. Emaitza polita izango delakoan nago. Txapelketa irabazten badut ederto, eta bestela, bada, bost minutu triste eta listo". Finalaren harira, "bihotza erdibituta" duela kontatu du Ander Malbadi: "Finalen parte hartzeagatik, batetik, zirrara, eta, bestetik, urduritasuna. Eten barik saiatu



Ander Malbadi, Albizturko bakarrizketaria. 'ALGARAKA'



Muxikako Asier Galarza. 'ALGARAKA'



Debako Manex Astigarraga. 'ALGARAKA'



Donostiako Ion Martinez Txiki. 'ALGARAKA'

Hitzekin lehian Seminarixoan

Ander Malbadi, Ion Martinez 'Txiki', Asier Galartza eta Manex Astigarraga izango dira gaur, egubakoitza, 20:00etan hasita Bergarako Seminarixoan jokatu den 'Algaraka' euskarazko bakarrizketa lehiaketako finalean lehian; sarrera guztiak agortuta daude

naiz lehiaketaren osagai hori itzaltzen eta saio moduan enfokatzeko, baina gezurra esango nuke lehiaketa izate horrekin ahalik eta emaitzarik onena lortzea bilakatzen dela helburu".

Denetariako diskurtsoak

Kanporaketa saio guztietan umorea egiteko askotariko gaiak

MREN NOGALESEK ETA JON OLIVARESEK AURKEZTUTA, GAUR, 'ALGARAKA'-KO FINALA SEMINARIXOAN

azaleratu dituzte lehiakideek, eta "asko eskertu" du hori publikoak zein epaimahakide jardun duten Idoia Torregarai, Aner Peritzek eta Josu Zubiak. Hauze dio Josu Zubia epaimahakideak: "Aurpegi berriak ikusi ditut, jende pila bat ezagutu dut, eta hori sekulakoa da. Denetik egon den arren, bereziki baloratu dut zelako ahalegina egin duten txiste errazetara jo barik, testua lantzeko orduan".

Askotariko diskurtso horien artean, esaterako, politikari buruzkoak aukeratzen dituela dio Manex Astigarragak: "Nire estiloa tartean eduki politikoa

edukitzekoa da, eta, batzuetan, publiko zabal batekin hotz gera daiteke, politikarekin umorea arrakastaz egitea ez baita erraza; bada, dudan aldarrearen arabera batera edo bestera joko dut. Esango nuke teknikoki oso testu sendoa daramadala, txiste asko eta elkar lotuta, baina jendaurrean probatu gabe ezin

LAU SARI HANDI BANATUKO DITUZTE "HARRERA ONA" IZAN DUEN BAKARRIZKETA LEHIAKETAN

da jakin zenbateko efektua izango duten". Aspaldi idatzita zituen hari-muturrei forma emanda sortu du Malbadi, berriz, gaurko gidoia: "Bultzada bat behar nuen horiek josteko, eta finalak eman dit hori. Orokorrean, saio polita izango dela uste dut, festa giroan bukatuko duguna".

Antolatzaileak ere "pozik"

Erronka "handia" izan da ekimenaren bultzatzaileendako ere, baina "pozik" daude orain arteko emaitzarekin. Hauze dio antolatzaile taldeko kide Miren Arregik: "*Algaraka*-ren atzean lantalde handia dago eta koordinazioa eta inplikazioa handia izan da guztien partetik. Publikoak ere oso ondo erantzun du, aretoak beteta izan dira saio gehienetan eta oso elkarrizketa polita sortu da taularen gaineko artisten eta jarlekuetan eserita zeuden artisten artean".

Final "dotorea"

Lau bakarrizketariek gainera, aurreko saioetan egin moduan, musikariak eta aurkezleak ere izango dira Seminarixoko agertokiaren gainean. "Miren Nogalesek eta Jon Olivaresek jardun dute aurkezle lanetan; lehenengo bi saioetan, Bergaran eta Urretxun, Nogales izan zen, eta aurreko astean, Zumaian, Osintxuko aktorea. Gaur, baina, biak izango dira rol horretan, eta, aurrekoetan izan dugun moduan, gonbidatu bat izango dugu: gaurko, Yogurinha Borova artista handia gonbidatu dugu. Seguru nago bakarrizketa-musikatu polita egingo duela".

Aurkezle eta bakarrizketari lanetan jardutea erronka izan dela dio Olivaresek, baina "gogotsu" dago Seminarixoko agertokira igotzeko: "Zumaia saioan hasieran urduri egon nintzen, baina asko gozatu nuen gero, eta gaur ere gozatzera noa. Estreinakoz izango gara Miren eta biak elkarrekin taularen gainean, baina gu ere dena ematera goaz".

Pantailan ikusgai

Kanporaketa saio guztiak grabatu egin dituzte, eta gaur, egubakoitza, eskainiko dute hirugarren saioa estreinakoz Goiena telebistan, 20:30ean. Bihar, zapatua, 23:00etan eta domekan 18:00etan eta 23:30ean izango da ikusgai. EITBren Primeran plataforman eskuragarri izango da finala ere, datorren astean.

Alboka Eguna, euskal doinuen erakusleiho

Euskal Herriko txoko askotatik etorritako musikariak batuko dira bihar, zapatua, Aramaion ospatuko duten Alboka Egunean parte hartzeko; askotariko musika tresnen doinuak lagun, kalejira, herri bazkaria eta kontzertuak izango dira gozagarri

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO Urtero egiten dute Alboka Eguna; jaialdi ibiltaria eta herrikoia da. Herrialdeak txandakatuta antolatzen dituzte eta Araban egingo dute aurtengoa. Bihar, zapatua, Aramaio izango da festarako gunea.

Haizem@n elkarteak antolatuta Euskal Herriko txoko askotatik etorriko diren albokariez gainera, txistulariak, trikitilariak eta musikariak izango dira. "Topaketa honen helburu nagusia musika-tresna horien musika eta ondarea zabaltzea eta indartzea da. Jaialdia erakusleiho aparta da, emanaldi tradizionalak zein gaur egungo musikaren arteko uztartzeak bistaratzeko", azaldu dute antolatzaileek.

Otazun sortu baina Araba osoan lan egiten duen Haizem@n albokari elkarteak du arden antolatzeke ardura, eta Aramaio Udalaren bidelaguna. "Topaketa hau, bere txikitasetatik, euskal kulturaren osagai izatea nahiko gertuko. Euskara jaiaren atal garrantzitsua baita, euskarak eta albokak aspalditik egin dutelako bidea elkarrekin".

Egun osoko plana

Gonbidatuei ongietorria egingo diete Aramaioko produktuekin



Aramaioko eta Gasteiz aldeko albokariak, Aramaioko Lorabarri Egunean. IRATI MUJICA

osatutako hamaiketakoarekin –Iturrietako sagardoa eta sagar-zukua eta Kerixarako gazta–, eta 12:00etan Bixente Goikoetxea plazatik abiatuko dute kalejira. Kanpoko frontoi estalian bazkalduko dute, 14:30ean. Aurrez saldu dituzte txartelak, baina bihar ere salgai izango dira –helduentzako hamar euro eta haurrentzako bost euro–.

Sabela bete ondoren, topaketan bildutako musikarien bat-bateko joaldiez gozatzeko aukera izango da arratsaldean, eta, horrez gainera, Haizem@n albo-

kari elkarteak eskainiko duen LA alboka bat zozketatuko dute segidan. Imaginaciones NAI konpainiak hartuko du lekukoa ondoren eta *Tik-tak* ikuskizuna eskainiko dute 18:00etan.

Horiek guztiak egin ondoren, musika saio gehiago izango da Alboka Eguneko egitaraua borbiltzeko; izan ere, 19:00etan hasita, Besaide, Ursaria eta Intxixu taldeen kontzertuak izango dira. Antolatzaileek gaineratu dute txosna bat jarriko dutela, non ogitartekoak izango dituzten salgai.

Gipuzkoa Bertsoan-eko azken lau kanporaketa saioak

Ataunen eta Elgetan jokatu dituzte bihar, zapatua, eta Hernanin eta Soraluzen, berriz, beste biak, domekan

A. A. J. ELGETA

Udazkenean abiatuko duten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako txartel bana ia eskuratuta dute aurreko asteburuan kantatu zuten Arrasateko Ane Zuazubiskarrek, Maider Arregi oñatiar-

rrak eta Eskoriatzako Oihana Aranak, saioak irabazita.

Elgetan eta Hernanin

Saillkapen fasea amaitzeko, txapelketan Debagoieneko gehiago izango direla aurreikus daiteke.

Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako kide Urko Arregi eta Urko Egaña daude asteburuko kanporaketen lehiakideen zerrandean; Elgetako Espaloia antzokian izango da bihar, 17:00etan, Arregi, eta Hernaniko saioan, domekan, 17:00etan, Egaña.

Saio guztietarako sarrerak *Bertsosarrerak.eus* atarian eskura daitezke: sarrera arrunta zazpi eurotan; eta bost eurotan gazteendako eta Bertsozale Elkarteke bazkideendako.

Goienakideen txokoa

MAIATZKO IRABAZLEAK

ERRIGORAKO SASKIA
Lierni Lizarazu Axpe (Oñati)

HARREMAN DENDA KO OTARREA
Nerea Madariaga Mujika (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Nerea Pagaldai Arana (Arrasate)
Joseba Etxaniz Alberdi (Bergara)
Leire Arbelaitz Gantxegi (Bergara)

UKARTE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Iban Roa Perez (Arrasate)

HIRUSTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Maki Aginagalde Garitano (Bergara)

TXALAPARTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Itxaso Errarte Mugika (Eskoriatza)

'PASSPORT' ANTZERKIRAKO SARRERAK

Mari Murillo Murillo (Arrasate)
REALAREN ETA VALENTZIAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK

Haitz Alzola Peñaranda (Arrasate)
REALAREN ETA ATLETICO MADRILEN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK

Jon Mikel Larrañaga Irizar (Oñati)
'ALGARAKA' BAKARRIZKETARAKO SARRERAK

Gorka Unzueta Aranguren (Bergara)
Patxi Xabier Bengoa Arana (Arrasate)

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETARAKO SARRERAK
Olatz Aramendi Elcorobamutia (Oñati)
Asun Zubia Pagaldai (Eskoriatza)
Jose Luis Aguirre Altube (Bergara)
Zorione Jausoro Izurategi (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO:

Amerikutzeko sarrerak. Goiena Klubeko txartel eskutia, bina sarrera izango dituzte Amerikutzeko txartelarekin. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBETA**. Areatz auzoa, Oñati: 943 08 20 00. **Dudategia**: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (auzoan dauden hitzorduek egiteko) **Harreman-dendako ordea**. **Oñatiko** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman-dendara. **Arrasateko** Eskola Ikasleentzako duden dendara. **Errigorako saskia jasotzeko**, jarraituz GOIENAREN egotzara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** eskutia edota **BAZKIDE ZENBAGIA** aditorea eman behar da. **GOIENA** Oñatiko Lizentziaduna 31, Arrasate: 943 25 05 05. **Dudategia**: asteleheneretik eguenera 09:00 - 18:00. **Egubakoitzean**: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

EHZ festibalaren antolatzaileei esker

EHZ festibalaren hiru egunetarako bi sarrera ditugu. **Arberatz-Zilhekoa | Ekainak 28, 29 eta 30**

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus **WhatsApp**: GOIENAKIDE "EHZ"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena (LPI) 15/000 inguruan (jainkoen izenarekin) Goiena Klubeko txartelarekin (jainkoen izenarekin) batera sartuko da. Zozketaren helburuak Goiena Klubeko txartelarekin batera sartuko da. Zozketaren helburuak Goiena Klubeko txartelarekin batera sartuko da. Zozketaren helburuak Goiena Klubeko txartelarekin batera sartuko da. Zozketaren helburuak Goiena Klubeko txartelarekin batera sartuko da.

Irabazi bi pertsonarendako otordua

ITURRIETA SAGARDOTEGIA JATETXEARI ESKER

Begiratu **Puntuak** aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 4

📞 943 25 05 05

✉ goienakide@goiena.eus

📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📱

GOIENAKIDE Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. 3 logela eta igogailua duen, eta Poligono inguruan kokatuta dagoen etxebizitza erosi-ko genduke. Lan egongo-korra duen bikote gaztea gara. 673 35 95 98

Debagoiena. Etxebizitza erostea nahiko nuke. Ez zait zein egoeratan dagoen etxebizitza. Momentuan egin dezaket ordainketa. 623 17 95 37

103. ERRENTAN EMAN

Arrasaten. Arrasate Pa-sealekuan pisu bat aloka-tzen da garajearekin. Nahituenak bidali email bat Ekieleane@hotmail.com helbidera.

Calpe (Alacant). Oporretarako apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela, egongela, sukaldia, bainugela osoa eta balkoi ederra. Interesatuok deitu edo jarri harremanetan Whatsapp bidiez: 655 74 57 97 (Txaro) edo 615 75 98 32 (Jesus)

104. ERRENTAN HARTU

Alokairu Oñatin. Etxea errentan hartu genduke Oñatin. Bertako bikote gazte eta arduratsua gara. Biok lanean ari gara. 645 09 41 79 edo 633 80 36 68

Bergara. Bi edo hiru logela dituen etxebizitza baten bila gabiltza. Igogailua izatea gustatuko litzaziguke. Biok egiten dugu lan Foragorren. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxea errenta hartuko nuke Debagoieneko edozein herritan, Oñatin izan ezik. 663 40 92 67

4. LANA

402. ESKAERAK

Bergara. Ingeles irakasle lanetan ari den neska gazte bat naiz. Ekaina-Uztaila bitartean umeen zaintza lanetan edota ingeles klaseak emango nituzke. 634 40 86 24

Bergara eta inguruak.

Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 642 11 57 74

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoria-tza. Bergarako neska pertsona nagusiak zaindu edota etxeetan garbiketa lanak egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 696 84 19 51

Bergara. Emakume bat prest goizetan garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 642 37 01 92

Bergara. Neska bergara-rra, udan umeak zainduko nituzke. 634 43 71 49

Debagoiena. Atariak, etxeak eta era guztietako lokalak garbitzen edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. 620 23 58 15

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanak egin edota haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. 671 64 11 25

Debagoiena. Emakumezkoa asteburuetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. 624 81 93 71

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zainduko nituzke baserri zein etxeetan. 672 55 67 35

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. 697 72 78 19 (Saida).

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, etxetik kanpo bizitzen zein orduka lan egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut, baita legezko agiriak ere. 603 26 70 87

ALDIZKARI BANATZAILEA OÑATIN.

Goienak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldizkariak banatzeko. Autoa beharrezkoa da. Harremanetarako: 943 25 05 05 harpidetza@goiena.eus

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten pertsona nagusien zaintza lan egin nahi dut. Asteburuetan eta gauetan etxe zein ospitalean lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 602 80 15 38

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario eta garbiketa ikasketak ditut. Eskarmentu handi dut lan hauetan. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo kanpoko langile bezala lan egin dezaket. 643 47 39 37.

Debagoiena. Lantegietan, dendetan, zerbitzari gisa taberna zein jatetxetan lan egiteko prest dagoen emakumea. Gidatzeko baimena eta kotxea ditut. Malgutasun osoa. 611 53 63 39

Debagoiena. Lantegietan, dendetan, zerbitzari gisa taberna zein jatetxetan lan egiteko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut. 688 71 08 09.

Debagoiena. Neska eskalduna nagusiak zainduko gertu, etxe zein ospitaleetan. Orduetegi aldetik malgutasun osoa, egunean zehar edo gauean lan egin dezaket. Soziosanitario ikasketak ditut baita gidabaimena ere. 656 79 28 37

Debagoiena. Neska eskalduna pertsona nagusiak zainduko gertu. Beste lan batzuk ere egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Gidabaimena eta autoa ditut. 656 79 28 37

Debagoiena. Gizonezkoa garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zainduko prest. 642 36 70 42

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko prest dagoen gizona. Soziosanitario ikasketak eginak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. 643 21 04 28

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulua dut. Arratsaldetan zein asteburuetan lan egiteko prest. 625 25 57 78

Oñati eta Arrasate. Pertsona nagusiak zainduko gertu dagoen gizonezkoa. Soziosanitario ikasketak eginak ari naiz. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egiteko prest nago. Deitu 644 78 30 45 telefono zenbakira.

6. MOTORRA

602. EROSI

Land rover Defenderra erosiko nuke. Land rover Defenderra behar dut baserriko, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, makuratu, kolpearekin. 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Euskal artzain txakurra. Emea den euskal artzain txakur bila ari naiz, nik dudana euskal artzain txakurarenkin txakurkumeak izan ditzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 50 06 92

8. DENETARIK

801. SALDU

Ekdide Group partizipazioak salgai. Ekdide group partizipazioak saltzen ditut. Nahi dituenak bidali dezlara email bat Ekieleane@hotmail.com helbidera.


806. GALDU

Pultsera Bergaran. Apiril bukaeran urrezko pultsera bat galdu nuen Santa Marina eliza eta ambulategi artean. Bertan, Saioa izena ageri da. Aurkitu baduzu eskertuko nuke harremanetan jar-tzea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 77 13 77

809. ERRENTAN EMAN

Lursaila Aretxabaletan. Aretxabaletan lursailak ematen dira errentan. Aproposak orturako, txakurkuntzako, eta abar. Interesatuok deitu 618 76 34 40 telefono zenbakira.

ZORION AGURRAK



ARETXABALET
Alain Rodriguez Arca

Ekainaren 5an, 11 urte. Zorionak, gure Erraldoi txikia. Egundoriontsua izan dezazula zure 11 urtebetzean. Musuak familiakoen partetik.



ANTZUOLA

Iker eta Maddi Larrea
Ekainaren 2an, 47 urte. Ikerrek ekainaren 2an 47 urte eta Maddik ekainaren 3an 11 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuten urtebetetze egunak. Muxu handi bana etxeko partetik.



ARETXABALET
Mare Eskibel Olalde

Maiatzaren 31n, 6 urte. Zorionak, politxo! Patxo bat beste hiru sorginen partetik ta besarkada haundi bat danon partetik!



ARRASATE
Uxue Lezamid

Maiatzaren 30an, 5 urte. Zorionak Uxue zure urtebetzean. Patxo handi bat. Askomaite zaitugu.



ARRASATE
Haizea Errasti Canales

29an, 12 urte. Zorionak, txapelduna! Muxu asko familiaren, bereziki Alazne, June, Aitor eta Markel partetik.



ARETXABALET-BERGARA
Izaro Puga Saez

Maiatzaren 28an, 18 urte. Zorionak, maitia! 18 urte! Disfrutatutopera! Maite zaitugu.



OÑATI
Luka Goitia Osinaga

Maiatzaren 27an, 6 urte. Zorionak, xagutxo! Ailau da azkenian zure eguna, ondo ondo pasau! Infinito maitte zau!



ARRASATE
Julen Moto

Maiatzaren 19an, 5 urte. Zorionak, maitia! 5 urte txapeldun! Ederto ospatu eguna familia eta lagunekin. Askomaite zaitugu!

OÑATI
Izaro Aranguren Olariaga
Maiatzaren 26an, urtebete. Zorionak ta urte askotako, prexioxa! Ondo Ondo ospatu zure eguna eta patxo haundi bat familia danan partetik.

ZORIONTEK

HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurra* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurra@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatuz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



BERGARA
Enara Arrillaga Urbieto

Ekainaren 5ean, 4 urte. Zorionak, politxo! Ondo ondo ospatu zure eguna familia guztian partetik!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Garajea Saldu/Errentan.
- Lokala Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza eman.
- Motorra Saldu/Alokatu.
- Animaliak/Saldu.
- Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
- 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziki aplikatuko dira.
- Profesionalen modulua.
- Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Korosti
Inmobiliaria

Bergara: Ibarra,
87m² erabilgarri,
3 logela, ganbara eta
trasteleku. Erabat
kanpoaldekoa.
140.000€


Bergara: San Pedro,
67m², 2 logela,
ganbara etxebizitzatik
sarbidearekin.
120.000€


Bergara: Bidekurutzeta,
55m² erabilgarri, logela 1,
igogailua eta garaje itxia
aukeran. Guztiz berritua.
183.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokokorosti.com

Informazio
gehiago:


OROIGARRIA



Unai Alberdi Gisasola 


2024ko maiatzaren 27an hil zen, 51 urte zituela.


*Izar berri bat piztuzera doa
Euskal Herriko zeru gainean*



Zuzendaritza eta lankideak.
Bergaran, 2024ko maiatzaren 31n.

ESKER ONA



Unai Alberdi Gisasola 


—Goian bego—


2024ko maiatzaren 27an hil zen, lan istripuz, 51 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztiok.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Osintxu-Arriolan, 2024ko maiatzaren 31n.

OROIGARRIA



Unai Alberdi Gisasola 

—Goian bego—

2024ko maiatzaren 27an hil zen, lan istripuz, 51 urte zituela.

Tio, ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Anuk, Intza eta Lizar.
Osintxun, 2024ko maiatzaren 31n.

OROIGARRIA

Ion Murguzur Orueta 

2017ko maiatzaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

*Zazpi urte pasa diren arren,
zuk utzitako hutsunea bete ezina da.
Zure irribarre eta umorea beti
izango da gurekin.*

Zure kuadrillia.
Oñatin, 2024ko maiatzaren 31n

OROIGARRIA



Jose Ignacio Sasiain Larrañaga 

2023ko ekainaren 3an hil zen, 65 urte zituela.

*Urtebete pasa da joan zinenetik eta
faltan botatzen zaitugu.
Besarkada goxo bat.
Maite zaitugu.*

Zure familia.
Bergaran, 2024ko maiatzaren 31n.

OROIGARRIA



Ruth Niño Hernandez 

2024ko maiatzaren 28an hil zen, 55 urte zituela.

*Sasi guztien gainetik...
laino guztien azpitik*

Zure betiko lagunak.
Oñatin, 2024ko maiatzaren 31n.

MEZA

Maria Luisa Uribe Mendizabal
2024ko apirilaren 9an hil zen, Bilbon, 97 urte zituela.

Petra Uribe Mendizabal
2024ko maiatzaren 24an hil zen, Otandixon, 87 urte zituela.

Julian Uribe Mendizabal
2024ko martxoaren 31n hil zen, Mallabian, 99 urte zituela.



*Aramaixo sorleku
Bizkaia bizileku
zuen irribarre eta
alaitasuna izan daitezela
guretzat eredu.
Etxekoak.*

Haren aldeko meza
zapatuan izango da,
ekainaren 1ean, 13:00etan,
Barajuen auzoko Andra
Mari elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Barajuenen, 2024ko maiatzaren 31n.

OROIGARRIA



Loli Azkoitia Aranguren 

2024ko maiatzaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

*Beti gurekin izango zara.
Ez zaitugu ahaztuko eta
izarretan ikusiko dugu elkar.*

Aranburu Murgizu senideak.
Bergaran, 2024ko maiatzaren 31n.

OROIGARRIA

Loli Azkoitia Aranguren 

2024ko maiatzaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

*Heldu nazazu eskutik, soilik zuk dakizun bezela
Gelditu dezagun denbora, gure begiradan
Ta esaidazu belarrira, beste behin mesedez amama
Zure bihotzaren zati bat eramango dudala.*

Etxekoen partetik, maite zaitugu.
Bergaran, 2024ko maiatzaren 31n.

URTEURRENA



Balentin Elorza Bergaretxe 

2023ko ekainaren 2an hil zen, 87 urte zituela.

*Eskeintzen dizugun
olerkirik ederrena
ixiltasuna da,
zure arimaren oihua
hor baitugu entzuten.*

Urteurreneko meza
domekan izango
da, ekainaren 2an,
13:15ean, Aramaioko
Gantzaga auzoko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aramaion, 2024ko maiatzaren 31n.

URTEURRENA

Santi Guridi Ayastuy 

'Beitti'

2023ko ekainaren 1ean hil zen, 92 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 1ean,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokia elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2024ko maiatzaren 31n.

Oroilore BABESLEA
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiak
esuren bidean aurkitzen lagandua
diragu, orain arte bezala, eta guztiak
izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gogon
izan dituen konfiantzagarrik eta
maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • MOYNA OÑATI



ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**CORPUS EGUNA**

Oñatiko jaiegun handienaren gaineko detaile guztiak jasoko dituzte eta protagonistekin berba egingo dute.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**I. INTXORTAKO RALLYSPRINTA**

Angiozar eta Kanpanzar lotuko dituen auto igoeran jasotako irudiak eta adierazpenak erakutsiko ditu Xabi Urzelaik.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 22:30

**'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'**

Londresen bizi den Antton Peña aramaioarrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik hango azken berriak jasotzeko.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**EZKONTZEN GAINEKO DATUAK**

Zenbat ezkontza, noiz, nola, non... Horien gaineko datuen irakurketa egingo dute gaurko saioan.

'Datuetatik tiraka' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**AINHOA JUANIZI
ELKARRIZKETA**

Zirika Zirkus konpainiaren sortzaileetako batekin egingo du berba Juan Kruz Lakasta kazetariak.

'Elkarrizkettap' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 31**OÑATI Corpus dantzak**

Egitaraua osorik 28. orrian.
Oñatin, 09:30ean.

OÑATI Ate irekiak Gomiztegin

Artzain eskola barrutik ezagutzeko.
Gomiztegin, 12:00etan.

ARRASATE Bigarren eskuko azoka

Arizmendi ikastolako Gaztelupe guneko batxilergoko ikasleen ikasturte bukaerako bidaiarako dirua batzeko.
Seber Altube plazan, 17:00etan.

ELGETA Ipuinen Ordua

Ipuin kontalari boluntarioen eskutik.
Liburutegian, 17:30ean.

ARETXABALETA Dantza Astea

18:00etan, dantza urbanoen tailerra; eta 19:00etan, dantza urbanoen emanaldia.
Mitarte kalean.

ARRASATE Arrasate Musikaleko familien arteko kontzertua

Ikasturte amaierako emanaldia.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:30ean.

ARRASATE Dantzaldia

Portaloi Kultur Elkartearen eskutik.
Kulturolan, 18:30ean.

BERGARA 'Hauteskundeak Katalunian: eta orain zer' solasaldia

Josu Tornayk egingo du berba, Lanbroa kultur elkarteak gonbidatuta.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE Garagardo azoka

Arrasate Rugby Taldearen eskutik.
Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA 'Algaraka' bakarrizketa lehiaketako finala

Yogurina Borova izango da gonbidatua.
Seminarixoan, 20:00etan.

ELGETA Saguzarrak entzuteko irteera

Ion Fontenlak gidatuta eta ultrasoinuak jasotzeko

detektagailuekin. Linternak hartzea gomendatu dute.

Mendizaleen plazan, 21:00etan.

BERGARA Ke Lepo eta Zatibi taldeak

Musika elektronikoarendako lekua, Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoan. Sarrerak, zortzi euro.
Kartzela zaharrean, 22:30ean.

ZAPATUA 1**ARAMAIO Auzolana**

Kurtzetako begiratoki ingurua txukunduko dute.
Aramaion, 08:30ean.

ESKORIATZA XXVI. Ferixie

Egitaraua osorik 16. orrian
Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.

OÑATI Corpus bezpera

Egitaraua osorik 28. orrian.
Oñatin, 09:00etan.

OÑATI Eskubaloiko Corpus txapelketa

Infantil mailako Debagoiena, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa lehiatuko dira.
Zubikoan, 10:00etan.

ARRASATE Artearen azoka

Arrasate Margo Taldearen eskutik.
Seber Altube plazan, 10:30ean.

ARRASATE Bigarren eskuko azoka

Arizmendi ikastolako Gaztelupe guneko batxilergoko ikasleen ikasturte bukaerako bidaiarako dirua batzeko.
Seber Altube plazan, 10:30ean.

OÑATI 'Altxorraren bila' Arantzazun

Orientazio jolasa egingo dute ibilbide irisgarrian. Izena emateko: arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94.
Parketxean, 11:00etan.

ARAMAIO Herri Eskolako jaia

11:00etan, pregoia; 11:30ean, jolasak eta ekintzak; 15:30ean, bingo-jolasa; 16:00etan, euskal jolasak; eta 17:00etan, amaiera.
Herri Eskolan.

ANTZUOLA AKE Eguna

11:00etan, partiduak Eztalan; 12:00etan, karro-poteoa; 14:30ean, herri-bazkaria; 17:30ean, sari banaketa; eta 18:30ean, Elektro Txufla elektro-txaranga.
Antzuolan.

ARRASATE 'Mugarik gabe' ekimena

Azoka gastronomikoa, poesia lehiaketa, pintxoak, dantza latinoak... Amerika elkartearen eskutik, Aniztasun Astearen baitan.
Biteri plazan, 11:00etan.

ARRASATE Begisareren informazio mahaia

Ikusmen baxua dutenen gaitza ezagutzeko aukera, Aniztasun Astearen baitan.
Biteri plazan, 11:30ean.

BERGARA 35. Udaberriko Musika Jaia

11:30ean, kalejirak; 12:45ean, kalejira erraldoia San Martin plazan; 13:00etan, musika eskolako orkestra, eta *Musikak batzen gaitu* kanta, Idoia Asurmendiren laguntzarekin; 14:30ean, bazkaria; eta bazkalostean, Itzal taldea.
San Martin plazan.

ARRASATE Arrasate Musikaleko gaita ikasleen emanaldia

Txikitxu Arrostitz, Lore Gazteak, Arrasateko Gaiteroak, Arrasateko Erraldoi eta Konpartsa eta Arrasate Margo taldearen kolaborazioekin.
Arrasaten, 12:00etan.

ARAMAIO Euskal Herriko Alboka Eguna

12:00etan, kalejira Bizente Goikoetxea plazatik; 14:30ean, bazkaria; 18:00etan, *Tik-tak* ikuskizuna; eta 19:00etan, Besaide, Ursaria eta Intxixuren kontzertua.
Aramaion.

OÑATI Txondorra piztu

Gaur eguerdian piztuko dute. Informazio osoa, 26. eta 27. orrietan.
San Martingo hariztian, 12:00etan.

ELGETA Intxortako I. rallysprinta

Angiozar eta Kanpanzar artean. Sarrerak, hamar euro.
Astentzian, 12:30ean.

BERGARA Otaba jaiak

15:00etan, etxafuegoak; 16:30ean, mus txapelketa; eta 21:00etan, bertso afaria Maialen Lujanbiorekin eta Andoni Egañarekin, eta txiste kontalaria.

Elosua auzoan.

ARETXABALETA Open Oztupo txapelketa

Trialsin probak, adinka banatuta eta ibilbide ezberdinetan.

Trial parkean, 16:00etan.

ELGETA Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Aitor Salegi, Andoni Rekondo, Beñat Jauregi, Julene Iturbe, Manu Goigiana eta Urko Arregi oholtza gainean.

Espaloian, 17:00etan.

DOMEKA 2**ARAMAIO Santikurtz eguna**

12:00etan, meza; eta, ostean, beheko txabolan salda beroa eta pintxoak.

Santikurtzen.

ARRASATE Santagedaatxera ibilaldia

Gesalibar auzoaren gainean dagoen tontorra igoko dute: 9,5 kilometro. Izena emateko: 943-25 20 00.

Herriko Plazan, 09:00etan.

OÑATI Corpus eguna

Egitaraua osorik, 28. orrian.

Oñatin.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Mendizaleen plazan, 10:30ean.

BERGARA Otaba jaiak

12:00etan, pilota partiduak; 13:00etan, meza auzoko hildakoen alde; 13:30ean, trikiti emanaldia; 14:30ean, bazkaria, eta ostean erromeria; 16:30ean, artzain txakurren erakustaldia, eta ostean, erromeria.

Elosua auzoan.

BERGARA Kantu jira herrikoa

Jardunen eskutik.

Bergaran, 12:30ean.

BERGARA San Antonio

txirrundulari saria
Gizonezkoendako eta emakumezkoendako Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak.

San Antonio auzoan, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Money, money!' antzezlana

Arantxa Lopez de Letonak idatzitako lana, La Farandula De Elburgo taldearen eskutik. Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan

ASTELEHENA 3**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran.

Herri horietan, 12:00etan.

BERGARA Otaba txiki jaiak

13:00etan, *piskobalix*-a, eta ostean, erromeria; 15:00etan, bazkaria, eta ostean, erromeria; eta 18:00etan, amaiera.

Elosu auzoan.

MARTITZENA 4**ESKORIATZA 'Liburuak aukeratzeko historio bat opari' tailerra**

Dorleta Kortazarrek gidatuta, 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Debalde.

Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI Nadia Ghulam-en hitzaldia

Afganistango egoera eta hango emakumeen eskubideen inguruan egingo du berba, Erei elkarteak eta Hotz Oñatik gonbidatuta.

Kultura etxean, 19:00etan.

EGUAZTENA 5**BERGARA 'Energia hiri jasangarrian' erakusketa**

Eskolako 2030 Agenda proiektuaren baitan herriko ikasleek egindako lanaren emaitza da honako hau. Ikusgai, hilaren 16ra arte.

Kulturate, Arrasate 18:30etan



EUSKAL HERRIKO ALBOKA ELKARTEA

ARAMAIO Euskal Herriko alboka topaketa

12:00etan kalejira egingo dute, Bizente Goikoetxea plazan hasita. Ostean, bazkaria, *Tik-tak* ikuskizuna Imaginaciones NAIren eskutik eta Besaide, Ursaria eta Intxireuren kontzertua.

Bihar, zapatua, Aramaion, 12:00etan.

OÑATI 'Energiaren gaiari erantzun kolektiboak' hitzaldia

Energiaren Zikloa Aktibatu zikloaren barruan.

Kultura etxean, 18:30ean.

ANTZUOLA Antonio Aretxabala geologoaren hitzaldia

Meaka-Irimo herri plataformak gonbidatuta, energia berriztagarrien implantazioaren beharraz, bideragarritasunaz eta naturan dituzten kalteez egingo du berba.

Olaran etxean, 18:30ean.

ELGETA Palestinari buruzko solasaldia

Andoni Olariagarekin, Elgetako EH Bilduk gonbidatuta.

Udaletxean, 18:30ean.

ARRASATE 'Ztandap' bakarrizketa umoretsua

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik egingo dute emanaldia.

Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Garaiko produktuak erosteko.

Oxirondon, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Bizi zirkua' ikuskizuna

Kiki Eta Koko pailazo taldearen eskutik, 7x7 Kultura Kalean ekimenaren baitan.

Gipuzkoa plazan, 19:00etan.

OÑATI Dei taldea

Mutrikuko taldearen emanaldia.

Eltzia topagunean, 20:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIANTZOKIA****Tatami**

Zapatutik astelehenera: 19:30.

Amigos imaginarios

Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Siempre nos quedará mañana**

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

GASTEIZ**FLORIDA****Siempre nos quedará mañana**

Egubakoitza: 19:15.

Zapatua: 12:00, 19:15.

Domeka: 12:00, 20:00.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

La casa

Egubakoitza: 16:30, 22:15.

Zapatua: 12:00, 22:15.

Domeka: 12:00.

Amigos imaginarios

Egubakoitza: 17:15, 19:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15, 19:00.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

El reino del planeta de los simios

Egubakoitza: 16:30, 21:45.

Zapatua: 12:00, 16:30, 19:00.

Domeka: 12:00, 17:00.

Segundo premio

Egubakoitza: 19:30, 22:00.

Zapatua: 12:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 19:30.

Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:30.

Back to black

Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 19:15, 22:30.

Domeka: 16:45, 19:15.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

Martitzena: 17:00.

La promesa de Irene

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 21:15.

Domeka: 16:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

El ultimo verano

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.

Domeka: 18:30.

Astelehenetik eguenera: 19:15.

Garfield

Egubakoitza: 20:10.

Zapatua eta domeka: 12:00, 20:10.

BERGARA 'Sunset Boulevard' pelikula

Zineklubean. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixean, 20:00etan.

EGUENA 6**BERGARA Bergara oinez**

Ekaineko lehenengo irteera egingo dute. Izena emateko: 943-76 21 40 edo 943-77 70 95.

Agorrosinen, 10:00etan.

OÑATI Belaunaldien arteko ibilbide osasuntsua

Nerabeak Astintzen programaren azken jaia: hiru kilometroko ibilaldia eta hamarretakoa.

Santa Anan, 10:30ean.

ESKORIATZA Familian jolasean

0-6 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako.

Bibliotekako patioan, 17:00etan.

ARRASATE Jostailu truke azoka

Txatxilipurdiren eskutik.

Monterron parkean, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Haurrak, nerabeak eta pantailak' hitzaldia

Miren Rosek egingo du berba, Altxa Burua taldeak gonbidatuta.

Olaran etxean, 18:00etan.

ARRASATE Garaia Udaberri Fest

Sertx eta Bouza musikarien emanaldi akustikoak. Edari bat debalde.

Garaian, 18:00etan.

ARETXABALETA XIII. Euspot: sari banaketa ekitaldia

Lan onenak sarituko dituzte.

Arkupen, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 7**ESKORIATZA Skatearen teknikak ezagutzeko ikastaroa**

Ostean, erakustaldia eta skate libre.


Skate parkean, 18:00etan.

OÑATI Gipuzkoako futbol sariak

Aloña Mendiren 75. urteurrenaren harira, Oñatin banatuko ditu sariak Gipuzkoako Futbol Federazioak.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

FAGOR TALDEAREN BATZAR NAGUSIA 2024



ETORKIZUNA HOBETZEKO, IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA 2023KO DATU ADIERAZGARRIENAK



GOBERNANTZA:

212

bazkide kontseilu errektore eta sozialetan



INGURUMENA:

Energia kontsumo totalaren

% 63

energia berriztagarria



LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA:

Salmentak:

1.756 M€

Irabaziak:

75,4 M€



GIZARTEA:

2,6 M €

Gizarte funts bidez banatuta



PERTSONAK:

5.124

langile
Euskal Herrian



% 89

bazkideak

2023an

550

bazkide berri



563.504 €

euskararen normalizaziora



fagoredentaltaldea

